


ANTONIO ZAVALA, S. I.



**JUAN ETA PELLO
ZABALETA**

BERTSOLARIAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

JUAN ETA PELLO ZABALETA

BERTSOLARIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

63-64

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612

Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta

Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

ANTONIO ZAVALA, S. I.

JUAN ETA PELLO ZABALETA
BERTSOLARIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA
1967

Depósito Legal S. S. 190/67

IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1967

A R K I B I D E A

Oar triste bat	9
Itzaurrea	13
JUAN ZABALETA'REN BERTSOAK:	27
Europa'ko Gerrari	29
Neskatxa bati	34
Bertso Berriyak (Estropadari — 1920)	37
Jose Kruz Oloki'ri	44
Bertso Berriyak (Errenteria'ko Misioari)	47
Bertso Berriyak: "Notiziyak baditut..."	52
Nikolasentzat	56
Zorionak	58
Irun'go ostikolariari	60
Xenpelarren oroimenez	62
Donostiyako estropadari (1931)	66
Arrese'tar Emeterio jaunari	68
Umezurtza eskalia	70
Kristaubaren deia	73
Akilino Izagirre'kuari	76
Gabon-kantak	80
Gaur ekusten deguna	83
"Milla bederatzireun..."	87
"Grazi berex bat..."	90
"Orra bertso berriyak — dakidan euskeran..."	92
"Jesus jaio zanetik onera..."	94
Baroja eta Etxabe'tar Estanisladari	96
Donostiyako estropadari (1932)	99
"Agur guziori..."	103
Txirrita il da	105
Donostiyako estropadari (1941)	107
Maria Magdalenaren ermita	113
Zentolene'ko baserriya	115
Pizkor batzueri	118
Aita Mañuel'i	122
Bertso Berriyak: "Kaso polit bat..."	125
PELLO ZABALETA'REN BERTSOAK:	127
Elama'ko mendian	129

Manuelaren penak	132
Nere gertaerak 1918'an	138
Donostiyako estropadari (1922)	145
Sesiyo bat	153
Artola'ri	158
Mutil zurrutero bati	160
Neskazarren alde	161
Mutil zarra, neska zarra tentatzen	166
Bertso Berriyak: "Mutil gazte bat..."	169
Bertso Berriyak Inazio Mirandak jarriyak	176
Bertso Berriyak: "Alpargata pare bat nuen..."	181
Mikela-zulori	186
Gauza samingarriya	187
Guraso zar baten negarra	189
Mutil zar bateri	192
Ijito antzeko bati	195
Alkar eziñ ikusiya	198
Bertso Berriyak uraldiari	201
Langillien alde	204
Goiko-kaleko neskazarrak	206
Prieto'ri	209
Bertso Berriyak: "San Antonio egunian..."	215
Txantxangorriyari	210
Katu baten istoriya	221
Santiyo-mendin	224
Bi atsoren esku-dantza	227
Bertso Berriyak: "Milla bederatzi eun berro- gei ta biyan..."	231
Oraingo Erreteriarari	240
"Zure bertsuen bueltak..."	246
"Emakumiai..."	245
Zer geran	250
"Txakur txiki bat bazan..."	259
Bizi-modu garratza	262
"San Anton egunian..."	268
Nere lagun zanaren oroimenez	271
Illargiyaren azpiyan	273
Erreteriko "Jangoiko-Txiki" zanaren bizitza	277
Goiko-kaletik Gora Erreteril	288
Au lana!	291

Oar triste bat

Inprentatik liburu onen lenengo probak etorri-zai geundela, Pello Zabaleta bertsolaria il egin zaigu. Eztu, beraz, bere liburua ikusi, artarako ainbeste lan egin ondoren, eta beste ametsik ez bazuan ere. Ema ten du, bere liburua prestatu zai zegoala, mundu ontatik alde egiteko.

Itzaurrean bizirik bezela jotzen da Pello. Artean bizi baitzan. Orain bera ilda, dandana zuzentzen eta aldatzen ibilli gabe, ego kiago iduritu zaigu itzaurre ori bere ortan uztea, aurretik Pello gure artetik joana degula adierazirik, eta beraren eriotzaren berri emanik.

Eriotza au onela gertatua da:

Otsaillaren 26'an, igandearekin, Errenteria'n bertsolari-txapelketa zan. An alkar ikusi ta agurtu genduan. Zoratzen zegoan Pello, bertsolari zarra, bertsolari gazteak entzuten.

Biaramon-arratsaldean, egoaldi ona baitzegoan, eta oitura ere ala baitzuan, paseatzera atera zan. Illuntzean, ordea, etzan etxera bueltatu. Etxekoak, zerbait izana zuala etsirik, asi ziran billa ta galdezka, bañan alper-alperrik; etzuten aren aztarrenik atera.

Urrengo goizean, argitu zuanean, egoaldi onarekin mendi aldera jotzen zuala-ta, mendira joan ziran billa. Ta piñudi beltz baten barrenean arkitu zuten, lurrean etzanda, eta ez billatzen oso erreza ere. Bizirik eta korderik galdu gabe zegoan. Buru-atake bat izana zuan, patxaraz exerita egurastan zegoala.

Gizagajoak, amasei bat ordu pasiak zeuzkan lurrean, amasei bat ordu alegia, bere buruaz ezin baliaturik. Oju egiten zuan, batzutan erderaz: “*¡Auxilio! ¡Auxilio!*”, ta bestetan euskeraz: “Euskalduna naz! Ez al da ni laguntzeko gizonik?”. Bañan alperrik. Ta berak bere buruari onela esaten zion: “Or konpon! Iñork aditzen ez!”.

Zakurrak bai, inguruko baserrietako zakurrak zaungaz pasa zuten gau guzia. Baserritarrak, herriz, onela esan omen zuten bere artean, bein baño geiagotan, zakurren ixkanbillarekin esnaturik: “Bañan zer demontre dute gaur zakur oiek?” Zakur bat

ere etorri omen zitzaion ondo-ondoraño, ta, denbora-puska batean begira-begira egon ondoren, alde egin zion. Personak baño erneago izaki, beraz, gau artan, zakurrak. Izketan ez jakitea...

Pelloc onela zion gero:

—Zakur guziak aizkatu nituen, bañan personik ez!

Linterna-argia ere bistatu omen zuan pasatzen; oju egin ere bai, bañan an zijoanak entzun ez.

Jaunari eskerrak, ateri zegoan eta illargi. Orri eskerrak. Ala ere, ez oztutzearren, mugi egin zituan gau guzian, gelditu gabe, anka-besoak eta burua. Jaso zutenean, eskua, lur-joka, aunditua zeukan; burua, berriez, arantzez betea; eta lurrean zuloa, oia egiña zeukan.

Arkitu ondoren, silla batean exerita etxean sartzera zijoazenean, onela esan zuan:

—Pizkorrak zaudete lauak, ni bezelako Olentzaro bat ezin eramanik!

Bertsolari izaki: zegoan bezela egonda ere, umorea galdu ez!

Medikua ta apaiza ekarri zizkioten. Ba-

koitzak bere lana egin zion. Pixkabanaka obetzen zijoan. Obetu ez-ezik, ondotxo ere jarri zan.

Bere koñata Monikak galdetu zion:

—Ta, gau ortan, ez al zenduen iltzea pentsatu?

Ta Pellok:

—Ez-ta batere! Nik bildur bakar-bakarra nuen: euria egitea!

Ta gero:

—Ai zer-nolako gaia daukazun orain, bertso polit-polit batzuek jartzeko!

Ta Pellok:

—Bai orixe! Jarri bear ditut, ba, ederrak nere gau ortako istoriyakin!

Bañan lenengoa eman zionetik amar egunera, ostegunean, beste atake bat izan zuan. Andik aurrera bukatzen-bukatzen joan zan, eta urrengo igandean, Martxoaren 12'an, gau erdiko amabi t'erdietan, il zan.

Jaunak izan dezala bere ondoan, Pello Zabaleta izena zuan gizon on eta umilla!

ITZAUREA

Juan eta Pello Zabaleta Erreterria'n jaio ziran: Juan, Santa Klara kalean, 1894'ngo Otsaillaren 8'an; eta Pello, Goiko-kalean, 1896'ngo Agorraren 3'an. Juan. orain amasei urte il zan. Juanito deitu zioten denbora guzian; guk ere ala deituko diogu emendik aurrera. Pello, berriz, bizi da.

Aita, Manuel Zabaleta Etxeberria, Oiarzuarra zan; ama, Manuela Kristina Lekuona Lopetegi, Erreteriarra.

Bertsolari zuten aita ere. Arengandik piztu zitzaien bi anaiai bertsoarako griña. Makiña bat bider kantatu omen zuten aita-semeak alkarrekin, sagardotegian-eta, baita etxean ere gabonetan eta gañontzeko etxe-festetan. Bañan aitaren bertso bakar batez ere ez da orain Pello oroitzen.

Bertso zarretan ere, erruz zekiana omen

zan aita. Semeak ere, leen Juanito, ta orain Pello, olakoxeak dira. Aitarengandik ikasitako jakinduria omen dute ori ere.

Jarri ere, bazituan aitak *Guerra Europea* dalakoari jarritako bertsoak. Bañan etzituan inprentatu, ta gaur egunean galduak dira.

Pello jaio ta bereala, Oiartzun'a joan ziran bizi izatera. Pellok onela dio gaur: "Oiartzunen ezagutu nuen nik nere burua." Oiartzun'en bi arreba jaio zitzaizkien, Emiliana ta Inazia. Errenterian bizi dira gaur. Lau senide izandu ziran, beraz.

Oiartzun'en, lenengo, Apatxo baserrian bizitu ziran. Bañan, denbora asko baño leen, baserri ori Rafael Pikabea'ren palazioa egiteko botatzera zihoazelako, andik atera bearra izan zuten. Orduan, Garatenea deitzen zaion Oiartzun'go kale-etxera aldatu ziran; bañan emen ere etziran denbora luzean bizi izan.

Aita, Artikutza'ko guarda enpleatu zan. Orregatik ara eraman zuan famili guzia. Juanito, *dependiente* zegoan Donostiako Getaria-kaleko denda batean, eta utzi egin bear izan zuan ori, Artikutza'ra joateko.

Emen zer bizi-modu izan zuten, Pellok berak idatzita dakigu:

"Gu Artikutza'ra joan giñan 1907 urtean.

Elama'n jarri giñan bizitzen. Bi etxe ziran orduan: Elama zarra ta berria. Elama'ko etxe zarrak irureun urte izango zituan. Garai aietan olak omen ziran. Orduko pareta zarrak ekusten ziran, eta Elama zarra etxe aundi bat zan. Ango ola-gizonen ostatua izango zan. Bearbada ofizinak ere an izango ziran. Burnia egiten omen zuten. Gurdiz eta mandoz bialtzen omen zuten.

Goizaiñ'en ere baziran olak. An ere bazan etxe zar bat. An ere ostatua eta ofizinak izango ziran.

Urdallo'n en baziran olak. Artikutza'n bertan ere bai. Artikutza'n izango zan ofizina guzien burua, zergatik an bada etxe zar aundi bat. Izena onela zeukan orduan: Olafondai. Orain ere ala izango du, ezpadiote aldatu.

Beste etxe zar baten paretian bazan letre-
ro urdin bat; onela jartzen zuan: *Partido Judicial de Pamplona, Barrio de Articuza*.

Or bazan orduan eleiz txiki bat. Pelota-plazaren ezker-pareta egiten zuan. Andik zeukan sarrerako atea. Goizueta'tik etortzen zan apaiza meza ematera. Zaldi gañean etortzen zan. Don Martin zeukan izena. Amarrretako meza ematen zuan. Igandero etortzen zan. Nere anai Juanitok meza laguntzen

zuan. Elama'tik etortzen giñan mezetara. Ordu t'erdiko bidea zan.

Pikabea'k egiña zan Artikutza'ra burni-bidea, an egiten ziran lanak ekartzeko. Bi plano eta iru trena ziran: Elama'koa, Zal-diñ'goa eta Txorrola'koa. Gu Artikutza'ra joan giñanean, 1907 urtean, Rafael Pikabea'rena zan Artikutza. Aministradore zeukan Santiago Villarreal.

Elama'n minak ari ziran orduan. Jende mordoska ari zan lanean. Minerala bertan erretzen zuten, labeetan. Elama berrian ziran minetako ofizinak. Aita goarda eta listero egoten zan mina oietan. Gu ez giñan an lanean aritu. Mina oiek *huelga* baten medioz gelditu ziran.

Elama'ko minak andikan denboraz saldu zituan Pikabea'k. *Marqués de Acillona'k* artu zituan. Arek aministradore jarri zuan Antonio Gaiztarro.

Gu lanean asi giñan Olazuita'n, zerra-fabrikari; anaia asi zan lenbizi, ni geroxeago. Elama'tik etortzen giñan lanera ordu beteko bidean. Zerra-fabrika orretan bost zerra ziran, bi aundi eta iru txiki. Trabiesak egiten ziran, *Norte'ko* eta kostako tren-bideetarako. Duelak ere egiten ziran fabriketarako.

Ango lanak urritu ziranean, piñu erei-

ten aritu giñan; paguak aldatzen ere bai. Otan'go menditik ekarri eta Eskas'en aldatu. An ari giñala, Asturias'ko minetatik etorri zan apeak egiteko eskea. Apea oiek dira mendi ustelari kontutzeko (1) zutikako egurrak. Oiek egitera Elama'ko mendietara joan giñan. An aritu giñan bukatu arte. Kapataza genduan Pedro Ormazabal, Zegama'ko semea.

Ni, gazteena nintzalako, arrantxero jarri ninduten. Kapatazak agintzen zidan non egin arrantxua: mendian txondar-zulo zarretan edo beste zabal-tokietan.

Ango lanak bukatu ziranean, gu, bi anaiak, pasa giñan beste Konpañira. Au zan *Compañía Cerámica Artikuztarra*. Kaolin-mina zan; lur zuri bat ateratzen zan. Orduan etorri giñan Elama'tik Eazki'ra. Baserri-etxe bat zan. An jarri giñan bizitzen. An urte bete pasa genduan. Andik etorri giñan Errenteri'ra. 1907 urtean joan eta 1914 urtean etorri."

Aita lanera-fabrikan asi zan; bi semeak, berriz, igeltserotzan. Bañan, garai artan Errenteria'n etxe berri gutxi egiten zalako, —etzegoan beraz gaurko konturik—, irabazbide motxa sortzen zan langintza orta-

(1) kontutzeko = kontu egiteko.

tik, eta Juanitok laister utzi zuan, bera ere lanera-fabrikan sartzeko. Tintatzallearen laguntzalle jarri zuten. Denboraz, geroago esango degunez, tintatzalle egin zuten.

Pelloc ere, anaiaren bidea artu bear izan zuan, igeltserotza utzi ta lanera-fabrikan sartuta.

Ama, 1915/IV/29'an ia bat-batetan il zitzaien; aita, berriz, 1925 urtean.

Juanito, 1922/VIII/30'an ezkondu zan, Errenteria'ko Monika Galarraga'rekin. Oni eta Pellori zor dizkiegu itzaurre ontan esan diran eta esango diran guziak. Zortzi seme alaba izan zituzten: zarrena, jaio ta ordu erdi batera illa; Ana Mari, 19 urterekin illa; Jose; M.^a Karmen; M.^a Luisa; M.^a Teresa; Antonio, iru urterekin illa; ta M.^a Konsuelo.

Pello, berriz, 1927/VII/7'an ezkondu zan, Astigarraga'ko Rosario Miranda'rekin. Bost seme-alaba izan zituzten: aurrena, jaiotzerakoan illa; Agustin, 19 illabeterekin illa; Agustin; Juana Mari ta Felix. Andrea orain urte batzuk il zitzaion Pellori.

Juanitok, eskolan bi urte besterik egin ez bazituan ere, ikasteko izugarrizko gogoia ekarri zuan txikitandikan. Maiean ere irakurtzen jarduten zan, plater-ondoan irakur-

gaia jarrita eta jateaz aztuta. Anaiak amai-
ka bider esan oi zion: "Motell, jan zak!",
bañan alperrik.

Belar-txortanak autsi ta aien tintarekin
koloreak egiten zituan Juanitok: berdea,
gorria, oria ta abar. Baita ere ikatza, tella
edo ladrillua, karea ta abar txiki-txiki
eginda. Kolore oiekin pintaketan aritzen
zan. Osaba batek, oinbesteko afizioa ikusi-
ta, pintura-kaja bat ekarri zion Donostia'-
tik. Juanitoren poza aiek artuta! Andik au-
rrera erosi egiten zituan.

Ala, iñongo maixurik gabe, kuadroak
egiterano iritxi zan. Batzuk erregalatu egi-
ten zituan; beste batzuk etxean gordeak
dauzkate. Kuadrarik nabarmenena, Txirri-
tari egin ziona da. Bertsolari batek beste
bertsolari bati kuadroa egin, beraz. Erren-
teria'ko Txatone'ko tabernan dago, iñork
ikusi nai badu. An dago Txirrita, lasai, za-
bal ta lodi, bere makilla ta brusarekin, pa-
txara-patxaraz exerita, San Markos mendia
atzean duala.

Egun batez, Salaberria Lezo'ko pintore
famatuak nola bere etxera eramán zuan,
aren kuadro bat nola ikusi zuan, eta zer
iduritu zitzaion, etxera bueltatuta jarri zi-
tuan bertsoetan ikusiko du, liburu ontan
bertan, irakurleak.

Bere denbora guziko ametsik aundiena, *Museo del Prado* ikustea izandu zan. Ez-kondutako zillarrezko eztaiak kunplitzean, senar-emazteak Madrid'a joango zirala, eta andrea elizaz-eliza eta bera museoz-museo ibilliko zirala esaten omen zuan askotan. Bañan esandako garaian etziran joan, eta andik iru urtera il egin zan gizagajoa, bere ametsa bete gabe.

Ez da zer arritu bear, zaletasun orrekin artilla edo *lana* tintatzen oso iaiotu bazan ere. Ta tintatzalle enkargatua il zanean, bera jarri zuten aren tokian. Gustoko ofizioa zuan. Ala, lau liburu lodi idatzi zituan bere lanari buruz. Aurrena, 1935 urtean, "*Lana — Arte Textil — Tintura*" deritzaiona; bigarrena ta irugarrena, 1938 ta 1939 urtean, "*La práctica de la tintura en aparatos mecánicos sobre lanas*" izenarekin; laugarrena, 1941 urtean, "*La práctica de la tintura en aparatos mecánicos sobre hilados de lana*". Lauak beraren eskuz idatziak daude, eta bere etxean gordetzen dituzte.

Liburu auetan, kolore bakoitza nolatan eta zerekin egin bear dan, zeatz-meatz adierazten du. Kolore-mota guzi-guzien erakusgarri bana ere badakar; guzira, bosteun baño geiago liburu bakoitzean.

Ta, bera uste-gabean il zanean, Barcelo-

na'tik ekarri bear izan zituzten tintatzalleak, bañan aietako iñork etzuan asmatzen koloreak ematen. Uraren aitzekia egiten zuten, bañan Juanitok ur aretxekin egiten zuan, eta ezin da obeto egin ere. Ala, kalderak piztu gabe, iru illabetean egon ziran fabrikan.

Beren denboran, plazetan eta tabernetan bertso kantatzeari baño geiago, paperetan bertso jartzeari ekin zioten bi anaiak. Pellok, geroago irakurleak ikusiko duanez, oraindik ez dio jartzeari utzi.

Are geiago: Juanitok komeri bat ere idatzi zuan: Izenburua onela du: "Txomiñen Ezkontza".

1931 urtean, Errenteria'ko Juan Jose Makazaga jauna zanari, bere inprentan "Bertsolariya" izeneko bertso-errebista ateratzea bururatu zitzaion. Segituan, Zabaleta anaingana jo zuan laguntza billa. Bai auek goz lagundu ere.

Lenengo, beren bertso asko ta asko eman zuten errebista ortan argitaratzeko; bizien artean, etzan besterik izan, berak ainbeste bertso argitaratu zuanik, Txirrita ta Lexo izan ezik.

Urrena, errebista artako bertso zarrik geienak, edo asko beintzat, bi anaiak alkarren artean pixkabanaka osatua zuten ber-

tso-paper-pillatik artuak dira. Zoritxarrez, pilla ori 1933 urteko uraldiak ondatu zuan.

Are geiago: errebistaren itzaurrea Juanitok idatzia da. Onela zion: "*Bertsolariya* asteroko onen asmoa da bertsozik ederrenak bildu, eta liburu hikaiñ bat egitea..."; "...izango ditu gutxienez lau orrialde, aurrenako biyak bertso berriyak, eta beste bi bertso zarrak..."; "Txirritak itza eman digu, astero orri bat osoa beteko dubela bere bertso berriakiñ..."

Ta ala, urte buruan, 1931/IX/20'tik, 1932/IX/25'ra arte, 54 ale edo zenbaki aterra ziran. Ta gaur zenbaki guziak dituanak, sekula argitaratu diran euskal libururik ederren-ederrenetako baten jabe dala esan dezake. Liburu ori, Euskalerrriak Makazaga jaunari ta Zabaleta bi anaiai zor dien lana da.

Esan zagun orain, ordea, eriotza nola eldu zitzaion Juanitori. Bi anaiak, Goizueta'ko mendi-baserri batera, Gorostiñ'era joanak ziran. Angoak oso adiskide baitzituzten. Uztaillaren 29'garrena zan. Beren illoba D. Ramon Gaztelumendi apaiz jauna ere berekin zuten. An zirala, bat-batetan Juanito ondo-ezik jarri zan. Goizueta'raño bi orduko bidea zegoan. Ala ere ta gaizkiturik

egonarren, Juanito bere oñez jetxi zan oin-
besteko bidean.

Nunbait ala bear-ta, medikua erritik fal-
ta zan egun artan. Juanitok izugarrizko oña-
zeak zituan. Ernani'ko praktikantea andik
igarotzekoa zala esan zieten; geldiarazi zu-
ten, eta arek indiziyo bat jarri zion.

Automobil batean sartu ta Errenteri'ra
ekarri zuten; emendik, berriz, Donostia'ko
Clínica de N.^a S.^a de Aránzazu'ra. Al zan
azkarren operatu egin zuten, bañan alpe-
rrik. Gau guzian, geratu gabe, izketan jar-
dun zan. Pellok —anai zaitzen zegoan—
etzion itzik konprenitzen. Urrengo goi-
zean, bederatziak aldera, il zan. 56 urte zi-
tuan. Bigaramonean, San Inazio egunean
alegia, lur eman zioten.

Urdalla zulo eginda eukiko zualakoan
operatu zuten, bañan olakorik ez izaki.
Inflamación del páncreas izan zuala, esan
zuten gero. Nolanai ere, oso gaitz rarua izan
zuala aitortu zuten. Gaur bere alargunak
uste duanez, barren guztia tintak pozoitua
eukiko zuan. Egun guzian ez baitzuan as-
nasean tinta besterik artzen. Pañuelo gu-
ziak ere tintaz zikin-zikin eginda ekartzen
zituan.

Itzaurre ontako argibiderik geien-geienak
Juanitori buruz dira. Illa baita, artaz itz-

egin dute geien-bat bai bere alargunak eta bai bere anai Pellok ere. Onek, umilla izaki, ez digu bere buruaz ezertxo ere adierazi.

Orregatik, lanera-fabrika 40 urte egin ondoren, gaur 70 urterekin jaioterrian lanetik erretiratua bizi dala esanda, ez dakigu Peloz zer besterik kontatu. Jaunak gorde dezala gure artean urte askoan!...

* * *

Liburu ontako bertsoak, lau tokitatik artuak ditugu: inprentatutako bertso-papere-tatik, *Bertsolariya* errebistatik, bi anaien eskuz-idatzietatik eta Pelloren aotik.

Monika, Juanito zanaren alargunak, onela esan digu makiña bat aldiz: "Ezta gure gizona bizi!" "Zer bada?" "Zer bada? Bizi zala, beraren bertsoai kaso gutxi egiten geniola-ta, onela esaten zigulako: Orain nere bertsoai estimazio gutxi diozute... Egunen batean, ordea, or ibilliko zerate ezin billaturik, ezin azternaturik!"

Ta, egia ere, ala gertatu da. Etxe-zokoak ondo bañon ondo aztertuak dituzte Juanito zanaren alarguna ta alabak, aren bertsoak arkitzearren.

Pelloren bertsoak eskuratzen lan gutxia-

go izan degu, berak eman baitizkigu geienak. Baita egoki ziran adierazpenak esan ere. Lau bat aldiz, oso gutxitan beintzat, itz bat edo beste aldatu egin du, eskubide osoa duan ezker. Irakurleren batek diferentziren bat somatzen badu bertso-paper zarretatik liburu ontara, jakin beza, gaur geroz, aldaketa ori nondik datorren.

Bertso-sail bakoitzaren gañeko aldean, urtea jarri degu. Batzutan, bertsoak berak zioten urtea; bestetan, Pellok esan digu; beste batzutan, herriz, ez baitzekian onek urtea zorrotz, gutxi-gora-berakoa jarri degu, urteari *inguru* itza atzetik erantsiaz.


Pelloren bertsoen izenburua ere, bertsoak berez ez bazuten, Pellok orain esana jarri degu.

Liburuan, lenengo anai zarrenaren bertsoak datoz, Juanito zanarenak alegia; urrena, Pellorenak.

Doñuak zein diran, Pellok berak esan digu bere bertsoetarako; doñua ez-ezaguna zanean, Pellori magnetofonoz artu ta Ambrosio Zatarain jaunak paperera itzuliak ditugu.

Azaleko dibujuak, herriz, Antonio Valverde jaunak egiñak dira: Juanitorenak, erretratu batetik; Pellorenak, aurrez-aurre, atakea izan zuan bezperan.

JUAN ZABALETA'REN
BERTSOAK

A handwritten signature in black ink, reading "Juan Zabaleta". The name "Zabaleta" is enclosed in a large, oval-shaped flourish. A long, horizontal line is drawn underneath the entire signature.

(1917)

BERTSO BERRIYAK

**EUROPA'KO GERRARI
JUAN ETA PEDRO ZABALETAK
JARRIYAK (1)**

Doñua: «Limosnatxo bat...»

1/ Milla bederatzi egun urte
gañera amazapiyan,
bertso berriyak jartzera guaz
txit sentimentu aundiyan;
ikusten danez, alkarrengana
gaude gorroto biziyan,
gerrak utzita pakian guazen
Jangoikuaren graziyan,
ai ori nik logra al banezake
oraiñ Europa guziyan!

(1) Bertso auek, izenburuak dionez, bi anaiak alkarren artean jarri zituzten. Nonbait bear-ta, anai zarenaren liburuan jarri ditugu.

- 2/ Gure Europa maitagarriya
dago odolez bustita,
pena samiñak zabaldurikan
munduan parte guzitâ;
nori etzaio biyotza lertzen
tamaña ontan ikusita?
gauz onik ez datorkigula ortik
egon gindezke etsita,
bata bestiai barka zaiogun
gorroto danak utzita.
- 3/ Etsai gaiztuak parte artuta
dabiltzalako mediyo,
Europa triste ontan isurtzen
da zenbat odol-irriyo!
zenbat persona geran munduan
beste ainbeste oponiyo,
saltsan sartzia obe degula
askori aditzen zayo...
len sobra gerra daukagu bertan
or sartu gabe soziyo!
- 4/ Gerr'ori dala mediyo dago
gauza guziya garesti,
len erdi ipurdi bizi giñanak
gaur nola zenbat fameli!
aur txiki asko baldiñ baditu
aiek mantendu ta jantzi,
nola egiñ eziñ pensaturikan
jarriya gau ta egun beti,
pobre gaxuak azkenerako
probatutzen du ederki.

5/ Baldiñ gerr'orrek oraiñ bezela
luzaro segitzen badu,
pasa diranak deus ez dirala
amaikak esan biar du;
lenago amar baliyo zuen
gauza oraiñ ogei kendu,
tamaña onetan gu bezelako
pobria nola mantendu?
alare ontan geradenian
egon gindezke kontentu.

6/ Garai bateko aitona zarrak
bizirik baldin baleude,
Europa dena onla ikusita
zer esango ote luteke
ikusirikan bata bestia,
iltzen orrenbeste jende?
Jainkuak daki onezkergero
zenbat eriyotza triste,
pensatzen jarri ezkerro penaz
biyotza urtu leiteke.

7/ Zori gaiztoko gerra europe'au
lenbizi piztu zuana,
onezkergero damutu zaio
etzuala egiñ gauz ona;
amaren seme ederrik bada
kulparik gabe ill dana,
oien animaz erregutuaz
guazen Zeruko Aitana,
ezkatutzera arren jartzeko
pakian Europa dana.

- 8/ Mundu guziya arriturikan
dago begira jarriya,
ikusirikan odol-isurtze
aundi ta negargarriya;
zenbat guraso triste ta semek
utzi du bere biziya,
pozgarriya etzan izango aien
azken orduko antziya,
gerrak gauz onik ez dakarrela
artu dezagun etsiya.
- 9/ Iru urte ta lau illabete
pasiak gerr'ori asirik,
makiñatxo bat ill da gaur egon
biar zutenak bizirik;
santa sekulan ezta izandu
onlako odol-isurtzerik,
penaren penan indarrarekiñ
biyotza erdibiturik,
pakian billa guazen guziyak
gerra alde bat utzirik.
- 10/ Jainkuak daki onezkergero
kulpa gabe zenbat milla
gerra orretan aita ta seme
ote dan trentxeran illa;
Zeruko Aitan kastigua d'au,
sinistuta egon gadilla,
barkaziyua eska zaiogun
jarririk biyotz umilla,
odol-isurtze izugarriy'au
lenbailen buka dedilla.

- 11/ Guraso zarrak negarrez daude
len zeudenak txit alaiak,
odolez busti diradelakoz
mendi zelai ta ibaiak;
oik poztutzera saia gaitezen
arrebak eta anaiak,
erregututzen pasatzen ditut
aste-egun eta jaiak,
arren pakia egiñ dezala
zeru ta lurren artzaiak.
- 12/ Gora Europa maitagarriya,
gora europatar guziyak,
pakian arren jarri gaitzala
Jangoikuaren graziyak;
gerra edo guda dakar mundura
elkar eziñ ikusiyak,
alperrik dira emengo auzi
tratu ta irabaziyak,
bertan utzita juan biarrak
geradelakoz guziyak.
- 13/ Egunen batez Josafateko
zelaian juez justuak,
onak beretzat artuko ditu
Luziferrentzat gaiztuak;
erruki zaizkit gerr'ortan kulpa
gabe illtzen diran gaxuak,
oitaz erregu arren Jesusi
zabaldurikan besuak,
oroipengarri para dituzte
Juan eta Pellok bertsuak. (2)

(2) Bertso-papera: "Imp. *La Económica*". Jertrudis Arrieta zana, Errenteria.

(1920 inguruan)

NESKATXA BATI

Illunabar batez, garai artan oitura zan bezela, neskatxa baten baserrira joan zan Juanito; arri koxkor bat boteaz leioa *kax* jo zuan, eta neskatxak leioa bai, bañan aterik etzion idiki. Orregatik sentituta, bertso auk jarri zituan Juanitok, baita neskatxari berari idatzita bialdu ere:

U-da-berri-yan lo-ree-derr as-ko a-zal-
tzendi-ra lur-pe-tik, ne-re be-gi-yak bat es-
ko-ji-tu zuten guz-ti-yan ar-te-tik; txist ka-
ri-no auz-di-ya ar-tu ni-yon bi-yo-tzan er-di-
er-di-tik, ez-ur-an us-te ge-ro ne-re-kin or-la-
por-ta-tu-ko za-nik

1/ Udaberriyan lore eder asko
azaltzen dira lur-petik,
nere begiyak bat eskojitu
zuten guztiyon artetik;
txit kariño aundiya artu niyon
biyotzan erdi-erditik,
ez nuan uste gero nerekin
orla portatuko zanik.

2/ Nola gabian oroi tartetik (1)
nabarmentzen dan izarra,
berakin iya berdindu leike
zure begiyen indarra;
nere maitia, jarri dirazu
beti-betiko negarra,
zergatik zeran lore polit bat
nik nai ta bestek biarra.

3/ Apirillaren ogei ta biyan
lendabiziko bisita,
bat len zuana eta bestia
juan zan etxian utzita;
ni irugarren zugana nator
biria erakutsita,
bastante leial portatu ziñan
tamaña orretan asita!

(1) oroi = odoi, odei.

4/ Zer agindu ta egin zenidan
irukiko det goguan,
zu bezelako ollanda gazte
asko daude gaur munduan;
alperrik damuz egotia da
denbora jua da onduan,
zu bezelako baten premiyan
ez da geldituko Juan! (2)

(2) Bai doñua ta bai bertsoak ere, Juanitoren anaiari, Pellori, jasoak.

(1920)

BERTSO BERRIYAK

(ESTROPADA BATI)

1/ Milla bederatzi eun da
ogeigarrena aurtan,
Agorrillaren bosta
señalamente zen;
Donostiyan giñanak
estropada ekusten,
arrituta guziyak
gelditu giñaden.

2/ Ondarrabiya eta
San Juan Pasaia,
Donostiya eta Santurze,
bostgarren Zumaia;
alkar peleatzera
ainbeste anaia,
amaika ta erditako
Donostiko plaiâ.

3/ Plaian juntatu ziran
juraduengana,
suertia botzera
au lenengo lana;
lendabizi irten da
Pasai San Juana,
Donostiya bigarren,
Zumaia urrena.

4/ Juraduen ordena
preparatutzeko,
garaia etorri zala
peleatutzeko;
nor bere balizetan
txit erne jartzeko,
tirua tiratzian
abiyatutzeko.

5/ Juraduak emanik
orrela salida,
Kiriko exerita
pantasiz jarri da;
bañan ekusirikan
Pasaian mugira,
azkar altxatu eta
ojuka asi da.

- 6/ Atera zan lekura
enbarkaziyua,
bueltan entregatzeko
zan kondiziyua;
bañan oientzat beti
erremediyua,
lotsa gutxikin jaso
dute premiyua.
- 7/ Bizkaiako Santurze
arrazoiz da mintza,
zergatikan sartu zan
Zumaian balizâ;
aurten artu dute uste
gabeko paliza,
ez fiyatu berriz e
orla badabiltza.
- 8/ Aurtengo estropadan
zefon juradua,
Donostiarrentzako
oso onradua;
beste penik ez dute
Kirikok galdua,
eziñ uka litezke,
garbi azaldu'a.

- 9/ Franzisko Zubiaurre
Donostiko patroï,
sobra daki berak e
ez dubela arrazoi;
arraunian atera-
gatican panparroi,
zer zala uste zuten
Pasai San Juandar oi?
- 10/ Itxutu egin zala
Kirikok omen diyo,
izan e tranze artan
ez da misteriyô;
graduetañ altura
nai luteke iyo,
orgullo geiegiyak
bate eztu baliyo.
- 11/ Tragatu nai zituben
biak eta goiak,
alegiña egin du
Kiriko patroiak;
Donostiko arraunlai
pizkor panparroiak,
Pasaiak kendu dizka
Bizkaiko galoiak.

12/ Donostiko koxkero
arraunlai azkarrak,
uste dute munduan
dirala bakarrak;
ederki probatuak
dirade indarrak,
aurten nagusi dira,
gora San Juandarrak!

13/ Donostiyak nai luke
guziyon nagusi,
Kiriko exerita
fanfarroi zan asi;
orgullosuak ez du
besterik merezi,
azkenian Pasaiak
diyo irabazi.

14/ Donostiyak nai luke
bera jaun ta jabe,
bañan gu ere aman
semiak gerade;
bi Pasaiak unitzen
baldin badirade,
Kantabriko nagusi
jarriko dirade.

15/ Saltsa edo aitzekiya
badute betiko,
urtero bandera nai
dute Donostiko;
naiz dala Soterotxo,
igual Kiriko,
Pasaitarren nagusi
ez dira jarriko.

16/ Donostiyak uste zuen
aisa irabaztia,
bañan eztu baliyo
erronkan astia;
esaten zuten: "Ainbat
azaldu eztia",
biba San Juanen dagon
kuadrilla gaztia!

17/ Matxet patroï artuta
Donostira juanak,
"Zer egin bear dute oiek?"
baziran esanak;
bañan arritu gaitu
egindako lanak,
aurten bandera biar
zuben San Juanak.

18/ Marka ontzera irten da
Donostiya bakarrik,
bañan ezta probatzen
orrela indarrik;
Pasaiako atsuak,
ez egin negarrik,
ez degu tranpetako
bandera biarrik! (1)

(5/9/20)

(1) Juanito zanaren esku-idatzietatik.

(1921)

JOSE KRUZ OLLOKI'RI

Izenez Jose Kruz Sagardia ta izengoitiz Olloki zeritzan bertsolaria, Errenteria'ko Zamarbide baserrian bizi zan, bañan jaiotzez Usurbil'ko Artikula-Txiki baserrikoa zan: Martin ta Mateo Olloki bertsolarien billoba ta anaia. Bi seme, Ameriketara joan zitzaizkan. Ta bera ez-ezik, semeak ere bertsolari izanik, kartak alkarri bertsoan egiten zizkioten. Aitarenak, Juan Zabaleta'k idazten zituan, aren sekretariotza eginda.

Zabaleta'ren onako lau bertso auek, beraren paperetan arkitu ditugu, eskuz idatzita:

1/ Jose Kruz Sagardia,
Olloki izengoitiz,
alabatu bear det
modu egokiz;
allegatu naizenez
makiña bat aldiz,
gizartia onratzen du
errespeto aundiz;
zartzera ta guziz
dago jakinduriz,
bertsuetan berriz
maiso nere iritziz...

naio nuke sekula
illko ezpalitz! (1)

2/ Notiziyak baditu
Amerikatikan
Migel eta Prudentzio
semiandikan:
sekulan bezin gogoz
laguntza andikan,
ez duela izango
ezeren faltikan,
daude esanikan,
pruebak emanikan,
maite izanikan
aita oraindikan...
guk ez degu olako
esperantzikan.

2/ Biba gure aitona
Jose Kruz Olloki,
oraingo bizimoduz
ez det erruki;
nik esaten dedana
goguan eduki:

(1) Juanitoren beste paper-punta batean ere bertso au arkitu degu, bañan aldaketa auekin: 1/5: ni gertatu naizenez; 1/12: ona nere iritziz.

Goien ere, paper-puntan dagoan bezela jarri degu: *gizartia onratzen du*; bestean ez da garbi irakurtzen, *gizartia kubritzen*, ala *kunpritzé'u*, ala zer dion.

sonbrerua jantzita
pasiatzen aurki;
fameliya azi,
jantzi eta ezi,
ondo erakutsi,
ez galtzera utzi...
fama orrek merituak
ditu merezi!

4/ Txikitandikan det nik
Oloki izaguna,
ederki pasa degu
Pazku-eguna;
maia ederra zeguen,
jana-erana ona,
ederki portatu zan
orduan aitona;
auxe da fortuna
gertatu zaiguna,
gure naitasuna
denoi osasuna...
au da sekretaiuak
desio duna! (2)

(2) Asieran esan bezela, bertso auk Zabaleta'-ren paperetatik artuak ditugu. Bañan bi egun dife-
rente jartzen ditu: lenen ta bigarren bertsoaren on-
doren: 28/3/921; ta beste bien ondoren: 11/4/921.

Ta beste paper-puntan, berriz: Falleció el día
27/9/1927. Oloki il zan eguna esan naiko du,
agian.

(1926)

BERTSO BERRIYAK (1)

(ERRENTERIA'KO MISIOARI)

1/ Bertso berriyak jartzera nua,
promesa biet kunplitu,
Aita Misiyolariyen onran
gusto duenak aditu;
relijiyoko bide oietan
zuzen biagu segitu,
gure anima Luziferrentzat
ez dediyela gelditu.

2/ Milla bederatzi eun urte ta
ogei ta seigarrenian,
Errenteikuak lasaitasun bat
artu degu barrenian;
misionistak etorri dira
danontzat ordu onian,
segi zaiogun ez dedin izan
damurik ondorenian.

(1) Bertso auek argitaratu ziran kanta-paperan, ez da Juan Zabaleta'ren izenik ageri; bañan arenak dirala beraren alargun eta anai Pellok esan digute.

3/ Martxoko illan zazpiyan zuten
lenengo adierazi,
mundu ontara jaiotakuak
nola biar degun bizi;
esan digute bide txarretik
apartatzeko lenbizi,
egunen batez kontu garbiya
entregatzeko Jesusi.

4/ Eskerrik asko, Aita Aizpurua,
ori da sermolariya,
itz eder oiek aditzen zintzo
egon da bertsolariya;
bide onian nola epiñi
badaki pekatariya,
saiatua da konbertitutzen
Errenteriko erriya.

5/ Baita ere Aita Agirre
saiatua da lanian,
eta egiñalak egiñak ditu
gu jartzen bide onian;
oraiñ segitu zaiogun danak
berari alegiñian,
katolikuak jarri gaitezen
etsai gaiztuen gañian.

6/ Mandamentuak agintzen dute
Jaungoikua amatzia,
saia gaitezen ezpadegu nai
betiko kondenatzia;
konsideratu zeñegatikan
artu zuben gurutzia,
ta pena nola eztu izango
oraiñ anima galtzia?

7/ Blasfemiya ta lasaikeriya
da deabruak egiña,
errespetua obia da ta
ikasi zagun dotriña;
gure anima salbatutzera
egiñ zagun alegiña,
karga aundiyak ditu gaiztuak,
pekatua ezta ariña.

8/ Gurasoi're egiñ diyote
beren esplikaziyua,
seme-alabak nola dabilzan
jartzeko atentziyua;
ejenplo onak erakutsiyaz
eman edukaziyua,
obra onakin irabazteko
animen salbaziyua.

- 9/ Esan digute ez deskuidatzeko
janian ta eranian,
geren anima jarri ez dediñ
pekaturako bidian;
eta gañera ez ibiltzeko
parrandan eta bailian,
kontu garbiya entregatzeko
Jesusen tribunalian.
- 10/ Bai eta ere esan digute
oraingo gazte jendiai,
gorroto aundiya arren artzeko
infernurako bidiai;
alde batera firme uzteko
zine txar eta bailiai,
anima garbi entregatzeko
zeru ta lurren jabiai.
- 11/ Lujuriyako pekatu zikiñ,
dantza txar ta erromeriyak,
bide gaiztuak uzteko esan du
Aita Misiolariyak;
ordu beteko segurantzirik
ez dauka gure biziyak,
ondu gaitezen gero zeruan
sartu gaitezen guziyak.

12/ Lendabiziko esamiñatu
ondo konfesa gaitian,
penitentziya kunplitu're bai
txit proposito firmian,
damutasunik ez dediñ izan
beste mundura juatian,
Aita San Pedrok sartu gaitzala
zeruetako atian.

13/ Biba kabilo maitagarriya
ta Ayuntamentu prestua,
erri guziya kontentu dago,
egiñ digute gustua;
Jaun Zerukua ezta egongo
obra oietaz aztua,
beste munduan emango diye
danai premiyo justua. (2)

(2) Bertso-papera, "Valverde — Rentería", Juan Zabaleta'ren beraren alargunak emana.

(1926)

BERTSO BERRIYAK

Asteasu'ko Aranburu-Berri bertsolariak. bein batez Lezo'ra etorrita, bertsotan egin zuan Jose Kruz Olloki ta Juan Zabaleta'rekin, bañan bai erronkaz egin ere. Ta Zabaleta'k, etxera etorritakoan, onako bertso auek jarri zizkion.

Errenteria'ko "Bertsolariya" zeritzaion bertso-errebistan argitaratu ziran, 49'gn. zenbakian, 1932'ko Dagonillaren 21'an. Asieran onela zion: *Orain dala sei urte Zabaleta'tar Juan'ek jarriyak*. Beraz, 1926 urte inguruan jarriak izango dira.

1/ Notiziyak baditut
Goierra aldetik,
Pello Errotariya
zanan erritik;
bertsolari guztiyak
juzgatzen kolpetik
gizon jakintsuren bat
asi zaigu ortik,
fuerte ta gogotik,
izketan txit goitik;
gu herriz bajotik,
etzaitu inportik...
astinduko zaituzte
Errenteritik.

2/ Lezora etorri ta
orgullo onian,
Jose Kruz Ollokiren (1)
aldamenian,
esanez: "Bertsolairik
ezta be aldian
ondo dakiyenikan
kantuko lanian..."
Ori afanian,
ustez gaienian,
sasoi onenian,
gu're ez txarrenian...
probatzera etorri
nai dezunian.

3/ Juan Jose Lujanbio ta (2)
Jose Mari Berra, (3)
ara emen kantore
pare ederra;
ni're oikin batian
naiz Errenteiarra,
probatzeko ez dezu
or aukera txarra...
Asteasuarra
ez dala kaxkarra,

(1) Ollokiren argitasunak 44'gn. orrialdean eman ditugu.

(2) Juan Jose Lujanbio, Saiburu bertsolaria da, Txirritaren lengusua.

(3) Jose Maria Berra, Telleri-Txiki esaten oi zioten bertsolaria da.

ustez oi bakarra,
egin nai du parra...
sujetatuko dute
Goierriarra!

4/ Goierriarra orrek
guziyen nagusi,
bere burua maiso
nai du ekusi;
ortarako probatu
biar da lenbizi,
bestela beratarrak
ez mendratzen asi;
bere burua azi,
gu berriz bajazi,
iñor desonrazi,
ta nai du irabazi...
titulu oi artzeko
biau ikasi!

5/ Saillburuko Juan Jose
kantore ona oso,
Telleri-Txikirekiñ
paria onroso;
Altzako Gaztelu ta (4)
Rejino're jaso, (5)

(4) Altza'ko Gaztelu au, Txirritaren arrebaren koñatua zan, mutilzarra, eta bere jaiotetxean, Gaztelueñe'n, Txirrita il zan etxean alegia, bizi zana; Saturnino Erauskin zeritzaion.

(5) Rejino bertsolaria, donostiarra zan, eta Astigarraga'ko kotxeretan egiten zuan lana.

Frantzes-Txikiya berriz (6)
beti animoso,
Fermin kurioso, (7)
Bautista eroso, (8)
Olloki garboso,
ta Juan Jose Lexo... (9)
Txirrita nonbratzen det
guziyen maiso.

6/ Dozen erdi bat bertso
dizkitzut ipintzen;
zertako asi zeran
danak neurritzen?
Uste du ez dubela
iñork e berdintzen,
bere burua ez du
askorik luzitzen,
baizik itxusitzen,
neri iduritzen,
jarri nai agintzen,
diot igerritzen...
bueltan zai egongo naiz
iya ordaintzen!

(6) Au ere, garai artako bertsolari sonatua zan.

(7) Fermin Imaz, donostiarra; ikusi aren bertso-liburua, *Auspoa*'ren 24'garren zenbakian.

(8) Bautista Urkia, Gaztelu bertsolaria alegia; ikusi onen liburua ere *Auspoa*'ren 61'garren zenbakian.

(9) Juan Jose Lexo, abizenez Sarasola, Lezo'n jaio zan, eta Donostia'ko Antigua'n il. Bertso-pape-rak erruz jarri zituan.

(1927)

NIKOLASENTZAT

- 1/ Gure Errenteriyen,
erdiko kalia,
illia mozten ondo
dakite lanian;
ezpadira fiyatzan
nere esanian,
ekustera etorri
nai dezutenian.

- 2/ Orain moda berriya
emakumiana:
illia moztutzero
barberuengana;
bañan oi zeñek ondo
egiñ? Ai au lana!
Erdiko kalera jua
Nikolasengana!

- 3/ Lengan entzun niyon
nik neskatxa bati
galdezka bestiari:
“Adi zan, Antoni:
zeñek apaindutzen diñ
melena oiñ ederki?”
“Felipen barberiyan
egiten nan beti.”

4/ "Melena motxarekiñ
badabil makiñat,
bañan orren ederki
bat ikusi eztiñat;
apaintzen alegiñak
egiten dizkiñat,
urrenguan nik ere
ara juañ biar diñat!"

5/ Orain arte ori're
orla ibilli'a,
eziñ apaindurikan
buruko illia;
lan ortan Nikolasek
abillidadia,
pare gabeko txukun
melen-moztallia.

6/ Enteratu ditezen
oraiñ damatxuak,
ez dirala barbero
denak igualtxuak;
konsolatuko dira
Nikolas batzuak,
argatikan epeñi
dizkiyot bertsuak.

Rentería, 27 de Mayo, 1927 (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik artutako bertsoak.

(1928)

ZORIONAK

- 1/ Salaberria'tar
Elias deguna,
Lezoko semia da,
gañera euskalduna;
sekula etzait aztuko
atzoko eguna,
lendabiziko aldiz
zurekin jarduna.

- 2/ Austriyakua berez
gure erregiña,
Donostiyako ama,
Maria Kristiña;
beraren iduriya
edo imajiña,
Eliasek etxian
zeukala egiña.

- 3/ Entzun nuen da juan
nitzan ni Lezora,
bera bizi dan leku
alai ta txokora;
t'arrebai esan ziyon:
"Erama'itzin gora!",
ai!, uste gabe juan zait
neri an denbora.

4/ Gora igo nitzan da
begira jarririk
ordu erdi bat pasa
nuan arriturik;
posible ezta obeto
atera iduririk,
uste nuen aurrian
naukala bizirik.

5/ Sortzetikan biar du
orlakua berez,
ezer ez dakit bañan
nik uste dedanez;
naiz dala Murillo ta
igual Velázquez,
oi baño obeto zeñek?
ezta izaiñ errez!

6/ Len ere bazirala
lan ortan maiso onak,
nik ondo ez dakit bañan
ala dira sonak;
orduan ezik gaur e
badira gizonak...
utsegiñak barkatu,
tori zorionak!

(29/8/1928) (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik artutako bertsoak.

IRUN'GO OSTIKOLARIAI

Bertso auek, itxura danez, Irun'go Real Unión ekipoa Españaiko txapeldun geldituzan batean egiñak izango dira.

1/ Bertso berri batzuek
Errenteritikan,
iya zer derizkiyon
Patzik Irundikan;
onra aundiyakin datoz
Zaragoza'tikan,
Campeón de España
Gipuzkoatikan.

2/ Biba Arenas eta
biba Uniyua,
euskaldunak beti izan
orla amoriyua;
ondo portatzen danak
estimaziyua,
biyak merezi dute
aurten premiyua.

3/ Zori onak guziyoi
guk Errentiarrak,
ostikoka lan ortan
etzauzte baldarrak;

ederki probatuak
dirade indarrak,
aurten kanpeon dira,
biba Irundarrak!

4/ Arenas Getxotarra
ekipo bikaña,
baita Uniyua're
ortan alajaña;
azkenian autsi du,
gogorra zan baña,
argatikan irten da
Campeón de España!

5/ Onrak merezi ditu
Irungo erriyak,
baita ere Uniyoko
kuadrilla guziyak;
onela irabazten
dirade sariyak,
biba Gipuzkoako
ostikolariyak! (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik. Bertso-alboetan, onako zuzenketa auek daude: 1/1: Dozen erdi bat bertso; 1/8: Españiko kanpeon; 2/1: Gora Arenas eta; 2/2: Gora Uniyua; 3/7: aurten nagusi dira; 3/8: Gora Irundarrak; 4/5: soñuaren antzera; 4/6: dantzari apaña.

(1931)

XENPELARREN OROIMENEZ

1931'garren urteko Uztaren 24'an, omenaldi bat egin zitzaion Xenpelarri Errenteria'n; baita oroigarri bat jarri ere, bera bi-zi ta il zan etxean. Onako bertso auk, egun orretarako egin zituan Juanitok.

1/ Agur, sorterri maitagarriya,
agur, agintari danak,
auxen da egun zoragarriya,
nere senide laztanak!

2/ Errenderiya alaitsu dago,
eta zer dala mediyo?
Danak dakite Xenpelar zana
gora nai degula iyo.

3/ Bere izena Frantzisko zuben
Petriarena ta Berrondo, (1)
eskolarikan etzuben bañon
bazekin izketan ondo.

(1) Bertso auk artu ditugun tokian, *Petriarena ta Rekondo* jartzen du. Liburuan ere, "Jauregi'tar Luis: Xenpelar Bertsolaria, Kulixka sorta", ala dago. Bañan bietan oker. Xenpelarrek *Berrondo* zuan bigarren abizena, eliz-liburuetan garbi asko agertzen dan bezela.

- 4/ Milla zortzireun t'ogei ta amabost
gañera, esaten dutenez,
mundu ontara sortu omen zan
Jaunak betia doaiez.
- 5/ Errenderiko lurrian dago,
izenez bear det esan,
Xenpelar deitzen diyen basarri
polit batian jaio zan.
- 6/ Amaika bertso epiñi zuan
bera bizi zan artian,
batzuek beintzat ez dira aztuko
euskera dan bitartian.
- 7/ Euskal mendiko txori abeslai
txukun t'apañak bezela,
olerki-txorta era berian
jartzen zuben beriala.
- 8/ Zu ziñan zuaitz osto azpiko
txori txiki esnatzallea,
ondorenguen erakustalle,
guziyon argitzallea.
- 9/ Izan ez bazun ama euskerai
ziyon naitasun txit fiña,
ez genduen, ez, idukiko guk
gaur degun aztu eziña.

- 10/ Paregabeko bertsolariya,
oberik emen etzala,
irurogei bat urte badira
gizarajua iltzala.
- 11/ Bizi zan arte bere doaiez,
emanik Jaunak laguntza,
bistan daukagu saiatu zala
kontzen amaren izkuntza. (2)
- 12/ Ondorenguen erakuspengai
nai genduke emen azaldu,
beranganako naitasun ura
ez dala oraindik galdu.
- 13/ Zori txarreko utzitasuna
bañan berriro gogora,
aren bertsuak ez dira aztuko
juanatican denbora.
- 14/ Jakintsuak mundutik juaten
dirala iñoiz, egiya;
zu izanikan garai arretan
bertsolari danen giya.
- 15/ Gaitz beltz gaiztuak eldu zion ta
kentzen etzana erraza,
etxe onetan, ai!, kendu zion
t'eman zun azken arnasa.

(2) kontzen = kontu egiten.

16/ Bere erritarrak batu gerade
etxe ontara emen gaur,
t'*Euskaltzaleak* epintzen dute
bere omenez arri au.

17/ Orra bada egin zor genduena
geren naitasun beruan,
t'oputzen diyot aren anima
gerta dedilla zeruan.

Errenderiyan 1931'ko
Uztaren 20'an. (3)

(3) Periodiku-puska batetik; ez dakigu zein egu-
netakoa izango zan periodiku ori.

(1931)

**DONOSTIYAKO ESTROPADARI
ZABALETA'TAR JUAN'EK JARRIYAK**

1/ Gora bi pasaitarrak,
gora Donostiya,
gora Oriyotarrak
eta Getariya,
gora Agiñagakuak
eta Ondarrabiya;
aurtengo estropada
zan ikusgarriya.

2/ Estropadako eguna
beti da ezagun,
festa ederragorik
ez dalakoz iñun;
zazpiyetako batek
garailai bear zun,
San Pedro atera da
guziyon txapeldun.

3/ **Bandera irabazi du
bostgarren aldiyan,
alakorik ez da pasa
nere oroitze guzian;
arrituta utzi gaitu
danak Donostiyan,
San Pedro nagusi da
kosta Kantabriyan.**

4/ **Bost bandera segidan,
ori da mutilla!
gero sariya: peztak
emezortzi milla;
zergatikan daukaten
txit patroï abilla,
gora Arrillaga ta
bere kuadrilla! (1)**

(1) "Bertsolariya" lenbiziko zenb., 1931/IX/20.

(1931)

ARRESE'TAR EMETERIO JAUNARI
EUKO-OLERKI EGUNEAN

- 1/ Bertso berri bi jartzera nua,
barkatu bada gaitzikan,
ez derizkiyot izango danik
ofenditzeko itzikan;
zeruko Aitak ematen badit
lan ontako grazirikan,
ez det pentsatzen olerkari bat
goratutzia baizikan.

- 2/ Emeterio Arrese jauna,
gaur zure omen-aldiya,
juan dan zenbat urte oietan
etzera egon geldiya;
makiñatxo bat olerki eder
orain artian jarriya,
aurrera ere jarraitutzeko
da nere opamen guziya.

- 3/ Euskera garbiz zenbait bezela
ez naiz itzlari leguna,
bañan zorion... asko!... gaur zuri,
Arrese maixo on jauna;
azaldutzen det emen garbiro
nik dizudan naitasuna,
bedeinkatua izan dedilla
zu sortu ziñan eguna.

- 4/ Seaskatikan artu zeniyon
 naitasuna biyotzera,
 ordu ezkeru saiatu zera
 izkuntza oni kontzera; (1)
 iya, gaztiak, mugi gaitzen
 gure maisuen antzera,
 jakin dezaten oraindik bizi
 dala munduan euskera.
- 5/ Omen-aldiya merezi dezun (2)
 iztunlari neurritsua,
 txit idazlari gain-gaiekua
 garbi eta mamitsua;
 izkuntz eder au zinez maite dun
 seme leial ta zintzua,
 gora biotzez ama euskeran
 olerkari jakintsua!
- 6/ Ama euskera orlako semez
 ezin da beñere ase,
 zeren pozkiro ekusten ditun
 saiatutzen orrelaxe;
 bertso onekiñ agurtzen dizut
 zergatik dijuan luze,
 urte askuan osasunakiñ
 Emeterio Arrese. (3)

(1) kontzera = kontu egitera.

(2) *Bertsolariya*'n, *omen-aldiyan* dio. Guk *omen-aldiya* utzi degu. Bañan, bearbada, *omen-aldiy'au* bear luke.

(3) "Bertsolariya" 2'gn. zenb., 1931/IX/27.

(1931)

UMEZURTZA ESKALIA

Bein batez, kalean zijoala, mutil koxkor bat eskean topatu zuan Juan Zabaleta'k. Arekin egin zituan itzak eta abar bertso auetan kontatzen ditu:

1/ Amarren bat urte zan
arren edadia,
gañera errukarriya
guraso gabia;
lagun zaiozu arren,
guziyon Jabia,
galdu ez dediñ ume-
zurtza eskalia.

2/ Mutill koxkor txiki bat
lengo egun batez
oñuts gorririk eta
eske atez-atez;
inguratuta asi
nitzanian galdez
zer zebillen, t'erantzun
ziran ark negarrez:

3/ "Aita ta ama illak,
ez det seniderik...
bakarrik gelditu naiz
munduan gazterik;
erdi gosiak nabill
dana argaldurik,
zer egin nezake nik
eskatu besterik?"

4/ Ori entzun nubanian,
nere biotzak dar-dar,
esanez: "Maiteago
bear degu alkar;
gure anaitasuna
gauza onek dakar,
guazenmazu emendik
nere etxera azkar."

5/ Eraman nuan eta
epiñi mayian,
pozikan eman niyon
al nuen gayian;
oriyek danak orla
egin garayian,
eskerrak eman dizkit
zoratu nayian.

- 6/ Begiratu alaitsu
xamur-xamur utsa,
ala diyo: "Ni... nola
sartu naiz onuntza?
zeñen gozoa den, ai!,
Jaunaren laguntza,
galtzen utziko ote nau
onlako umezurtza?"
- 7/ "Ez, gaztetxo maitia,
ez beldurrik izan...
maiz otoitz egitera
sar zaitez elizan,
egon gabetandikan
geroko peskisan,
Jesus e mundu ontan
orla ibilli zan."
- 8/ Orain azkenik agur
maitasun betian,
oitura onetan zintzo
jarraitu gaitian;
mundu onetan ilda
bestera joatian,
San Pedrok sar gaitzala
zeruko atian. (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik. "Bertsolariya",
3'gn. zenb., 1931/X/4.

(1931)

**KRISTAUBAREN DEIA
ZABALETA'TAR JUANEK JARRIYAK**

Xenpelarren doñuan: «Ni ez naiz gerraren zale...»

1/ Oraingo bertso berriyak
Juan Manuelek jarriyak,
kontu penagarriyak
eta kaltegarriyak
nigana etorri diranak,
ontan galdu gera danak!

2/ Aurrera guazen pakian
uniyo eder batian;
kristaubaren artian
ondo saia gaitian,
danak, zar eta gaztiak;
or konpon bitez bestiak!

3/ Relijiyuaren kontra
gaurko jendian borroka;
alperrik dabiltz joka,
ezta autsiko arroka,
zergatik illezkorra dan;
orra zer dan garbi esan!

4/ Gure Kristoren dotriña
danontzako da berdiña;
kunplitzera alegiña
saiatuko bagiña,
alkar obeto artuaz,
gero egon gabe damuaz.

5/ Damutasuna arturik
eta fedian suturik,
biyotza altxaturik
eta arren eskaturik,
otoitz egiñez Jesusi,
ez gaitzan galtzera utzi.

6/ Guziyok ondo alkartu
eta alkarrereri barkatu;
danon Amai eskatu,
garaia da ta esnatu,
beti lotan egon gabe,
bestela galdu gerade.

7/ Lotuagatikan katez
itsasoz eta legorrez,
bañan Kristoren fedez
ez degu etsiko, ez;
kendu nairik bere agintza
alper-alperrik dabilta.

8/ Fede santuko bidian
guazen gu pauso firmian;
gero egunen batian
zeruetako atian
Ama Birjiña Mariak
sartu gaitzala guziak. (1)

(1) "Bertsolariya", 5'gn. zenb., 1931/X/18.

(1931)

AKILINO IZAGIRRE'KUARI
ZABALETA'TAR JUAN'EK
JARRIYAK (1)

Akilino Izagirre, edo, Euskalerra guziak esaten dionez, Zepai bertsolaria, artean gazte-gaztea zala, Errenteri'ra etorri zan lanera, ta Papelera Oarso egiten jardun ziran langilleetako bat izan zan. Ori dala-ta ezagutu zuten alkar Zepai ta Juan Zabaleta'k, baita alkarrekin bertsoan saio bat edo beste egin ere. Ta *Bertsolariya* errebista asi ta bereala, Zabaleta'k dei egin zion Zepairi, bertso auen bidez, ia bertsoarik jartzen ta bialtzen zuan errebista berrian argitaratzeko.

1/ Dibersiyoko lana
gustatzen zait beti,
argatikan bertsuak
adiskide bati:
mintzatuko natzaizu
leial ta egoki;
ni zer naizen len ere
berak sobra daki.

(1) Juan Zabaleta'k Agerre ipiñi zuan; Izagirre jarri degu, Zepairen abizena ala baita.

- 2/ Errenteritik saka
pillota Errezilla,
ez pensa ausardiyan
baizik broma billa;
badakit zeradela
lan ontan abilla,
beragatik gaztia
mintzatu dedilla.
- 3/ Orain urte ta erdi
edo bi inguru
ekusi nizuala,
ez nago seguru;
alkarrekin saiua
egiñak gera gu,
gizonak bezelaxe
leial ta ondradu.
- 4/ Ostatuan juntatu
giñan arrats batez,
zuri segitzen etzan
orduantxen errez;
Franzisko Ganborena (2)
mai-buruan juez,
ordu pare bat antxen (3)
pasa gendun parrez.

(2) Pello Frantzisko Ganborena au, guziak daki-
ten bezela, oso pelotari sonatua izana zan.

(3) *bat* ori guk erantsia da, orren falta inprentaren
utsegiñen bat izango dalakoan.

5/ Etorri bikaiñeko
bertsolai zuzena,
zeñek berdinduko du
zure almazena?
Arrituta utzi zuen
ango jende dena,
oraingo gaztietan
zu zaude onena.

6/ Aspaldi pentsatua
zegon egun ta gau,
lagunak esateko
enkargatutzen nau:
kantuko afiziyua
galdu etzedin *rau*,
argatik atera da
Bertsolariya au.

7/ Ordaindu nai banazu
zuk *Bertsolariya*'n
dakizun bezelaxe
euskera garbiyan,
gure oitura ederra
galdu ez dediyen,
astero irtetzen da
au Errenteriyen.

8/ Gure oitura zarra
ez dediyen galdu,
orra *Bertsolariya*
astero azaldu;
nik saka det emendik,
zuk ortikan ondu,
bueltan zai egongo naiz,
lenbailen bialdu. (4)

(4) "Bertsolariya", 8'gn. zenb., 1931/XI/8.

(1931)

GABON-KANTAK
ZABALETA'TAR JUAN'EK JARRIYAK

- 1/ Bedeinkatua, alabatua
da Sakramentu Santua, (1)
beraren onran kantatutzeko
artua degu asmua;
koplatxu oiek aditu bitza,
nagusi on jaun prestua,
komeni ezpada esan zaiguzu,
litzake gure gustua.
- 2/ Memoriya arren argi zadazu,
zeru ta lurren Jabia,
enpleatzera nua ark eman-
dako abillidadia.
Biba etxe ontan bizi dan jende
prestuba eta noblia,
nagusi jaunak kantatutzeko
eman du libertadia.

(1) *Bertsolariya'n* onela dio: "*Bedeinkatua alabatua da Aldareko / Sakramentu Santua*". Laburtu egin degu, Juanitoren anai Pellok esan digunez, or goien dagoan bezela jarririk.

3/ Biba etxe ontan oraiñ bizi dan
nagusi jaun serbitzala,
ondo dakigu limosnatako
oso leiala zerala;
eta ondorengo famili dana
izan biar du iguala;
gure Jainkuak urte askuan
ondo konserba ditzala.

4/ Biba etxe ontako etxeoandre
prestua eta argiya,
desio diyot urte askoko
osasuna ta biziya;
kostumbre zarra galdu eztediñ
da egundañoiko guztiya,
gure Jainkuak pagatuko'io
obra on oriyen sariya.

* * *

1/ Legiarekiñ Eguarri-jaiien
bezperan kunpli dezagun.
nere lagunak, "Dios te salbe"
garbuarekin erantzun.

Danak

*Dios te salbe, ongi etorri,
Jainkuak gabon diela,
legiarekiñ kunpli dezagun
Eguarri-jaiien bezpera.*

- 2/ Biba etxe ontako galai gaztiak
nobliak eta bikañak,
Euskal-erriko basarri-mutill
egoki eta lirañak.

Dios te salbe...

- 3/ Ama euskeraren seme maitiak
leialak eta azkarrak,
zintzo guardatu'itzagun danok
antziñako oitura zarrak.

Dios te salbe...

- 4/ Biba etxe ontako dama gaztiak
edo maitetxo kutunak,
izarra beziñ dizdizariyak,
alaiak eta txukunak.

Dios te salbe...

- 5/ Apirilleko lore goiztarrak
apañak eta berdiñak,
edertasunez iñon parerik
ez daukaten imajiñak.

Dios te salbe... (1)

(1) "Bertsolariya", 14'gn. zenb., 1931/XII/20.

(1931)

GAUR EKUSTEN DEGUNA

- 1/ Zeruko Aitak ematen badit
kantak jartzeko graziya,
esplikatzera saiatuko naiz
emen, al detan guziya,
aberatsak eta beartsuak
teman daukaten auziia;
beragatikan galdua dago
iia munduan erdiia.

- 2/ Nagusi jaunak langilleari
tokatzen dana oparo,
biyon artian izan dediyen
pake santua luzaro;
orrela bizi bear genuke
atsegiñez ta gozoro,
bañan badira au nai ez duten
zenbait alper eta txoro.

- 3/ Gauza onikan eztu ekarri
beñere alperkeriyak,
ortik datozte samintasunak
txit garratz ta mixeriyak;
alde batera utzi ditzagun
munduko txorakeriyak,
alkar obeto artuta ondo
biziko gera guziyak.
- 4/ Nagusi jaunak paltatzen badu,
langillia txit asarre,
bañan obeto artu lezake
bata bestiak alkar e;
eduki gabe tamaña onetan
geldirik oinbeste indarre,
pensa dezagun lanikan egiñ
gabe ez daguela ezer e.
- 5/ Danan oneko izan dediyen
nere ustetan ari naiz,
bestela ondore onikan ezta
ni deskuidatzen ezpanaiz;
famiyako gosia berriz
konsejatzalle txarra maiz,
danon artian saia gaitezen
gaitz ori kentzera garaiz.

- 6/ Denbora asko izatia onek
etzait neri iduritzen,
zeren pobriak ezin litezken
egon luzaro sufritzen;
ume txikiyak baldin baditu
gañera aiek azitzen,
bestela ere aren jornalak
eztu askorik luzitzen.
- 7/ Nagusiyetan ere badira,
ez ditut danak mendratzen,
tokatzen zaion moduan zintzo
dituztelako pagatzen;
alkarregana umildu eta
jarri au konsideratzen,
edo bestela egun gorriyak
ezpagerade mudatzen.
- 8/ Arrazoi-bide aundiya dula
diyo langille jendiak,
zeren lenago jarri etziran
gure oneko legiak
orain alkarren guda biziyan,
akabo gure pakiak,
zeruko Aita, zuzen gaitzazu,
bestela egin du guriak. (1)

* * *

(1) "Bertsolariya", 15'gn. zenb., 1931/XII/27.

Onako bertso auek zer ikusi aundia dute or goikoekin; orregatik, segiran jartzen ditugu.

1/ Mundu ontako bizimodua
begiratutzen jarrita,
odoi beltz orren igesi gabiltz
kristau guziyak larrita;
iduritzen zait igaro dala
goi malleko neurritâ,
kontu zaiogun lertu ez dedin,
al bada, euskal-erritâ.

2/ Bide zuzenak galduta gabiltz
orain langille jendiak,
esanez jarri bear dirala
gure oneko legiak;
alkarregana guda biziyan,
akabo gure pakiak!...
Zeruko Aita, zuzen gaitzatzu,
bestela egin du guriak! (2)

(2) Juanitoren eskuz-idatzietatik.

(1931)

“MILLA BEDERATZIREUN...”

Juan eta Pello bi anaiak Europa'ko gerrari jarri zizkioten bertsoetan, onela zioten:

zenbat persona geran munduan
beste ainbeste oponiyo...

Egi-egia, noski. Ta beti ere onela izango da. Bakoitzak bereari eusteko eskubide guzia du, bañan bestearena errespetatu bearra ere bai. Orregatik, ez degu uste izan onako bertso-sail au, baztarrera utzi bear zanik, ezta urrengo irurak ere.

1/ Milla bederatzireun
t'ogei ta amaikian,
kantik jartzera nua
formalidadian;
basarriyan bezela
igual kalia,
jakin dezaten oiek
zer sujeto dian.

2/ Euskaldunak dirala
bañan gu ere bai,
edo bestela galde
gure gurasuai;
odola ixuriyak
orrenbeste anai,
alare uniyorik
ez omen dute nai.

3/ Separatista oiek
daudela indarrian,
okertu dira zuzen
juan biarrian;
katolikotasuna
oien bizkarrian
altxatzeko ez dabill
paraje txarrian...

4/ Ixillik ezin egon
egiya esan gabe,
oraindikan geiago
ekusteko gaude;
beti izandu dira
sesiyuan alde,
Elizaren etsaiak
oriyek dirade.

5/ "Gora Jaungoikua ta
gure Fuero zarrak!"
gu engañatu naiez
oien deadarrak;
ez gaude burutikan
oik bezin zabarrak,
gu gera euskaldunak
oiek bezin zarrak. (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik.

“GRAZI BEREX BAT...”

- 1/ Grazi berex bat eskatzen dizut,
zeru ta lurren jabia,
baita zuri ere, Ama Birjiña,
sortzetik mantxa gabia;
otza dago ta bero zazute
katolikuan labia,
bestela danak galduko gera
masoiak sartzen badia.

- 2/ Komunismoa katolikuantzat
zer dan dago ekusiya,
edo bestela espillutako
ara non dagon Rusiya;
beren mendian artuko dute
pobre ta aberats guziya,
aberatsari kenduko diye
dirua eta biziya.

- 3/ Ezkertar oiek Elizan kontra
artua dute afana,
katolikuantzat jo nai luteke
agoniyako kanpana;
sozialista diputao batek
Euskalerrriyan esana:
*“Con nuestros planes en toda España
no quedará una sotana!”*

- 4/ Izandun oiek beartsuari
zerbait eskua luzatu,
orain artian batzuak beintzat
ez dute asko usatu;
katolikuak pobre ta aberats
obe genduke osatu,
komunismoa gure gañetik
arren ez dedin pasatu.
- 5/ Asko konforme omen dirade
komunismoa sartuta,
lege zuzena jarriko'utela
aiekin alkar artuta;
berriz Manolok jasotzen badu (1)
Españiyako batuta,
eliz-gizonak egon litezke
maletak preparatuta.
- 6/ Ekusirikan katolikuak
daukagun fede urriya,
komunismoak daduka oraiñ
izugarrizko furiya;
oien mendean geldi ez dediñ
Españiyako uriya,
bidezko alkiyan jarri dezagun
aitona kaska-zuriya. (2)

(1) Manuel Azaña alegia.

(2) Alfonso Carlos jauna, karlisten orduko errege-gaia. Juanitoren eskuz-idatzietatik.

“ORRA BERTSO BERRIYAK...”

1/ Orra bertso berriyak
dakidan euskeran,
motiborikan asko
badago aukeran;
zenbat pikardi jarri
dute oik paperan,
obrak erakusten du
nolakuak geran.

2/ Garbi gure dotriña
eun urte oitan,
etsaia asko izan
arren be ta goitan;
zenbaitena bezela
ezta sartu loitan,
zeren zuzen dijuan
bere arrazoitan.

3/ Zernai gauz esateko
ez daude kupira,
Elizaren Artzaiak
neurtzen asi dira;
deus etzan errespetoz
mintzatu balira,
zuri-gorri etxuran
naiko beltzak dira.

4/ Elizak nonbratua
nola dan ministro,
orren obra juzgatzen
Aranzadi listo;
bazterrak nastu-azten
zenbait buru-gaizto,
Euskalerrriyan sartu
zaigu Antikristo.

5/ Gu nor gera Elizan
Artzaiak neurtzeko?
baizik aren esanak
zintzo kunplitzeko?
pekatu guziyaren
barkamena artzeko,
nai ta naiezkoa da
zeruan sartzeko.

6/ Gu salbatzeagatik
Jesus nola ill zan,
ondorengo Artzaiak
utzirik agintzan;
oitâ errendi gaiten
munduko bizitzan,
orren buru-gogorrek
ez gaitezen izan. (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik.

“JESUS JAIO ZANETIK ONERA...”

- 1/ Jesus jaio zanetik onera
zenbat urte dan pasatu!
oraiñ artian Estatuto au
beñere ezta usatu;
gure aitonen Fuero ederrak
nai baditugu gozatu,
besuak zabalik gaude, t’etorri
etzaitezela lotsatu.

- 2/ Bata bestiai lagundutzeko
ez gaitezen izan alperrak,
ekarritzeko gure aitonak
zituzten Fuero ederrak;
lagun txarrakin bildu dirade
zuzendutzeko okerrak,
el Estatuto único dauka
Kataluñako Ezkerrak.

- 3/ Oraindik ezta denbora asko
Kataluñiyan pasia,
berak aparte agindutzeko
askok daukaten gosia;
ill zan ta zibill enterratua
antxen daukate Maciá,
ori ez baita katolikuai
tokatzen zaion klasia.

4/ Gaurko eguneko gizon batzuek
asko arritzen naute ni,
Jesus ta Judas dotriñ batekiñ
ezin litezke sosteni;
Jainko gabeko Estatutoa
Judak zioten eskeñi,
emengo Fueruak zuzendutzeko
lagun ederra Compani. (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik.

(1932)

BAROJA ETA ETXABE'TAR
ESTANISLADARI

NERE ZORION ETA OPAMENA, BERE EUN
URTE DITUAN EGUNEAN. (1)

1/ Milla zortzireun igaro eta
gañera ogei ta amabiyen,
mundu ontara sortu ziñaden
Orri-illaren zazpiyan;
ezta erreza nolanai jartzen
eunki baten azpiyan,
beste ainbeste opatzen dizut
Jaungoikuaren graziyan.

2/ Zure inguru guzietan gaur
ageri da poztasuna,
zergatikan dan oroitz-eguna
zuri ospatzen zaizuna,
beñere baño alaitsuago
arkitzen da Oiartzuna,
bedeinkatua izan dedilla
zu sortu ziñan eguna.

(1) Amona au, andik bi urtera il zan.

3/ Gaur ekusten da eun urtetan
zure doaiezko griña,
ta zeñek diyo Gurutzeari
zuk beziñ naitasun fiña?
Ondorenguai erakutsitzen
saiatzen da alegiña,
naiago nuke beste eun urtian
orla biziko baziña.

4/ Al banezake zure kemena
aundiya onela goitu,
Zeruko Aita begira dago,
berak ekusiko ditu;
oraindano orrek bezela danak
bide zuzenai jarraitu,
agertzen diran etsai gaiztuak
egiñ ditzagun garaitu.

5/ Biyotza pozez saltoka dabill,
eziñ egon da geldirik,
eun urteko amona xar bat
orren pizkor ekusirik;
nere opamen txikiya onek
eztu iñolaz neurrik,
gure Jainkuak gordeko al du
urte askuan bizirik!

6/ Gora amona eta gañera
fameli agurgarriya,
gora agintari prestuak eta
gora Oiartzungo erriya!
Eun urtetâ iritxitzia
ez al da gauz mirariya?
Danon artian, bear bezela,
eman zaiogun sariya.

7/ Nai eta nai ez arkitzen nitzan
zerbait esan bearrian,
ixillik nola egongo nitzan
orlako egun ederrian?
Zori-onian ekusten zaitut
nere begiyen aurrian,
amon oberik ezta izango
Kantabriyako lurrian.

8/ Gaur Oiartzuna arkitutzen da
atsegiñez ta gozoro,
nere omen au txikiya bañan
artu ezazu osoro,
nere biotzen erditik auxen
garbi nai dizut oparo:
agur, amona, osasunakiñ
bizi zaitia luzaro! (2)

(2) "Bertsolariya", 34'gn. zenb., 1932/III/8.

(1932)

**DONOSTIYAKO ESTROPADAI
ZABALETA'TAR JUANЕК**

- 1/ Milla beatzireun da
ogei ta amabiyān,
bertsuak ipintzera
orain naiz abiyān:
San Pedro seigarrena
oraingo aldiyan
irabazi dubena
aurten Donostiyan.

- 2/ Sei urtez errenkan
dakarte bandera,
aurten e etorri da
San Pedro aldera;
iñork egiten badit
gauz ontan galdera:
Mañuel Arrillaga,
txapeldun zu zera.

- 3/ Aita San Pedrokuan
Arrillaga patroī
bere kuadrillakin
ipiñi nai det goi,
zergatik arraunian
daukaten txit sasoi,
bestela etzan etorko
seigarren bandera oi.

4/ **Kantabriko leoiak**
gaur San Pedron daude,
sei urtian argatik
txapeldun dirade;
nere iritziya're
esan bear nuke:
estatua egitia
merezi luteke.

5/ **Mañuel Arrillaga**
zu zaude kapitan,
orrelakorik ezta
gerta gizalditan;
apenas ibilli den
lanian tranpitan,
sei urtian aurretik
amaika alditan.

6/ *Amaikak* irabazi
diyo amabiya,
zergatikan Balentin
dan patroi aundiya,
eta kuadrilla ere
pizkor ta biziya;
onrak merezi ditu,
gora Donostiya!

- 7/ Aurretik beti dute
pizkorraren sonak,
probatuta ekusten
dirade gizonak;
onrak merezi ditu
patroi Lekuona'k,
eta Ondarrabiyako
arraunlari onak.
- 8/ Laugarren Donostiko
kuadrilla gaztia,
uste beziñ atzian
gelditu ezta;
ezta txorakeriya
lan ortan astia,
naikua egin dute
ainbeste austia.
- 9/ Bostgarren Sestao da,
Castro ori seigarren,
aurten probatu dira
kanpoz eta barren;
azkeneko saiuan
bat bestian urren
bentaja aundi gabe
an sartu ziraden.

10/ Aginaga zazpigarren,
Zumaia urrena,
sartu ziraden Kontxan
balizan barrena;
onekin bukatu zan
estropada dena,
saiatu faltan ezta
gelditu azkena.

11/ Galerak tristura du,
irabaziyak poz,
zergatikan ordaña
etortzen dalakoz;
ez degu bizi biar
alkarren gorrotoz,
obe degu pakian
eta errespetoz.

12/ Amabi bertsorekiñ
nai nuke bukatu,
orra esan estropada
nola dan jokatu;
ezer ofensarikan
badago barkatu,
t'urrengo urte arte
Jainkuak nai badu. (1)

(1) "Bertsolariya", 54'gn. zenb., 1932/IX/25.

(1932)

“AGUR GUZIORI...”

Agur guziori; au poztasuna
dago nere barrenean,
danak pakean alkarturikan
onelaxe ekustean;
bañan alare samintasun bat
badadukat barrenean,
zeren batzuek, ai, ez dirade
emen arkitzen ordean,
bizi balira ez lirakenak
egongo oso gordean;
gizarajuak beti-betiko
sartu ziraden lurpean,
beren egunak amaiturikan
Jesukristoren legean.
Iya, gaztiak, jarrai dezagun
aiton oriyeñ fedean,
oiek ibiltzen diran bezela
bide eder zuzenean,

azaldu dedin zer geraden gu
beste guziyen aurrean,
esanez bizi nai degula guk
danon Aitaren oin-pean,
eta ez beste nazkagarritzko
lege orien mendean;
iraunik zutik zail ta gogorki
zurrubilluen artean
iraupenaren sariarekin
itsas-arroken antzean,
iritxi zangun ipar gozoa
ekaitz beltz onen atzean;
gorroto danak alkarri utzi
eta anaitu gaitean,
egun ale oik pasa ditzagun
osasunez ta pakean,
gero damurik izan ez dedin
Josafatera joatean;
Aita San Pedrok sartu gaitzala
danak zeruko atean.

13/XI/32 (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik.

(1936)

TXIRRITA IL DA

1/ Zeruko Aita, eskatzen dizut
lan ontan argitasuna,
adierazteko nere biyotzak
daukan naigabetasuna;
Ama Euskera negarrez dago,
il zaio seme kutuna,
Jose Manuel bertsolariya
Txirrita maiso txit ona.

2/ Jose Manuel Lujanbio zan
Txirrita bertsolariya,
beraz Ernanin jaiua bañan
Errenteriyen aziya;
irurogei ta amasei urte
kunplitu zituen iya,
perlesi gaizto batek elduta
utzi du bere biziya.

3/ Milla bederatzi eun eta
ogei ta amasein buruan,
Jesus onaren besoetan il da
Garagarrillen iruan;
Euskalerriko bertsolariyak
gelditu gera lutuan,
errezatzen det aren anima
gerta dedilla zeruan.

Errenderi: 10/6/36 (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik. Bertsoen azpian onako oar au: "*Mandé a Argia, El Pueblo Vasco, El Día y La Constancia. Trajeron todos*". *Argia*'k (28/VI/1936) aldaketa au du: 3/6: gelditu dira.

(1941)

**BERTSO BERRIYAK
DONOSTIYAKO ESTROPADARI
JARRIYAK**

1/ Milla bederatzi eun eta
berrogei ta batgarrena,
bertso berriyak jartzera nua
lasaitu dedin barrena;
Agor-illaren zazpiyan zan bat,
amalabian urrena,
nere denboran ekusi detan
estropadaik ederrena.

2/ Biba Oriyo ta Ondarrabiya,
gora Pasai San Juandarrak,
biba Loiola eta Sestao,
gañera donostiarrak!
Danak amaren semiak dira,
txit arraunlari azkarrak,
joko garbiyagorikan ezta
probatutzeko indarrak.

3/ Sei txalupa or apuntatuak
estropada jokatzeko,
batzuak ondo preparatuak
zeuden alkar probatzeko;
asmo senduak aldez aurretik
artuak irabazteko,
bañan guztiyak etzeuden lotan
tamaña orretan uzteko.

4/ Lenengo tandan jokatutzeko
Pasai San Juan aurrena,
Sestaotarrak erdiyan eta
Loiolatarrak urrena;
jokatu dute iruak gogor
zeiñ etorri azkarrena,
era berian sartu ziraden
bueltan balizan barrena.

5/ Bigarren tandan Ondarrabiya,
Oriyotarra zan urren,
ta irugarren Donostiarrak
preparatuak an zeuden;
salida emanik jurado jaunak
gogor saiatu ziraden,
bañan lenengo tandan bezela
iruak sartu ziraden.

6/ Nork azkarrena buelta egin zuan
jurado jaunak esan du:
lendabiziko Ondarrabiya,
urren Pasaia urbildu ;
irugarrena Oriyotarrak,
laugarrena Loiolak du,
bostgarrenakin Donostiarrak,
Sestao azken gelditu.

7/ Ondarrabiyak Pasai San Juana
iru segundoz du laja,
oiek Oriyoi ogei ta amalau
ateratako bentaja;
jende guziya arriturikan
ura posible etzala,
berialaxe aitzakiya zan:
Sarasua falta zala.

8/ Lau banderako gelditu ziran:
Ondarrabiya eta Pasaia,
Oriyo eta Loiolatarrak,
danak berriz proba-naia;
uste gabian allegatu da
au ekusteko garaia,
esan bezela juntatu ziran
danak Donostiko plaiâ.

9/ Agor-illaren amalabian
berriz Donosti aldera,
iya norentzat zan aurreneko
premiyua ta bandera;
eun millatik gora bagiñan
juan giñanak ekustera,
Donostiyako bere berdiñik
eztun Kontxa zabalera.

10/ Laurak txalupak kanbiatuta
bota dute suertia,
lendabiziko Loiolatarrak
iparretik irten dia;
gero San Juana ta Ondarrabiya,
Oriyok isla aldia,
leku ederra izan bear du
probatutzeko jendia.

11/ Salida emanik irten dirade
lau txalupak elkarrekiñ,
arraunak gogor dantzaturikan
zeñek lenago buelta egiñ;
Ondarrabiya eta Pasaia
ainbeste bidian berdiñ,
azkenerako Pasaia aurrena
bi segundon bentajakiñ.

12/ San Juandarrak egiñagatik
beren alegin guziyak,
segundo bat eta iru kintoz
bandera Ondarrabiyak;
Oriyotarraí orainguan e
ogei ta bostena biyak,
ara zertâño bajatu diran
oriyen arrokeriyak.

13/ Oriyo aurretik bentajan baietz
jendia gogor zan fiyo,
bañan alperrik, aurtengo ontan
kukuak oker jo diyo;
Sarasuaren faltikan etzan.
alare eziñ gora iyo,
alperrik dira aitzaki danak,
aurten ez dute baliyo.

14/ Biba Pasaia ta Ondarrabiya,
aurten portatu zerate,
oinbesteraño zaudenik biyak
jendiak etzuben uste;
gazte ta sasoi daukazutela
garbi agertu dezute,
beste bost edo sei bat urtian
lanak emango dituzte.

15/ Biba Ondarrabiyako patroï
Roman Agirre leiala,
eta gañera kuadrilla dana
berdiñ juzgatzen det ala;
aurten bandera irabazi du
merezi zuban bezela,
desio diyet osasunakin
luzaro bizi ditezela.

Errenteria, 15/IX/41 (1)

(1) Oiartzun'go Larria'ko Patxi Labandibar'ek emandako orri batetik. Orri ori Juan Zabaleta'ren eskuz idatzia dago, bere firma ta guzi.

(1942)

MARIA MAGDALENAREN ERMITA

- 1/ Santa Maria Magdalenatan
festak dira Errenteriyen,
beragatikan bertso batzuak
jartzera nazu abiyen;
bere imajina dagon ermita
badaukagu bat erriyan,
apenas asko oroitzen gera
juan daneko aspaldiyan.

- 2/ Tamaña ortako ermita ederra
dago abandonatua,
lengo batian ekusi nuben
ta au da eziñ ukatua;
kanpuan bezelaxe sartzen da
barrenara ur-tantua,
zer estadotan arkitutzen dan
ortik atera kontua.

- 3/ Orain dirala urte batzubek
borondate onarekiñ,
juntatu ziran gizon-mordoxka
txit asmo ederrarekiñ;
diru-puxka bat bilduta lanai
bear zitzaiola ekiñ,
al zan ondona konpondu eta
ermita gelditu zediñ.

4/ Ayuntamiento noblia eta
kabildo agurgarriya,
tamaña onetan edukitzia
ez al da lotsagarriya?
lagundutzeko konforme dago
al dan moduan erriya,
danak bertatik saia gaitzen
badu zerbaiten premiya. (1)

(16/6/42)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik.

Errenteria'ko festetarako ateratzen zan errebista batean ere argitaratu ziran, bi aldaketa auekin ordea: 4/6: gañera erri guziya; 4/7: danak lenbailen saia gaitzen.

(1942)

ZENTOLENE'KO BASERRIYA

Zentolene baserria, Errenteria'ko kanposantutik gora artuta, ordu laurden batera dago. Garai batean, baserria ez-ezik, sagardotegia ere izaten zan. Alboan, gurdiak eta baserriko tresnak gordetzeko etxe-orde bat zan. Ta aren paretak, pelota-plaza bezela serbitzen zuan. Makiña bat partidu jokatu izan da, beintzat, antxen. Bertso auetan, Zentolene baserri ortan arratsalde batez gertatu zaren herri ematen digu Juanitok.

- 1/ Zentolene'ko plaza onetan
pillotan amaika bider
jokatu izan da sagardua ta
zenbait merienda eder;
bertako nagusi jauna etzan
makala eskubi ta ezker,
ustez onenak joanagatik
menderatzen zitun laister.

- 2/ Beñ Jose Mari "Kukua" eta
lagun Antoniyo "Bako",
bertako nagusiya Juan Jose
eta Velasko Modesto,
jokatu zuten partidua
gogor saka ta erreto,
gero ondoren zer izango zan
esan bearrik eztago.
- 3/ Amasei lagun lapa jatera
mayian ziran juntatu,
Modestok ondo jarriyak zeuden,
etzan askorik sobratu;
gañera berriz sagardo ona
txarroka zetorrena ustu,
gero ondorian zer pasatu zan
bear dizutet kontatu.
- 4/ Danak alegre jarri ziraden
alde bat utzirik penak,
orduan ala esan omen zun
bertako nagusi jaunak:
—Probatu bear degu bertsotan
zeñ geraden gaur onenak,
berrogei baso paga ditzala
emen botzen ez dubenak.

5/ Ala esan ta egiñ, kantatu zuben
nagusi jaunak lenbizi,
baita ondoren beste guziyak
txandaka ziraden asi;
zenbat farre egin zan orduan
nik nola adierazi?
bañan azkena bota zubanak
txaluak ditu merezi.

6/ Azkenerako Maximo txanda,
larri ta estutasunan,
aldameneko lagunai :“Motell,
etzakiyat nik zer esan!”
Bañan berrogei baso sagardo
nola pagatu bear zan,
azkenerako bukatu zuben:
“Jesus jaio da Flanfonan!”

(13/6/42) (1)

(1) *Renteria* aldizkaria, 20'gn. zenb., VII, 1942.

(1942)

PIZKOR BATZUERI

1/ Bertso berri batzuek
bear ditut jarri,
gure fabrikan dauden
pizkor batzueri;
oien ofiziyua
korri eta korri,
etzaizkigu langille
mantsuak etorri!

2/ Goizian asten dira
korrika lanian,
endemas nagusiya
bistan dagonian,
kontuak esateko
gero aldamenian,
moteltzen dira ura
joaten danian.

3/ Badakite nola artu
lanari dieta,
esanez: "Motell, lasai,
bera juan dek eta!"
Gero nagusiyana
jotzera korneta,
besteren faltak esan,
berenak gordeta.

- 4/ Orrelako asko da
mundu zabalian,
bañan ezagututzen
dira azalian;
lasai egoten dira
bera an eztanian,
merituak jasotzen
dituzte egoniam.
- 5/ Arritzen naiz gizonak
orla ibiltzia,
gañera nagusiyak
oiei aditzia;
kulpa dubena ondo
da kastigatzia,
bañan oinbesteraño
bera autan jartzia...
- 7/ Ala biarra nonbait,
gertatu da suertez,
zelatan ekustia
bat lengo egun batez;
gordean zegoala
piyo zegon ustez,
orra danak ikasi
ibilli gabe galdez.

8/ Alkaguetez betiak
daude baztar denak,
besteren ona eziñ
sufritu dutenak;
santo-paperak egin,
berak okerrenak,
aik dirade mingañez
langilleik onenak.

9/ Orra beatzi bertso
uste gabe tira,
farrez egoten nazu
askotan begira;
ezta nolanaikua
oriyen mugira,
noizbait e txandakuak
azalduko dira. (1)

* * *

Sail ontan, seigarren bertsoa falta da; bostgarrenetik zazpigarrenera salto egiten du. Orregatik, azken bertsoan "*orra beatzi bertso*" esaten du, zortzi badaude ere. Ala ere, paperaren saietsetan beste iru bertso daude; zenbatgarren bear duten ez du esaten ordea. Onako auek dira:

(1) Azken puntu au aldatzeko-edo, alboan beste au apuntatua dago:

denboraz oiek ere
eroriko dira.

Nagusiya izan balitz
etzan ajolikan,
begira etzan egongo
orla zulotikan;
zeren berak dakiyen
ta gaude esanikan
an bertan egoteko
ezpada lanikan.

Len ere ekusi dira
gizon panparroiak,
korrika pasatutzen
biak eta goiak;
denboraz bajatutzen
dirade sasoiak,
azkenian autsitzen
ditu arrazoiak.

Bakoitzak bere lekuan
ordenak kunplitu,
besterenari laja,
berian kabitu;
kontu politak danak
esango banitu,

.....
..... (2)

(2) Juanito zanaren eskuz-idatzietatik.

(1944)

AITA MAÑUEL'I

- 1/ Gora aita Mañuel
ta bere kuadrilla,
txalupa giyatutzen
ori da mutilla;
berez jeniyozkua,
prestua t'umilla,
eziñ juañ litezke
obiaren billa,
luzaro osasunakiñ
bizitu dedilla.

- 2/ Aurten bandera eraman
du Oriyotarrak,
ederki probatuta
dituzte indarrak;
aurrenian baziran
desaide ta farrak,
leku danetan dira
aman seme azkarrak,
gora Aita Mañuel
ta San Pedrotarrak!

- 3/ Milla bederatzi eun
berrogei eta lau,
bertso bi kantatzia
goguak eman nau,
Zeruko Aitak baldin
lagundutzen banau;
bost paladan amairu
segundo eman *rau*,
zazpikin bederatzi,
nola liteke au?
- 4/ Ondarrabiyarekiñ
San Pedro t'Oriyo,
bigarren txandan irten
ziraden seriyo;
kostako jende ori
zegen oso fiyo,
esanez: "Guretzako
ez dute baliyo",
bañan azkenerako
Pasaiak jan diyo.
- 5/ Bigarren estropadan
zenbat zar da gazte,
bakoitzak zer egin dun
ekusi dituzte;
Oriyok orlakorik
etzun asko uste;
bi Pasaiak alkartzen
baldin bazerate,
Españiko nagusi
jarriko zeazte.

6/ Urtero egiten dira
txalupa ederrak,
bigarreneko jartzen
dirade okerrak;
Oriyok beti ditu
kuadrilla azkarrak,
bañan Pasaian ere
ez daude baldarrak,
gora Pakon kuadrilla
eta San Juandarrak!

7/ Donostiyako Kontxan
estropada usaiak,
neri gustatzen zaizkit
orrelako jaiak;
izketako bidea
ekartzen du gaiak,
alkar ondo artzia
neretzat eztaiak...
ondo portatu dira,
gora arraunlaiak!

(23/9/44) (1)

(1) Juanito zanaren eskuz-idatzietatik.

(1945)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Kaso polit bat pasa dalakoz
para bialitut bertsuak,
enteratzia komeni baita
len ez dakiten batzuak;
eskopetakin alperrik zertan
eman mendiyan pausuak?
fabrika bertâ etortzen dira
erregalotan usuak.

- 2/ Telariaren gañian jarri
paperarekiñ bilduta,
bañan isatsa ageri zuan,
lumik etziyon kendu-ta;
gañera bi karamelo-zorro
dana txukun apainduta,
esanaz bere artian: "Ai zer
poza daukan oik artuta!"

- 3/ Orla utzita gero ondoren
gordeta zeletan jarri,
nunbait zer poza artutzen zuben
berak nai zuben ekusi;
or tokatu da lan egitia
makina artan beste bati,
laister juan zan salto batian
danak artuta igesi.

4/ Testigo asko begira zeuden,
eziñ lezake ori uka,
beragatikan asi zitzaizkan
emakumiak ojuka;
alargunduta egonagatik
nobiyo faltik ez dauka,
amoriyua agertzen diyo,
borondatia badauka.

5/ Modu orretan maite zubala
garbi agertu nai ziyon,
bañan pentsatu bezela gauzak
ondo atera etzaizkiyon;
azkenerako arrebarekiñ
etxera bigali ziyon,
ortik kontuak atera leike
zenbatxo maitasun diyon.

6/ Mutill-zartuta gogoratu da
eta jarri da pentsatzen,
nonbait e bere gustokorikan
etzuen iñon topatzen;
ez al dek, motell, gauz ortarako
itz egiteko ainbat kemen?
lotsak utzita saiatu ari
bestek eraman baño len!


(17/11/45) (1)

(1) Juanitoren eskuz-idatzietatik.

PELLO ZABALETA'REN

BERTSOAK

Zabaleta Pello



(1910 inguruan)

ELAMA'KO MENDIAN

Itzaurrean adierazi danez, Pello ta Juanito Artikutza'n aritu ziran lanean, ta Pello, gazteena zalako, arrantxero jarri zuten. Amabost bat lagun ziran, danak Goizueta ta Aranazkoak, bi anaiak izan ezik.

Goizeko seiretan jeikitzen ziran. Zortzi-rak arte, lanera. Zortziretan, gosaria: baratxuri-zopa eltzekada aundi bat. Lanera berriro ere. Amabietan, bazkaria: baba beltza edo babarrona, salda kenduta; ondoren, urdaia, txorixua, gazta-edo, bakoitzak etxetik zuana; ta, azkenik, postrea bezela, baba edo babarronaren salda. Ta berriro ere lanera, seirak arte. Seiretan aparia, bazkaria bezela. Ogia ta ardoa —au zatotik edaten zan— guzian artean pagatzen zuten. Eguneko amairuna erreal irabazten zan; kapatazak, lau pezta.

Onako bertso auek, Pellok orduan kanta-tuak ta orain bere aotik jasoak ditugu. Ez dute zer esplikatu bear:

E-gur bat a-mil-du-ta gaur jodit el-tzi-
 -an, gu-txi-nez a-mar me-troz ju-an da ai-ri-
 -an ge-ro men-di-yak be-ra bi-ra-je lu-zi-
 an, ni a-tze-tik se-gi-ka el-tzi-a au-rr-
 -an; e-rre-kan bi-lla-tu det ar-ka-it-zan ar-ti-
 an,

Egur bat amilduta
 gaur jo dit eltzian,
 gutxinez amar metroz
 juan da airian;
 gero mendiyak bera
 biraje luzian,
 ni atzetik segika,
 eltzia aurrian,
 errekan billatu det
 arkaitza tartian.

Kilometro erdi bat
egĩñ det korrika,
zuek amildutako
eltzai segika;
farrez egon zerazte
neri atzetika,
bañan gerora etzan
orlako pozika,
gaur amarrak artian
etzan gosairika.

* * *

Eguaiziak ekartzen ditu
askotan naigabe txarrak,
lengo batian ekusi ditut
amar t'erditan ederrak;
orbel gañian zeuden erropak
erre ditu su ta garrak,
brusarik gabe gelditu dira
Aranaz ta Goizutarrak.

Gosal onduan utzi zituzten
erropak orbel gañian,
ni iturrira bajatu nitzan
egarritu ziranian;
arrantxeritik sua juango zan
aize-kolperen batian,
ni berriz bueltan etortzerako
geienak erriak zian.

(1916 inguruan)

BERTSO BERRIYAK

MANUELAREN PENAK ZABALETA'TAR PELLO'K JARRIYAK

Doñua: «Marichu nora zuaz...»

Lasarte'ko *hipodromua* egiterakoan, Pello ere bertan aritu zan lanean. Ta artan ari zala, ango neskatxa bati nobioak alde egin zion Ameriketara. Neskatxa penaz eta oso triste gelditu zan. Pellok, ala ikusita, galdetu zion: "Nai al dezu zure nobioari bertsoak jartzea?" Ta neskak erantzun zion: "Bai, bai, jarri; neronek jarri banitu bezela jarri." Ala, jarri zituan, neskatxari eman ere bai; onek, berriz, bere nobioari bialduko zizkion noski, bañan Pellok dakilarik beintzat, mutilla etzan osterera etorri.

1/ Bertso bi paratzeko
artu det asmua,
neri pasa zaidana
esatera nua;
mutill gazte bat nuben
nere guztizkua,
ni negarrez utzita
bai omen dijua.

- 2/ Franzisko Ameriketâ
zera abiyatu,
birian oker gabe
ondo allegatu,
beñere ez dizut nik
gaizki desiatu,
zer nola bizi zeran
andik abisatu.
- 3/ Franzisko, maite zaitut
eziñ da geiago,
amoriyua daukat
entrañetaraño,
zutaz ez naiz aztuko,
ez, ni egundaño.
nigandikan urruti
juan zerade baño.
- 4/ Bueltan zatozenian
biyar edo etzi,
musu bat eman gabe
eziñ zaitut utzi,
zedorrek badakizu
ori ondo aski,
nere biyotzak pena
aundiyak daukazki.

- 5/ Au da sufrimentua
utzi dirazuna,
iya galdutzen dedan
nere osasuna,
urrutira juan zait
maitetxo kutuna,
amerikanen batek
an ai zer fortuna!
- 6/ Beti pentsamentuan
gaba ta egunak,
neretzako ziraden
onlako fortunak,
nik igarotzen ditut
ordutxo illunak,
eziñ konsolaturik
dabiltza lagunak.
- 7/ Amak ezagutzen nau
triste naguela,
lagunak etortzen zaizkit
gero beriala:
“Guazen pasiatzera,
goazen, Manuela,...”
etxian egon bañon
obia nubela.

8/ Amak eta lagunak
naukate esan-ta:
“Ori da, Manuela,
artu dezun planta!”
Nere pentsamentua
beti dago artâ,
biyotzez maite nuen
puska ura falta!

9/ Nik daduzkaten penak
nola deklaratu?
alegiñak egin-ta
eziñ konsolatu,
negarrez asi eta
eziñ naiz aspertu,
aspaldiyan begiyak
etzaizkit legortu.

10/ Azken orduan itz au
esan ziranian,
jarri nitzan txutikan
eziñ egonian:
“Adios, Manuela,
ekusi artian.”
Ai ura naigabia
nere barrenian!

11/ “Adios” esan nizun
negar tartetikan,
suspiriyo aundiyak
nauzkan barrendikan,
bi orduan despeida
eziñ egiñikan,
beñere ez det artu
alako penikan.

12/ Erregali bat badet
oso dotoria,
medalla eder batekin
urrezko katia,
nola ez naiz egongo
kariñoz betia?
penaz galdu baño len
azaldu zaitia!

13/ Amoriyozko penak
daduzkat nerekiñ,
orain probatzen ditut,
lenago ez nekiñ,
bi urtian tratatu
degu alkarrekiñ,
ai, nik beti-betiko
nai nuke zurekiñ!

14/ Orra amalau bertso
Manuelarenak,
zenbaiteraño diran
kariñozko penak,
errukitutzen dira
ekusten nautenak,
Franzisko, zuregatik
dira oiek denak. (1)

(1) Bertso-papera "Imprenta Macazaga, Renteria"
Pellok berak emana.

NERE GERTAERAK 1918'AN

1918 urtea zan. Pellok 21 urte zituan. Pasai San Juan'go astilleroetan egiten zuan lana. Egun batez, Maiatzaren 30'an, oso egualdi txarra suertatu zitzaion, lanera zijoala. Aizeak guardasola autsita, zer komeritan ibilli zan, bertso auetan adierazten du:

1/ Bertso berri batzuek
ditut nik moldatu,
nere pasadizo bat
nai det kantatu,
Lezo hide orretan
zer zaidan gertatu,
mundu guziyai egiñ
nai diyot mandatu:
lanera abiyatu,
egualdiya txartu,
guardasola artu,
bidian puskatu...
nere lasaitasunak
ziran estutu!

2/ Maiatzak ogei ta amar,
goizeko seietan,
San Juana nuala
zer izan detan:
lanerako asmoak
nituen benetan,
iñor egondu bazait
atzetik zelatan,
ibilli naiz plantan,
guardasolan faltan,
autsi zait aizetan
Lezo bide ortan...
Pello etzan kontentu
ordu aietan!

3/ Pelloren istilluak
nork nai ditu jakiñ?
ara zer pasa zaiten
guardasolakiñ:
tenpestade gaiztua
aize gogorrakiñ,
autsita gelditu naiz
bi esku utsakiñ;
egualdi arreakiñ
etzegon atsegiñ;
Lezon Indioniñ
gosai txikiya egiñ,
artu nuen sustotik
galdu ez nediñ.

4/ Lezotik irten eta
laguna anparo,
aren guardasola're
iya akabo;
neria oraindikan
konpontzeko dago,
ijituarengana
ez det eramango;
besterik balego
arri eman naiago,
oraiñ edo gero
amar paraguero,
oiek bearko ditu
konpontzekero.

5/ Ofiziale billa
asi naizenian,
bakarra billatu det
erri danian;
ark konponduko naula
bost illebetian,
bitarteko legorra
seguratu zian;
formal esan zian
konpondu artian
aukera klasian
zeukala etxian...
ogei pezetakin bat
saldu nai zian!

6/ Ogei pezetan truke
guardasol fuertia,
ebi-eraso baten
beldur gabia;
negu gogor bateko
atsegiñak dia
etzuen gaizki egiñ
ona eskeintzia;
aren informia:
tela on berdía,
ballena doblia,
kirtena kobria...
txatarrerako ere
badu beria!

7/ Guardasol ederra da
moda zarrekua,
Jesus mundura baño
lenagokua;
berak ere ezagun du
ez dala oraingua,
Lartaun zanak eskuan
ibillitakua,
berriya izandua,
oraindik sendua,
nork dauka modua
erosteko ua?
San Tomas feriyetan
salgai dijua.

8/ Iñork artzen badiyo
zarrai meritua,
badauka zeñetara
begiratua;
aitortuko dizutet
aren pekatua:
urte asko dauzka ta
dago nekatua,
tela ajatua,
ballenaz metua,
kirtena gertua
pruebak agertua...
lendabizi sortu zan
inbentokua!

9/ Onekin bukatzen da
nere istoriya,
ibillera ura zan
negargarriya;
erasuan itzuli
egin det korriya,
nai bezin alde ez nuen
Lezoko erriya;
gogor zan ebiya,
guardasol autsiya,
ai ura larriya!
galdu nitzan iya...
orra guardasolaren
erromeriya! (1)

(1) "Bertsolariya", 23'gn. zenb., 1932/II/21.

Ondarroa'ko bertsolari batek, Burgoak, bertso auek artu, an da emen, komeni zitzaion bezela, aldatu, berak iru bertso asmatu, ta guziak bereak balira bezela atera zituan. *Plagio* itxusi bat, beraz. Ona emen aldatu zituanak:

1/2: nai ditut plantatu; 1/3-4: nere pasadizua nai det kontatu; 1/5-6: Berrituko birian zer zaidan pasatu; 1/7: erri guziari egiñ; 1/9: erromexara abiatu; 1/12: axiak apurtu; 1/13: neure larritasunak.

2/1-2: Maiatzak bederatzi San Gregoriotan; 2/3: Berritura nuala; 2/5-6: erromerirako asmuak nituzen benetan; 2/7-8: iñor egondu bara menditik zelatan; 2/11: axetan; 2/12: Azkartzako bueltan; 2/13-14: Burgoa estutu zan ordu abetan.

3/1: Burgoaren istoriak; 3/3: ara zer pasa zaion; 3/5-6: denporale gaizto bat — axe ta eurixakiñ; 3/9-12: egualdi txarrakiñ — aurrera jun eziñ — Azkartzako etxiñ — merixenda bat egiñ; 3/14: osatu neidiñ.

4/ Azkartzatik urtenda Errentexan sartu,
botilla bat sagardu nuan eskatu,
beriala egiñ ziran aurrian prestatu,
Berritutik zer berri zizkiran galdetu;
 makiña bat kontu
 genduen kontatu,
 farrez ziran geratu,
 ni berriz estutu,
euririk eziñ zalako atertu.

5/ Errenteritik artu nuan etxerako asmua,
Alliñ zan azkenengo estaziua;
an ere euki nuen konbersaziua,
nere guardasolaren estimaziua;
 gizon seriua,
 sekretariua,
 aren abisua
 izan gozua,
billatu nuen gizon kariñosua.

6/ Gizon ark egin ziran etxera lagundu,
 aren guardasola be aixiak erun du;
 neuria orañdikan ez dute konpondu,
 ijituarengana eramango ez nu;
 besterikan banu
 ari eman naio nu,
 orañ eta geru
 zazpi bat paraguero,
 konpondutzeko ondo danak bear du.

Urrena, Pelloren bostgarrena kopiatzen du, aldaketa auek egiñikan: 3: bakar bat topatu det; 5-6: konponduko zirala sei illabetian; 7: bitarteko eurixe; 10-12: aukera klasian — zeuzkala etxian — nai baldiñ banian.

Urrena, Pelloren seigarrena: 3: euri zarpatu baten; 5/6: negu gogorrerako — gauza onak dia; 8: arek eskintzia; 9: bere informia; 10: telia berdia; 13: txatartzat saltzeko ere;

Urrena, Pelloren zazpigarrena: 5: itxura ere badu; 7: Aita Tubalek eskuan; 10: txit oso sendue; 11-12: nok dauka gogue — erosteko aue?; 13: Markiñako ferian.

8'garrena: 5: autortuko deusuet; 7: urte asko daukala.

9'garrena: 1: akabatzero nua; 3: ibillera dana zan; 5-6: Allitik egiñ nuen etxera korrixo; 7-8: etzan aguro pasa — Kamiña-azpuxe; 9: gogotikan zan eurixe; 11: dana zan bustixe; 12: galdu nitzan ixo; 13: orra nik egiñ nuen.

(1922)

BERTSO BERRIYAK

DONSTIYAKO ESTROPADARI JARRIYAK

1922 urteko estropada jokatu ondoren, esames asko sortu zan kosta-errietan. Zergatik ote, bertso auetan garbi asko adierazten du Pellok. Bera aritu zan bertso-paperrak saltzen. Goizean Errenderia'n asi, eta illunabarrean San Pedro'n bukatu zuan, inpreta-azitako paper guziak, milla, salduta. Paper bakarra gelditzen zitzaionean, ondarrutar batek bosteun eskatu zizkion. Zeukan bakarra emanda, oinbeste nai bazuan berak inprentatzeko esan zion. Egin ere, ala egin omen zuan. Bigarren ateraldiko paperrak, Besamotzak saldu zituan.

1/ Milla bederatzireun
eta ogei ta biyan,
gañera Agorreko
illan beatziyan,
Elkano onratzera
Kosta Kantabriyan,
ogei milla persona
nere iritziyan,
estropada ikusten
bazan Donostiyan.

2/ Zazpi txalupa ziran
or apuntatuak,
aurtengo estropadan
jokatutzequak;
Bizkayatik bakarra,
sei Gipuzkuakuak:
Ondarrabi, Pasaya,
bi Donostikuak,
Zumaia ta Santurze
ta Getarikuak.

3/ Plaian juntatu ziran
juraduengana
suertia botzera,
au lenengo lana:
Bizkaiako Santurze
irten da aurrena,
Getariya bigarren,
Pasaya urrena,
Ondarrabiyakua
gero laugarrena.

4/ Juraduak salida
oiei emanikan,
Getariya sartu da
danen aurretikan,
Pasaitarrak an zitun
laister ondotikan,
gero Santurzetarrak,
gogor jogatikan,
Ondarrabitarrakiñ
etzun arronkikan.

- 5/ Oiek allegatuta
 berriz jokatzeko
 iru txalupa zeuden
 elkar probatzeko:
 bi Donostiyakuak
 etzeuden galtzeko,
 Zumaia ere firme
 peleatutzeko,
 al bazan Getariyan
 marka borratzeko.
- 6/ Soterotxon mutillak (1)
 jo dute gogotik,
 bandera jokatzeko
 gelditziagatik:
 arrauna dantzatuta
 sartu da aurretik,
 gero Bizkon kuadrilla (2)
 gaztia ondotik,
 irugarren Zumaia
 oriyen atzetik.
- 7/ Getariyak markarik
 onena zubela,
 Donostiya ta Pasaia
 berdiñ ziradela;
 zeñ banderako berriz
 joka biar zala
 juraduak itzegiñ
 omen zuen ala,
 bañan jendiak diyo
 posible etzala.

(1) Soterotxo, donostiarren patroia zan.

(2) Bizko, Donostia'ko kuadrilla gaztearen pa-
 troia zan.

8/ Berriz jokatu dute
urrengo jayian,
juraduak jarrita
biyak arrayian;
baldiñ bazeuden ere
probatu nayian,
sei segundoz Pasaia
sartu da aurrian,
geiago diralako
aurten arraunian.

9/ Pasaiak biar zuen
bandera jokatu,
aguro aitzakiya
ziyoten plantatu;
Donostiyak galtzia
etzaie gustatu,
tranpetan bedenikan
bandera nai artu,
argatikan zituzten
deskalifikatu.

10/ Au da Donostiarren
protesta guziya:
Pasaitarrak zutela
lagun bat berriya;
bañan sopra zakiten
etzala egiya,
baizik baten izena
alrebes jarriya,
enteratu etzediñ
bere familiya.

11/ Juraduak argatik
ditu kastigatzen,
bañan oinbesteraño
merezi etzuten;
bere burua eztu
askorik edertzen,
mutill gizarajuak
alperrikan lertzen,
ori egitekotan
ez utzi jokatzten.

12/ Arraunian etziran
alperrikan asi,
zenbat lan egin duten
ez al da ekusi?
alare premiyorik
gabe dute utzi,
nekia beste gauzik
ez du irabazi,
Pasaitarrak etzuten
aurten oi merezi.

13/ Irabazi duenai
kendu ganantziya,
ori arrapatzen det
gauza itsusiya;
Arrillagan kuadrilla (3)
onrak mereziya,
bañan egiñ diyote
nai duten guziya:
Pasaia fueratu ta
sartu Donostiya.

(3) Arrillaga, Pasaiko patroia zan; Aita Mafuel
esaten zioten. Estropada ontan, bi Pasaiak batuta jo-
katu ziran.

14/ Danak dira pizkorrak
eta indartsuak,
bañan oriya lanak
gaizki juzgatuak;
zeñek dituen kulpak
daki publikuak,
ez gera inozente
engañatzekuak,
estropada ikusten
izandutakuak.

15/ Berak faltatzen dute
juan dan aspaldiyan,
nonbait oien legiak
ez daude neurriyan;
besterentzako jartzen
saiatu erriyan,
banderak irabazten
dituzte tranpiyan,
kontzientzirik ez da
orlako tokiyan.

16/ Orain dala bi urte
oien aziyua,
Kirikok egiñ zuen (4)
falta aundiyua;
Zumaian balizâ sartu
enbarkaziyua,
bañan oientzat beti
erremediyua,
lotsa gutxikiñ jaso
zuten premiyua.

(4) Kiriko, Donostia'ko patroia zan.

17/ Reglamenteu bat bada
juraduak jarriya,
kanpotarraiz artzeko
ederki neurriya,
etxeakuak libre egiñ
nai duten guztiya;
biar bezela egiñ
balitz justiziya,
banderikan gabe zan
aurten Donostiya.

18/ Saltsa edo aitzakiya
badute betiko,
onra aundirik ez dute
orla irabaziko;
urtero bandera nai
dute Donostiko;
naiz dala Soterotxo,
igual Kiriko,
ez dira Pasaitarren
nagusi jarriko.

19/ Donostiko koskero
arraunlai azkarrak,
kosta guzian uste
dirala bakarrak;
ederki probatuak
dirade indarrak,
saiatuagatikan
Joxe-Maritarrak,
aurten nagusi dira,
gora Pasaitarrak!

20/ Ogei bertso berrikiñ
nere esplikaziyua,
aurten pasatu dana
gauza seriyua:
irabazi duenai
kendu premiyua;
gastuak pagatzeko
zer alibiyua,
bandera biar zuen
tripulaziyua! (5)

(5) Bertso-papera, "Tip. Valverde.—Rentería", Joa-
fin Ganborena Zabala, Errenteria.

Eskuz idatzitako paper batean, aldaketa auek ar-
kitzen ditugu: 3/10: zuten laugarrena; 6/10: fran-
ko apartetik; 7/10: posible ezjala; 18/3-4: fama gal-
duko dute — nere iritziko.

(1923)

SESIYO BAT

Egun batez, Pello Oiartzun'go Larzabal sagardotegian zan. Sagardotegi ori, Errenteria'ko futbol-zelaiaren inguruan zegoan. Erreka ondoan makaldi bat zan. Makaldi ortan askotan egoten ziran ijituak. Egun artan ere ala zeuden. Ta aien artean zer komeri gertatu zan, bertso auetan adierazten digu Pellok:

1/ Ijito mordoska bat
Oyartzungo muan,
ixeri eta zeuden
suaren onduan;
aserratu ziraden
zerbaiten kontuan,
gero altxatu eta
danak sesiyuan.

2/ Gaztia jarri zaio
zarrari jotzeko,
zarra kutxilluakin
gaztai sartzeko;
gogortu ziranian
peleatutzeko,
atsuak karrasika
ez arrimatzeko.

3/ Gaztia igesi eta
zarra atzetikan,
desapiyoka ezin
arrapaturikan;
atsuak aguriai
ezin konturikan, (1)
odolak berotu ta
ezin ozturikan.

4/ Begoñakua zala
gaztetxua ori,
kutxilloik bagenduen
galdezka danori.
“Orlako erremintik
ez eskatu neri,
berari ken akiyok
eskuan dun ori!”

5/ Kutxillua eskuan
zarran korajia,
etzan atrebitutzen
arrimatutzia;
nik ez dakit nola zan
orren kobardia,
estaka aundi batekin
aski zun jotzia.

(1) ezin konturikan = ezin kontu egiñik.

6/ Gaztia ezkutatu zan
gure bistatikan,
zarra oraindik ezin
sosegaturikan;
iñolaz eziñ egiñ
zuten pakerikan,
kutxillorik etzuen
uzten eskutikan.

7/ Kutxillua kendu nai
nola edo ala,
berienda jartzeko
ura bear zutela;
zarrak ezagaturik
aien martingala:
patatak zuritzeko
beste bat bazala.

8/ Atsuak kutxillua
ziyoten eskatzen,
bañan zarrak etziyon
iñori ematen;
azkenerako danak
eldu baitziyoten,
atsuak aguria
errenditu zuten.

9/ Olo bat an zeukaten
nonbaitik ostua,
arbolatik zintzillik
erdi lumatua;
bañan danarentzako
etzuten naikua,
ortikan piztuko zan
oyen jaleua.

10/ Batek ollua ostu,
bestiak patata,
alare merienda
danorentzat falta;
ordu erdi batian
ango zalaparta!
an etzegon besterik:
gosia galanta.

11/ Ez ditu izututzen
gabez ibiltziak,
begiyak erne eta
atzapar luziak;
otzak tentatzen ditu,
geyago gosiak,
oiek ez ditu iltzen
enfermedadiak.

12/ Milla zortzireunian
negu txarra zuten,
otzak eta gosiak
iya il zituzten;
orduan ere zerbait
egin biar zuten,
Txirritako errekan
amona jan zuten.

13/ Lenbizi pensatu zuten
iltzia astua,
bañan geroko falta
aren serbitzua;
amon bat an zeukaten
otzak ebaindua,
ura janez pasatu
zutela negua.

14/ Amonai kendu zizkaten
negurako otzak,
zorroztuak baitzeuden
bestiaren ortzak;
izan ere gosiak
ditu kontu motzak,
etzituen penatu
aren eriyotzak. (2)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1924)

ARTOLA'RI

Artola, bandako atrilleroa zan, atrillak jartzen zituana alegia. Bein batez, lagun baten astoa sokarekin urkatu egin zuan, arekin zerbait egiten ari zala deskuidatuta. Jabeari, pagatuko ziola esaten omen zion arren da arren, bañan arek etzion artu. Txofer ere ikasi zuan. Ikasi berrian, kamioiarekin zijoala, Lezo'ko esnezale baten astoa jo ta bazterrera paretaren kontra botatu zuan. Kontu bi auek aitatuaz, bertso auek jarri zizkion Pellok. Lenengo aldiz entzundakoan, aserretu egin zan Artola ori. Gero, ordea, bera aritzen omen zan bertso auek kantari.

1/ Kontu bat esango det
zuzen edo oker,
kontentu naiz pasatu
ez danian ezer;
Artola jartzen bada
kamioian txofer,
Lezon diran astuak
ilko ditu laister.

2/ Astua jo ta bota,
ogiyak pirrilka,
marmidak aidian ta
neska karraxika;
astuarekin eztu
suerte onika,
ez da eskarmentatzen
lenbizikotika. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1924 inguruan)

MUTIL ZURRUTERO BATI

1/ Batzuetan zuzen dabil
bestietan ziar,
asi ezkeroztikan
zerbait esan biar;
fraille juaten ba aiz
egun ero biyar,
oraiñ ainbeste ardo
ez duk eran biar.

2/ Sinistatu akiak
egiya esanda,
damutzia txarra da
denbora juanda;
egunez zurrutian,
gabian parranda,
ik ez ukek etsiko
komentura juanda.

3/ Aspaldiyan ari nak
i konsejatutzen,
alfer-alferrik dala
zaidak iduritzen;
kostumbre txar oriyek
ez baditut uzten,
aurten andregayikan
ez dek billatutzen. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1925 inguruan)

NESKAZARREN ALDE

Garai artan, 30 bat neskazar bizi omen ziran Errenteria'ko Goiko-kalean, ta mutil-zarrak burlaka ari zitzaizkien beti. Pellok, bertso auek paratu zituan neskazarren alde.

1/ Lengo egun batian
artu det mandatu,
badet zer kontatu,
danok jakin dezaten
nai det publikatu;
mutil gazte batzuai
zaie gogoratu,
neska zarrai kantak
jartzia pensatu,
Goiko-kale orretan
ez dira kontentu.

2/ Neska zar asko dago
Goiko-kalian,
osasun onian,
gogua izan bazuten
ezkonduko zian;
lujurikan ez dute
ibiltzen soñian,
errespeto aundiya
herriz miñgañian,
oiek luzitzen dute
gaziak añian.

3/ Aukera aundiya dago
oraiñ mutil gaztez,
ala nago ustez,
ezagututzen ditut
batzuek ikustez;
pozik ezkonduko ta
kurajerikan ez,
egun argiz ixillik,
bulla aundiyak gabez...
Goiko-kaletik daude
neskazarrak parrez!

4/ Dote eta arrio
ondo moldatuak,
naiz egon zartuak,
ez daude edozeñek
engañatzekuak;
gizona erotzeko
ez daude erotuak,
juiziyuan sartuak
bizimodukuak,
gaur badira gaztiak
eskasagokuak.

5/ Goiko-kale orretan
zenbait mutil gazte
sasoyian dauzte,
asi ogei urtetik
berrogeira arte;
ezkontzeko asmua
ere artzen dute,
bañan libertadia
gustatzen zaiote,
gizarajuak naiko
lana badaukate!

6/ Gaurko eguneko
zenbait amoriyo
bate ez naiz piyo,
naigabe asko dira
oi dala mediyo;
bateri andregaiak
despeida eman diyo,
arri baten gañian
jarri da seriyo,
negar-malkuak ere
atera zaizkiyo..

7/ Beste bat ere bada
Aldunziñ aldian (1)
ez dabil gordian,
maiz xamar ekusten da
Erdiko-kalian;
orri gertatzen zaio
astelen goizian
arropak eziñ jantzi
askotan soñian,
lan-tokira joaten da
galtzak bizkarrian.

(1) Alduziñ, Errenteria'ko kale baten izena da.

8/ Mutil oriyek nolaz
dauden gorrotuan
jakin det lenguan,
obe dute ibilli
bire seguruan;
illunduta etxera
naiz joan beranduan,
ikusitzen dituzte
norbaitek orduan,
sorgiñen bat egoten
zaie esperuan... (2)

(2) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1926)

MUTILL ZARRA, NESKA ZARRA
TENTATZEN

ZABALETA'TAR PELLOK JARRIYAK

Doñua: «Nagusi jauna, auxen da lana...»

Pellok, artean ezkongai zegoala, eta neskar batek, egun batez alkar toriatzen bata besteari esan zizkiotenak, bertso auetan jarri zituan gero arek.

1/ “Dama gaztiak, zuen jaztiak
aberasterañokuan sastriak;
zer baliyo du apaindutziak
eta “nork nai nau” ibiltziak?
gauza geiago
gogoratuta lana dago,
itxura jartzen da errazago.”

2/ "Galai, aditu eta konprenditu,
gure jantziyarekin ez arritu;
nik ere badet zer kontatu,
gaurko mutillai begiratu:
 mozkortzen dira,
eta lurrera zira-bira,
planta txarrian ekusten dira."

3/ "Zure kopeta kontentu ezta,
ori da gixatxar baten izketa;
eman dirazu errespuesta,
bañan ori ezer ere ezta;
 aundiyaguak
nik badauzkat esatekuak,
lotsagarritzko kontu batzuak."

4/ "Au da ikara eta dardara!
Nork ekarri zaitu gaur zu onara?
Pekatarriyak danak gera,
begiratu zazu orrera;
 eztago dudik,
ez ezkutatu zure bururik,
eztago emen iñor santurik."

5/ "Zenbait damatxo dabiltz apantxo
bere nobiyuakin goxo-goxo,
pasiatutzen mantxo-mantxo,
jai eta aste igualtxo;
ekusten dira
zorutzen alkarri begira;
oiek neska-zartuko ez dira."

6/ "Gu tentatzen etorri zera?
Alaxe eman dizugu tankera;
neurriyak ondo artutzera
toki txarrera etorri zera;;
mutill zar danak
besterentzako zer esanak...
lendabizi etxeko lanak." (1)

(1) "Bertsolariya", l'ngo zenb., Errenteria, 1931/
IX/20.

(1927)

BERTSO BERRIYAK

Bein batez, 1927 urtean, ogei ta bi duro eskatu zizkion Pellori, Errenterian bizi zan Itziartar batek, amabost egun barru bueltatuko zizkiola-ta. Itziartxo au ere bertsolaria zan. Pellok eman zizkion, bañan, urte be-tea pasata ere, atzera kobratu gabe zituan.

Pellok, egun batean, onela amenazua egin zion:

—Diru ori ematen ez badidazu, bertsoak jarriko dizkizut!

Besteak broman artu zuan ori:

—Jarritakoan bueltatuko dizut ba!

Ta Pellok jarri egin zizkion. Inprentatu ere bai Makazaga'renean, amar duro pagatuta. Oietako bi bertso-paper artuta, Itziar-ko orrengana joan zan. Taberna batean juntuatu ziran. Pellok paper bat eman zion. Bai besteak ixil-ixilik eta seriyo irakurri ere.

Bukatu zuanean, onela esan zion Pellori pa-
perangatik:

—Onek lagunak izango ditu!

Ta Pellok:

—Eztu lagunik; auxe bakarra!

Ta an bertan eman zion dirua. Pellok, or-
duan, txiki-txiki egin zituan bi paper aiek,
onela esanaz:

—Orain kitto gaituk!

Alkarrengandik partituta, Pello Makaza-
ga'ren inprentara joan zan, esanaz beste pa-
per guztiak puskatzeko, dirua kobratu zua-
la-ta.

Bañan inprentakoak etzuten nunbait pa-
per guziak puskatu, ale bat eldu baita gure
eskuetaraño, Errenteria'ko Joakin Ganbo-
rena Zabala'k emanda. Ontatik kopiatutzen
ditugu onera bertsoak:

Itziartar ura aspaldi illa omen da.

1/ Mutill gazte bat dala mediyo
jartzera nua beritsuak,
zer klasetako arropa zauden
jakiñ dezaten batzuak;
mundu onetan edozer gauza
egiten daki gaiztuak,
ari zerade erakutsitzen
eskola kuriosuak.

- 2/ Egiñ diazun aziyo txarra
idukiko det goguan,
zere lagun bat engañatzeko
zer kapritxua zenduan?
orrelakua ziñanikan zu
asko pentsatzen ez nuan,
oitura txarrak artu dituzu
luzitutzeko munduan.
- 3/ Egun batian etorri ziñan
beartsu baten antzian,
premi aundi bat zenukala ta
duro batzuen eskian;
borondatian eman nizkitzun
lendabiziko itzian,
andik amabost egun baño len
kobratutzeko ustian.
- 4/ Amabost egun oiek pasata
andikan urte betera,
galdetu niyon umiltasunez:
"Aztuta bizi al zera?"
Aitzakiya ta gezurrarekiñ
utzi nau lengo antzera:
"Alper-alperrik juatia da
ez daukanari kentzera."

- 5/ Nik bezelaxe jakingo dezu
zenbat zenidan eskatu,
sobrante asko ez nuen baño
egiñ nizkatzun prestatu;
aiek artuta nere kontura
etzera gaizki jostatu,
nik irabazi bañan aixago
egiñ dituzu gastatu.
- 6/ Kantidadia bastante da ta
burla berriz geiagua,
uste al dezu jaio nitzala
sentidurik gabekua?
besterenetik txurruptzeko
badadukazu gogua,
iduritzen zait ote daukazu
kontzientziya galdua.
- 7/ Txit serbitzala izandua naiz
premiyan dagonentzako,
eskarmentua sartu dirazu
nere denbora guztiko;
egiñ dirazun aziyo ori
ez det burutik utziko,
modu orretan baldiñ bazabiltz
etzera lasai biziko.

8/ Errenteriyen fama ederra
zabaldua da zuretzat,
mesede asko egintakua
etzera izango beintzat;
mingaña legun, biyotza falso
ibilli dezu neretzat,
Jaungoikuaren mandamentuak
ez dira lege orrentzat.

9/ Bere burua famatzen zuen
kontzientziya orrekiñ
asko-askorik ez daukazula
lengo batian det jakiñ;
Errenterira etorri zaitetz
zaku koskor bat dirukiñ,
edo bestela aitortutzera
ez daukazula zerekiñ.

10/ Donostiyara nik egin nizun
azkenerako bisita,
Errenteriyen etzaitudala
berriz ekusko etsita;
zuregatikan notizi onik
batere ez det ikasita,
esan diate nola jua zeran
propina onak utzita.

11/ Donostiya ortan topatu eta
agindu ziran itzetik,
Errenterira etorko zala
urrengo egun beretik;
orduan ere gezurra esanta
farra egin dit atzetik,
bertso berriyak jartzen dizkitzut
sentitzen deran tokitik.

12/ Garai batian lagunak giñan,
gaur ura akordatzen zat,
sentimentuak gorde naita're
geiegi dira batentzat;
zer esanikan ez da faltako
gaizki dabillenarentzat,
besteri egiñ diyona ori
naiko ote luke beretzat?

13/ Errenteriko naturala naiz,
bertan bizitzen naizena,
ez nuen asko pensatzen baño
sutu diazu barrena;
pikaru ori Itziarkua,
ez det esan nai izena,
ni naiz orreri mesede eginta
gaizki gelditu naizena.

14/ Zure izenik ez det esaten
nola ez baiten prezisu,
kristau leialak engañatutzen
nonbait e ikasi dezu;
bertsu oieri bueltak jartzia
iñoiz pentsatzen badezu,
kontzientziyak zer lege ditun
kontu atera beazu.

15/ Amabost bertso jarri dizkitzut
ernatu dedin jendia,
bi urte ontan pazientziyan
ez naz egondu gabia;
neri kentzia akordatu zan
bañan aztu ematia,
orra, kristabak, zertaratu dan
gure lagun izatia. (1)

Rentería, 5 Diciembre 1923

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea,
Joakin Ganborena Zabala, Errenteria.

(1930)

BERTSO BERRIYAK

INAZIO MIRANDAK JARRIAK

Inazio Miranda, Pello Zabaleta'ren koñatua zan. Astigarraga'ko Latxe baserrian bizi zan, Santio-mendiko beko egalean. Egun batez, Markis-basora baso-lanera joan zan morroiarekin. Ta arbol batek azpian artu zuan morroia, baita lertu ta bertan il ere. Inazio Miranda'k gero, naigabe argatik miñez zegoala, pasadizo guzia bertotan jarri zuan, al zezakean bezela, bertsolaria ez baitzan. Jarri ondoren, Pellori ekarri zizkion, eta onek itxuraz jantzi zituan. Onako auek dira:

1/ Milla bederatzireun
ogeit'amarrian,
arkitzen naiz bertso bi
para biarrian;
ez naiz kantari asi
umore onian,
sekulako tristura
daukat barrenian.

2/ Martxuaren lauba zan
goguangarriya,
astiarte iñaute
libertigarriya;
egun orretan pasa
zaigu deskraziya,
ikusi nuenakin
galdu nitzan iya.

3/ Etxetik irten giñan
Markis-baso aldera,
egur bi ebakita
antolatutzera,
etorriko giñala
aguro etxera;
bañan gure asmuak
aldrebes atera.

4/ Lenbiziko arbolakin
gendun deskraziya:
Inazio Isasti
zedukan graziya,
Oyartzunen jaiua
ta bertan aziya,
basuan kendu diyo
arbolak biziya.

5/ Saiatu nitzan gogor
txit bakardadian,
nekatuta etzan nitzan
lurraren gañian;
sentitu nuen zerbait
nere barrenian,
ordutandikan nago
osasun txarrian.

6/ Deskraziya au onela
gertatu zanian,
ojuka asi nitzan
al nuen añian,
Mariano ta Oloki
beste egiyian,
erantzuten zidaten
lagundu nayian.

7/ Otxazuluta aldera
nitzan abiyatu,
Angel ta emaztia
nituen topatu,
zer gertatzen zitzaidan
ziraten galdetu;
“Arbol batek morroia
dit azpiyan artu!”

8/ Jendia juntaturik
asi ateratzen,
aber ote genduen
bizirik salbatzen;
eskuetan ez niyon
pulsurik sentitzen,
ai nere barrena
zenbat zan tristatzen!

9/ Etxera abisatzia
gero nun pensatu,
bi gizon txit leialak
ziran abiyatu;
zer nola pasatu zan
zuten esplikatu,
ai zer konsuelua
egin zuten artu!

10/ Bi gizon juan ziran
juzkaduengana,
or erabaki zuten
egin bear zana;
bueltan amar t'erditan
ziran guregana,
ni ordurako otzak
pasa niñun dana.

11/ Deklaraziyuak ondo
zizkiaten artu,
gero gorputzarekin
giñan abiyatu;
nik ere atzetikan
niyoten segitu,
egun triste arretaz
ez niteke aztu!

12/ Lau illabete t'erdi
ospital batian,
galtza zarran modura,
konpondu artian;
pozik ez det sentitzen
nere barrenian,
nonbait samintasunak
daude indarrian. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1930)

BERTSO BERRIYAK

ZABALETA'TAR PEDROK JARRIYAK

Doñua: «Limosnatxo bat...»

- 1/ Alpargata pare bat nuen
gustatu eta erosi,
merkiak txarrak ziradela ta
artu nituen garesti;
gutziz etxura ona zeukaten
errefuerzo ta guzti,
egun batian jantzi nituen,
bi ordu baño len autsi,
orlako alpargata-egiliak
garrotia du merezi!

- 2/ Kartoizko zola, sedazko tela,
lokarri paperezkuak,
alpargata oiek izan biar dute
azkeneko modakuak;
ni bezelaxe izango dira
geiago engañatuak,
alpargatero gran granujero,
oiek al dira kontuak?
atera dezun iñbentuari
jartzera nua bertsuak.

3/ Iñbento ona atera dezu
sosak irabazitzeko,
alpargata oiek baliyo dute
airian pasiatzeko;
edo bestela txorixo orde
txintxillik edukitzeko,
Txurrunburura ez al da iñor (1)
oiekiñ abiyatuko,
farragarrin bat pasako zaio
bueltan etxera orduko.

4/ Alpargata oiek artu nituen,
jantzi ta azkar puskatu,
ondo pagatu nituen bañon
ez nago oso kontentu;
egin ziraden aziyo txarra
ez ote zaio damutu?
iñuzentziak engañatzia
ez da izango pekatu,
atzetik farrez egondu zala
egingo nuke apostu.

5/ Txarra egin da ona kobratu,
ori da kontzientziya!
ixillik egon niteken bañon
zeñek du pazientziya?
tranpiya edo maleziya da
egundañoako guziya,
alkarri eziñ peaturikan,
au da gure deskraziya,
ortikan datoz miseriya ta
munduko eziñ biziya.

(1) Txurrunburu, Aiako Arriaren tontor nagusia da.

- 6/ Kontzientziyai beiratu gabe
al duen dana arrapa,
miñgana ere lijerua du,
etzaio jartzen karranpa;
naiago nuke ari emanak
oraiñ patrikan banauzka,
pikaru orrek ez du besterik:
maleziya eta tranpa;
gazte-gazterik ikasiya da,
ederki jotzen du arpa!
- 7/ Zenbait personi kontzientziyak
ez diyo egiten trabikan,
pensatzen nago igartu eta
ez ote duen kargikan;
bere buruaz ernegatuta
ez da joango emendikan,
urte batzuek baditu bañan
biziko da oraiñdikan,
orren izenik ez det esaten
ez galtziâtik famikan.
- 8/ Ez det geiegi desondratu nai
alpargata-egillia,
neronek ere kulpak baditut,
nik aitortzen det neria;
eskuan artu nituenian
erreparatu gabia,
naiago nuke baldiñ banauka
aren abillidadia,
orrek badaki triste dagonai
nola jarri omoria!

9/ Gezurra eta inbusteriya
ni engañatu artian,
esaten ziran: "Iraungo dute
iru bat illabetian";
alpargata oiek artu nituen
guztizko borondatian,
pasiatzera joango nitzala
igande arratsaldian,
erdi ankutsik or jarri nitzan
Ugalditxoko parian.

10/ Alpargata oien errematia
nai nuke adierazi,
surtan erreta kiskali nitun
ez ditzan inork ikusi;
uste gabian iya joan ziran
anketatikan igesi,
bein bear eta alaja ederrak
ez genituen erosi,
desio dizut osasunakin
luzaruan ondo bizi!

11/ Alpargatero ta zapatero,
arakiñ eta dendero,
gezur bat esan, bi negar egiñ,
neboziyuan seguro;
kontzientziyan jokutzen diran
an ikusi biar gero,
Jaiñkuak berak esango balit
jakiño nuke aguro,
konfesatuta libre dirala
ez dezatela espero.

12/ Mundu onetan ez da besterik:
diruaren komeriya,
asko duenak geiago nai ta
gutxi duenak premiya;
demoniñuak tentatzen gaitu
aundiya eta txikiya,
sustraitik dator enbidiya ta
alkar eziñ ekusiya,
Jaun Zerukua, izan ezazu
gutaz miserikordiya! (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1931)

MIKELA-ZULOARI
ZABALETA'TAR PELLORENAK

Mikela-zulo esaten zaio Errenteria'n, elizaren atzean Goiko-kaleko sarreran dagoan *tunel*-moduko pasa-lekuari. Bertso-pare au jarri zion Pellok:

1/ Errenteriyen dagon
Mikela-zulua,
beti aize gogorra
dabilen lekua,
neguan otza eta
udaran freskua,
badaki sarrazitzen
patrikan eskua.

2/ Ez dakiyenik bada
non dan toki ori,
erreparatu beza
eliz bazterrari;
zubi txiki bat badu,
tunela diruri,
beti an ibiltzen da
aize gaizto ori. (1)

(1) "Bertsolariya", Ingo. zenb., Errenteria, 1931/
IX/20.

(1931)

GAUZA SAMINGARRIYA
ZABALETA'TAR PELLO'K

1/ Munduko bizi-moduz
gogoratutzian,
negarra irtetzen zait
begiyen ertzian;
jaiotzak eriyotza
daduka aldian,
egun triste batzuek
dauzkagu tartian,
alare ezin konpondu
gerade pakian.

2/ Danak aberastuta
nai genduke bizi,
osasanari kontu,
diruari utzi;
orrek eztu esan nai
mundu ontan gutxi,
txarra etortzen zaigu
naiz ona berexi,
ditxa guziyak eziñ
litezke iritxi.

3/ Au da nik mundu ontan
ekusten detana:
guztiyak naitasuna
diruarengana;
orrek ematen digu
emen naiko lana,
alkar eziñ ekusi,
au da okerrena,
pake gozuan bizi
bear gendukena.

4/ Bista ona izanda
eziñ ekusiya,
ori arrapatzen det
gauza itsusiya;
batek esan lezake
ez dala egiya,
anaitasuna degu
bazterrera utziya,
non bizi geran ere
aztu zaigu iya. (1)

(1) "Bertsolariya", 2'gn. zenb., 1931/IX/27.

(1931)

GURASO ZAR BATEN NEGARRA

ZABALETA'TAR PELLO'K JARRIYAK

Doñua: «Limosnatxo bat...»

- 1/ Guraso zar bat arrimatuta
esaten zitzaidan asi,
alargunduta zer bizi-modu
egin zitzaion iritxi:
“Seme-alabak azi nituen
eta jua zaizkit igesi,
zerbait laguntza orain biar ta
bakardadia nagusi,
nere nekiak ordaintzerikan
ez dute nonbait merezi!

- 2/ Naigabe edo samintasuna
sartua daukat barrura,
ez bizirikan baldin balego
nere emazte kutun ura;
seme-alabak utzi zizkidan
ta bera joan zan zerura,
geroztikako egun laburrak
ez dijuazte gustura,
lenago artzai ta orain nabill
ardi galduen modura.

- 3/ Arrazoia da guraso onak
ori izatia pena,
jakiña dago aurrak azitzen
asko kostako zaiona;
ta gero ezpadu errukirikan
aita eta amarengana,
biyotza dauka gogortuxia
esan liteke aiena,
etorko zaie eguntxoren bat
gogoratuko zaiena.
- 4/ Bi seme eta iru alaba
ez nituen gaizki artu,
ta oraiñ zartu naizen garaian
ez naute nai ezagutu;
nere barrengo garraztasuna
zeñek lezake ba neurtu?
otz-ikara bat sartua daukat
eta eziñ naiz berotu,
besterik eziñ egin nezake:
al detan arte sufritu!
- 5/ Sasoi nuela saiatzen nitzan
azitzera fameliya,
begira oraiñ nola naguen
oiek txokora utziya;
irurogei ta amabost urte
iritxi zaizkit iya-iya,
onez aurrera ez gera gauza
irabazteko ogiya,
“umiak azi, nekiak bizi”
au da esaera egiya.

6/ Ogei ta zortzi urte nauzkala
artu nuen emaztia,
garaia arretan ez nuen uste
oraiñ ontaratutzia;
gure emengo izaera da
laburra eta luzia,
jaiotakuak danak bizi nai,
eztu nai iñork iltzia,
bañan alperrik izango degu
igesi ibillitzia.” (1)

(1) “Bertsolariya”, 6^{gn.} zenb. 1931/X/25.

(1931)

MUTIL ZAR BATERI

ZABALETA' TAR PELLO'K
JARRIYAK

1/ Bertso berri batzuek
bear ditut jarri,
mutil zar batentzako
zerbait tentagarri;
ezkontzeko asmuak
omen ditu sarri,
andregaiaren billa
dabill erriz-erri.

2/ Iñor baldin badago
ezkontzeko zale,
mutill zar ori nor dan
egin zazu galde;
etzera geldituko
senargayik gabe,
eta egingo zera
puska onan jabe.

- 3/ Nobiyo jaun ori da
kosta aldekoa,
Debatikan onara
etorritakua,
langille ona eta
ezkongai bapua,
edozeiñentzako
bazera naikua.
- 4/ Ogei ta amasei urte,
oraindik gaztia,
gorputz ederrekua,
txit balientia;
suertatzen bazaio
gustoko andria,
jaiero pasiatzen
ibilliko dia.
- 5/ Jaiero pasiatu
egualdi onian,
zinera juango dira
denbora txarrian,
andik biyak etxera
iñulabarrian,
ondo biziko dira
alkartasunian.

6/ Neskaxa bat gustatzen
zaizu Errenterin,
benturaz berak ere
naiko du zurekin,
azkar obe diyozu
mandatua egin,
engañatu baño len
besteren batekin.

7/ Lenbizi pentsatzen du
puskak egitia:
oia muelle onakin
ta mesanotxia,
maia marmolezkua
oso dotoria,
beste armariyo bat
espilloz betia.

8/ Ezpazaio gertatzen
andrerik artzia,
puskak pentsatutzen du
irrifan jartzia,
orduan obe dezu
etsiya artzia,
mutill zarran bandera
etxeratutzia. (1)

(1) "Bertsolariya", 7gn. zenb. 1931/XI/1.

(1931)

IJITO ANTZEKO BATI

ZABALETA'TAR PELLO'K JARRIYAK

Ijito bat edo berak ere nungoa zan jakingo etzuan kanpotar atorrante bat, aste-egun batez zer modutan ikusi zuan, bertso aue-tan adierazten digu Pellok:

1/ Lenguan ekusi det
komeri polita,
farrez egondu nitzan
begira jarrita:
ijito antzeko bat
txamarra erantzita,
eziñ altxaturikan
lurrera erorita.

2/ Berdinduxia zegon
jana eta eranez,
alare altxatzeko
indarrik izan ez;
ona idurituta
kargatu zan errez,
gero bidian larri
ezin eramanez.

3/ Noizbait e altxatu da
beltzak ekusita,
txapela ta txamarra
lurrian utzita;
berriz e erori da
makurtzen asita,
zigarro bat erre du
bertan exerita.

4/ Zigarrua erriaz
erderaz kantatu,
kontentu zegon bañan
ezin zan altxatu;
obe zuben ez balitz
oinbeste kargatu,
urrenguan kontuak
aterako ditu.

5/ Berriz ere asi da
altxatu nayian,
lurrian exerita
aspertu danian;
noizbait ere jarri da
bi anken gañian,
etzeguen aserre
zutitu zanian.

6/ Oju eta irrintzi
orren ausardiya,
begiyak txintxilikan,
pauso elbarriya;
irugarren aldiyan
erori zan iya,
hazedukan arrimo
on baten premiya.

7/ Ostatura sartu da
arronka aundiyakin,
txutik ezin egonda
dantzan ziyon ekin;
borroka ibilli da
silla ta maiakin,
laister aserratu da
ostalariyakin.

8/ Ostalariya zegon
bere amurruan,
eta bestiak berriz
zurruta barruan;
ongi esanagatik
gaizki artzen zuan,
arrastaka aterata
utzi du kanpuan. (1)

(1) "Bertsolariya", 10'gn. zenb. 1931/XI/22.

(1932)

ALKAR EZIÑ IKUSIYA

ZABALETA'TAR PELLOK
JARRIYAK

- 1/ Alkar eziñ ekusi
degu iñondikan,
ez derizkiyot danik
gogorragorikan;
ez badegu izaten
anaitasunikan,
iritxi bear zaigu
gauza zuzenikan.
- 2/ Eziñ ekusi ori
zeñek sortu zuan,
Kaiñek Abelena
lenengo izan zuan;
geroztik onuntz zenbat
kalte egin duan
esango dubenikan
ez dago munduan.

3/ Alkar eziñ ekusi,
au gure bizitza!
beñ okertu giñan ta
zuzendutzen gaitza;
akerraren adarrak
bezela gabilta,
zeñentzako da ona
onlako ekaitza?

4/ Alkar eziñ ekusi,
ez al da tristia?
gustatzen etzaigulik
begiyak ixtia;
ondo begiratuta
gaizki ekustia,
orretzek galduko du
gure bizitzia.

5/ Alkar eziñ ekusi
au degun bitarte,
iñorentzat onik ez,
guztiyontzat kalte;
etzaigu gogoratzen
orlakorik bate,
ez gera mudatuko
mundua dan arte.

6/ Alkar eziñ ekusi
eta enbidiya,
geienak badakite
gauz onen berriya;
lasai bizi nai eta
au da alderdiya,
pixti gaiztuen gisa
jarri gera iya.

7/ Alkar eziñ ekusi
degu inbidiyaz,
pizkorrenak jokatzen
dute maleziyaz,
mendekuari kalte
aundiyak egiñaz,
asko ez da egoten
mingañeko miñaz.

8/ Alkar eziñ ekusi
enbidiosua,
maleziz betetako
gezurtiosua,
oietatik ez dator
naitasun gozua,
bajuaren bizitza
da errukitsua. (1)

(1) "Bertsolariya" asterokoa, 29'gn. zenb., 1932/
IV/3.

(1933)

BERTSO BERRIYAK

URALDIARI

- 1/ Bertso berri batzuek
nai ditut atera,
eman al banezake
zerbait aditzera;
Errenderiko txoko
ontan bizi gera,
urak erriya artuta
larri ibilli gera,
orainguan geienak
ikaratu gera.

- 2/ Milla bederatzireun
oi ta amairugarrena,
bolaratxo batian
aztuko ez dana;
urak ondatu digu
Errenderi dena
ain da negargarriya
egin digun lana,
arritzen da erriya
ikusten dubena.

3/ Garagarrillean zan
lendabizikua,
txorakeriyak aztu-
tzeko modukua;
andik lau illabete
berriz urrengua,
egunaren erdiyan
ura ur-soñua!
nik uste nuen zala
azken juiziyua.

4/ Automobill ta arbol,
tranbe ta karruak
utzi ditu desegin
ta purrukatuak;
badirade oietan
personak galduak,
orduko deadarrak
ziran penosuak,
biziya salbatzia
nai zuten gaxuak.

5/ Egin ditu pikardi
izugarritzkuak,
badira pamilliyak
oso ondatuak,
soñerako arropik
gabe geldituak;
urak ibilli dira
altura aundikuak,
utzi ditu arrasto
oroigarritzkuak.

6/ Botika ta drogeri,
denda ta ostatu
askori egin dizka
atiak puskatu;
arrapatu duana
itsasuan sartu,
jabiak gauz askoren
aztarrenik eztu,
au urte batzuetan
ez liteke aztu.

7/ Etxe eta kaliak
taller ta pabrika,
orrek ez du berexi
txiki aundirikan;
danok zatitu gaitu
oso gogotikan,
ez gerade kontentu
bañan alperrikan,
aziyo txarra eginda
joana da emendikan.

8/ Orain ogei bat urte
izan zan lengua,
ai!, ederki aztu du
onek ordukua,
erri dana utzi du
kasikan lur jua;
ez dezagula izan
berriz orlakua,
Jauna, izan zazu gutzaz
errukimentua. (1)

(1) Periodiku-puska batetik; ez dakigu zein egu-
netakoa dan, ezta zein periodiku dan ere.

(1934)

LANGILLIEN ALDE

- 1/ Bertsuak jartzen naiz asi,
nai nuke adierazi
zenbat biar dan ekusi;
mundu ontara zertara jaio
eta zertarako azi?
aundiyak daude nagusi,
txikiya ezin da bizi,
nonbait ez degu merezi!

- 2/ Ez al degu ekusitzen?
nekatzen gera bizitzen,
gutxi zaizkigu kupitzen;
jana ta erana geiegi dago
zokuetan urdindutzen,
gauza alperrik ondatzen,
eta ondo iduritzen,
au etzait neri kabitzen!

- 3/ Egiyak nai ditut esan
barrena deskansa dezân:
len bizi giñan pobrezan
ta orain berriz, lege berriyan,
pozik jango ta ez izan;
negargarrizko bizitzan,
badakit nola gabiltzan;
nonbait ala konbeni zan!

- 4/ Danak agindu nayian,
astian eta jayian,
entxufian usayian;
au egingo ta ura emango
txikiyaz beartutzian;
denbora allegatzian
bizkar-ezurra atzian
berriz ere lengo antzian!
- 5/ Galdu da umildadia,
gañera kristandadia,
kulpa dutenak nor dia?
oraintxe dala ogei bat urte
oroitu izan balia,
okertutzerik jendia
etzuten uste ordia,
oiek gezurrak al dia?
- 6/ Izan ezkerro gogorik
zuzendutzeko asmorik,
bada denbora oraindik;
langilleari lana jarrita
ez erakutsi goserik,
ezta ezkatzen askorik,
bizitzeko aña bederik,
bestela ezta pakerik!

(2/XI/34) (1)

(1) Bertso auek, Pellorenak dira, bañan beraren anai Juanito zanaren paperetan arkitu ditugu, onen letraz idatzita.

(1934 inguruan)

BERTSO BERRIYAK

GOIKO-KALEKO NESKAZARRAK JARRIYAK

Errenteria'ko Goiko Kaleko Txatoneko tabernan, iya gauero, bi mutilzar neskarren kontrako kantak kantari aritzen ziran, neskar asko baitzan kale artan. Ta neskar aiek, ainbeste kantarekin gogaiturik, mutilzarren kontrako bertso batzuk jartzeko eskatu zioten Pellori, bañan berak, neskarzak, jarriak balira bezela. Ta ala jarri zituana. Republika denbora izango zan orduan.

- 1/ Dozen erdi bat bertso
bi galarentzako,
goiko kalia bizi
diran oientzako;
desaidia ta farra
neskarrentzako,
pozik artuko bañan
ez gaude oientzako.

2/ Tabernâ sartu eta
bertsuak kantatzen,
goiko kaleko neska
zarrak desonratzen;
oiek ez uste bañan
aukera sobratzen,
oriyek berriz falta
ta ez dute topatzen.

3/ Emezortzi neskazar
goiko kale ontan,
ez dote ta arrio
gaudela penetan;
kontentu bizi gera
gu estadu ontan,
enbidiz ote dauden
nago errezelotan.

4/ Oiek gure kontura
egin nai dute far,
esanez triste bizi
gerala neskazar;
aukera badaukagu,
nai ezkerro, azkar,
bañan ez degu nai guk
zenbait mutil kaskar.

5/ Goizian etxetikan
ustez irten gizon,
ume biurtzen dira
tabernik bada iñon;
esker txarra igual
egiñagatik on...
orlakua artu bañan
obe du gabe egon!

6/ Desaidez ari arren
oiek gugatikan,
ez daukagu dote ta
arrio faltikan;
aukera badaukagu,
egiya esanikan,
bañan ez degu artu nai
orrelakorikan. (1)

(1) *Rentería* aldizkaria, 20'gn. zenb., VII/1942.

(1935 inguruan)

PRIETO'RI

Bertso-pare au, Prieto'ren itzaldi bat radiotik entzun ondoren jarri zuan Pellok.

- 1/ Egon zaitetze aditzen,
Prieto'kin naiz arritzen,
asi omen da zuritzen;
gañera gogor asi zaizkiyo
euskeraz erakutsitzen...
oi jartzen bada agintzen,
katolikuak sufritzen,
neri ala iduritzen.

- 2/ Kasik nago beldurretan,
dardarizua entrañetan,
esan biar det zer detan:
euskal erriyak ez al gabiltza
azkeneko zezenetan?
toreruak barreretan,
laixter Prieto'n adarretan,
ez gaude esku txarretan! (1)

(1) Pelloren anaiaren paperetan azaldutako paper batetik.

(1938)

TXANTXANGORRIYARI

Doñua: «Ezkondu eta ezkongai...»

Bein batez, Mendiko-Egiluze baserrian zala, sasi motz batean zegoan txantxangorri-kabi bat erakutsi zioten Pellori. Gauza jakina da, kukuak bere arraultza txantxangorriaren kabian egiten duala; are geiago: txantxangorriak kuku-umea azten duan ala ez, begira egoten omen da inguruan, eta, azten ez badu, il egiten omen du txantxangorri gaxoa. Kabi artan ere kuku-umea zegoan, naiko koskortua gañera, kabiari gañez eraginda, ezin kabiturik. Ori ikusirik, bertso auek jarri zizkion Pellok txantxangorriari:

1/ Txori txiki bat lenguan
kalian ikusi nuan,
usai txarra artu nuan;
uda guztiyan ez da ekusten,
azaldutzen da neguan;
edukitzen du goguan
leku onena non duan;
gustatzen zaio txokuan.

- 2/ Txoriy'ori ekustian,
kale ingurura biltzian,
negua degu gañian;
uda guztiya pasatutzen du
mendiyan arbola-pian;
negua datorrenian
ez da galduko birian,
kalera dator aidian.
- 3/ Kalera datorrenian,
lo egiten du gabian
etxeke tellatu-pian;
xomorrarikan billatzen badu
aiek janaz elurtian;
ez du kantatzen goizian
udaberriko antzian,
triste dago biyotzian.
- 4/ Luma grisezko jantziya,
lepo azpiya gorriya,
ez da txori itxusiya;
begi erniak, gorputz tentia,
txit buruzbide argiya;
udaberriko tokiya
gustatzen zaio mendiya,
an egiten du kabiya.

5/ Eldu danian kukua,
orren kabira dijua,
eskatu gabe lekua;
orrek ume bat utzitzen diyo
berari azitzekua;
naiz izan aundiyagua
jartzen diyo jatekua,
ematen diyo naikua.

6/ Kukua asten da aunditzen,
kabiyan ez da kabitzen;
batere ez da arritzen;
egun guztiya gelditu gabe
orrentzat jana billatzen;
bear duena ekartzen
etzaio gutxi kostatzen,
alare ez da kejatzen.

7/ Mendiyan dabillenan,
norbait ikusten dunian,
jarriko zaio aurrian;
pik pik egiñez lagundutzen du
bide puskatxo batian,
gutzizko borondatian,
xaltoka aldamenian,
bizi dala esan nayian.

8/ Txantxangorri du izena,
txoriyikan argiyena
eta kariñosuena;
besten umiak azitzeko're
biyotzik kupituena;
orrek esan nai duena,
erakusten digubena,
egiñ bear gendukena.

9/ Txantxangorriyan herririk
iñor bada ez dakinik,
erakutsiko diyot nik;
mendiyan iñoiz sentitzen badu
pasadizuan personik,
ez pensa izutzen danik
eta utziko duenik
agur egiñ gabetanik.

10/ Txori orren ezaguera,
konturatutzen al gera?
begira zagun onera;
nonbait biyotzat esaten diyo:
“zuazi lagundutzer”,
aterako da aurrera,
naitasuna erakustera...
gu orlakuak ez gera!

11/ Txoriyak erakusten du,
guk ikasiko bagendu,
ez da oraiñdik berandu;
alkartasuna beziñ oberik
eziñ liteke azaldu,
biyotz gogorrek biguñdu,
lagun urkuai lagundu...
ori egingo bagendu!

12/ Au da munduko tristeza:
alkar ekusi nai eza,
ortikan dator pobreza;
gure emengo oker-bide au
ez da zuzentzen erreza;
urte gutxiko bizitza,
oroitu gabe gabiltza
birian degun ekaitza. (1)

(1) Lenengo, Pelloren eskuz-idatzietatik.

Gero, "Gráf. Gómez. — Rentería" moldiztegian in-
prentatutako bertso-paper batetik. Paper au, Pellok
berak emana degu.

(1941)

BERTSO BERRIYAK

San Antonio egun bat zan. Pello Txatoneko tabernan zegoan. Bere lagun batek, Goiko-kaleko Juan Joxek, onela esan zion: "Aizak: alako tokitako zezena ikusi bear diagu!" "Goazemak, ba!" Ala, joan ziran, eta eldu ziranean, ala esan zion Juan Joxek Pellori: "Emen ziok zezena! Erne orain, e? Erne!" Pellok, badaezpada ere, ate-zirrikituetatik begiratu zuan. Ta, zer ikusi? Bei plako-plako bat, lasto-pardo bat aurrean zuala, ta balantzaka, zutik ezin egon zalako. Laguna parre-algaraz asi zan. Parrari utzi zionean, berriz, onela esan zion Pellori: "Bertsoak jarri biaizkak!" Ta onako auek jarri zizkion:

1/ San Antonio egunian
bei koskor bateri
arrituta begira
egondu naiz ni;
egun onak joan zaizka
miserabliari,
ezur tartetik ez du
larrurik ageri;
tripatikan eri,
burua erori,
gaizki dago ori;
bost kilo aragi
ez dituala apostu
nai duenari.

2/ Joan Jose omen degu
bei orren jabia,
errukirik ez duen
ajolgabia;
etzaio akordatu
jaten ematia,
naikua egiten du
zutik egotia;
ezurra sobria,
mamiya gordia,
bizitza pobria,
joan zaio kordia...
ez naikua jan balu
arto alia.

3/ Gaixuak izandu du
alimentu txarra,
argatik artu diyo
gaitzak ifidarra;
begiyak triste dauzka,
estadu iarra,
ai zer kostillak dauzkan
jotzeko gitarra!
tripetan dardarra,
ez ori bakarra,
eziñ jan belarra,
pentsuan bearra...
orain arte egin du
naiko negarra!

4/ Bei gaixu orrek ez du
ezenen kulpika,
jan gabe egondua
beste gauzika;
okulluan aztuta
gosiak antzika,
iñork aditu al du
orlako gauzika?
belaunak killika,
eziñ joan korrika,
orduko botika
lastua utsika...
sekulan ez du pasa
egun onika!

5/ Orain eraman dute
leku aldatzera,
pixka bat gizenduta
etxuratzera;
kolpe aundirik ez du
tirako atzera,
estropozo gutxikiñ
lijero lurrera;
ai, orren sarrera
muturraz aurrera,
ez jua aldera
toriatutzera...
ain da bildurgarriya
daukan tankera!

6/ Kaletik baserrira
bi lagun arte,
alimali gaixua
eraman dute;
etzuen talenturik
joateko aparte,
Egiluxen lotuta
utzi omen dute;
iñdartu bitarte
mantentzen badute,
jarriko da fuerte,
ala esan dute...
lenagotikan iltzen
ezpazaiote!

7/ Batek sokatik tira,
bestia bultzaka,
ala ere pausuak
oso banaka;
pixka bat mugitzeko
asten ziran joka,
gaixua ezin jua
gosiak kojoka;
begitik malkoka,
burua makurka,
asi da agurka,
noiznai muturka...
Juan Josek alimali
ederra dauka!

8/ Bosteun pezeta omen da
orren baliyua,
saldu duenentzako
neboziyua;
erostunarentzako
zer alibiyua
aixa pagatutzeko
kontribuziyua!
ez dauka iyua
estimaziyua,
orren eriyua
gauza seriyua...
gaxuak merezi du
ausiliyua!

9/ Sorora bota zuten
freskatzen ote zan,
makurtzen asi eta
eroritzen zan;
isatsa ta burua
zituen balantzan,
esperantza bazuten
jaten asi bazan;
beia ori zer zan
ez liteke esan,
alako pobrezan
onuntz azaldu zan...
obe zuen mundura
jaio ezpazan!

10/ Bei gaixu ori dago
guztiz errukarri,
pasa ditu amaika
gose egarri;
begiratu akikyok,
Juan Jose, orreri,
mami-tronzo aundirik
etzaio ageri;
ezurra ugari,
galduko da sarri
amar bertso berri
Pellok dizka jarri,
jendiak kanta ditzan
oroipengarri. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1942 inguruan)

KATU BATEN ISTORIYA

Doñua: «Ezkondu eta ezkongai...»

Etxe batean katu bat zuten, bañan, etxe guzia zikintzen zuan aitzekian, iltzea pen-satu zuten. Borrerotza lau lagunek artu zu-ten bere gain, gero katuarekin merienda goxo bat egiteko asmoz noski. Ala, zakuan ere sartu zuten, bañan katuak iges egin zien... Komeri ori kontatzen digu Pellok bertso auetan.

Andik puxka batera, katua etxera etorri-zan berriro. Ez jakin gizagajoak etxekoak etsai zituala! Ta, leen bezela, zakuan sartu zuten, eta aldi ontan etzuan iges egiterik izan...

1/ Katu baten istoriya
gaur naiz esaten asiya,
oraiñ pasatu berriya;
zaku batian preso sartuta
aren orduko larriya!
galdu baño len biziya,
erne zedukan begiya,
egiñ du nai dun guziya.

2/ Lau borrarorik obenak,
eskojituta zeudenak,
eritu ditu geienak;
urte batzuek baditu bañan
ez dauzka jeniyo onak,
ez du izutzen gizonak,
aurrian jartzen zaionak,
artu zituzten zarponak.

3/ Beltza dauka koloria,
amar urte edadia,
sasoikua ta fuertia;
borreru obek pensatu zuten
jota lepua kentzia,
tira baño len kolpia
purrukatu du kattia,
kostako zaie jatia.

4/ Iges egin du zakutik,
lau borraroren tartetik,
libratu da oraiñgotik;
berialaxen asi ziraden
arrapatzeko atzetik,
saltatutzen zan gogotik,
goiko tetxura lurretik,
ateria zan bromatik.

5/ Katu beltz orren muturra
ez da domatzen samurra,
usai oneko sudurra;
egun orretan igerri ziyon
arentzat zala egurra,
iltzeko zuen bildurra,
pasa baño len makurra
salbatu zuen txintxurra.

6/ Andik bost bat egunera
katu beltz ori etxera
lengo paraje txarrera;
zer moduetan tratatu zuten
egiñ ziyoten galdera;
“Egiñaletan txarrera,
ausi ezpanu barrera
gaur ez nitzan ni onera.” (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1942)

SANTIYO-MENDIN

1942 urtea zan. Pello ta bere lau lagun Astigarraga'ko Santiyo-mendira joan ziran; baita an goien amaiketako egin ere. Amaiketako orren berri ematen digu Pellok bertso auetan:

1/ Mendi-kaskuan ermitatxo bat
deitzen diyogu Santiyo,
egun orretan meza entzutera
jende asko giñan iyo;
gure zaitzalle justuengana
izan zagun amoriyo,
Jesukristoren Apostolua
izandu zala mediyo.

2/ Ogei ta amar urte ziraden
lenago izan nitzala,
gaur bañon sasoi obiarekin
gazte-gaztia nitzala;
ta aurten herriz bisitatu det
promes eginta bezela,
Aita Santiyok bere eskutik
arren eduki gaitzala.

- 3/ **Aspalditxuan eniyon egin**
Santiyagori bisita,
urte batzuek joan zaizkit baña
enaiz egondu antzita;
nere biyotza pozkirotu zan
jende asko ikusita,
or egin degu bost lagunek guk
amaiketako polita.
- 4/ **Bost lagun giñan ermita orretan**
alkarrengana bilduak,
esan biaitut egun orretan
pasa zaizkigun kontuak:
beñere ez dit kalterik egin
neri amaiketakuak,
Santiyo-mendin kentzen dituzte
salda artzeko goguak.
- 5/ **Konzientziyak ez dit agintzen**
ixillikan egotia,
guk artutako salda orrekin
atera zendun portia;
urte abetan ez dabilkigu
oso estadu torpia,
berriz e plako erongo gera,
garesti dago koipia.

6/ Salda pixka bat artu genduen,
ez zopa eta ez ardo,
ostalariya maia serbitzen
ondo ikasiya dago;
launa pezeta kobratu digu
bañan kontentu ez nago...
nere sosikan eztu izango
juaten banaiz geiago.

7/ Aldez aurretik aprobetxatu
ondo izateko gerora,
Aita Santiyok artu zaitzala
zeruan bere ondora;
barkaziyua ematen dizut
pasa baño len denbora,
projimuari arrapatzia
etzait gustatu, señora. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1942)

BI ATSOREN ESKU-DANTZA

ZABALETA PELLOK

Bein batez, Pellok, Astigarraga'ko sagardotegi batean zala, bulla nabaitu zuan kanpoan. Atera zan korrika eta bi atso alkarrekin armonian ikusi zituan. Aiekgana, apartatzearren, joan zan, bañan ixil-ixilik eta laister asko atzera etorri ere bai, atso biak berari eraso baitzioten... Gertaera onen berri ematen digu Pellok bertso auetan.

Esku-dantza esan oi zaio Errenteri aldean, bestetan dantza-soka edo aureskua esaten zaionari.

1/ Milla bederatzireun
berrogei ta biyan
eseri eta negon
sagardoteriyan;
bi atso nabaitu
ditut armoniyan,
beriala jarri ziran
jeniyo biziyan.

2/ Olo bat baratzara
sartutziagatik
bi atso aserretu
dirade gogotik;
batek illetik eldu,
bestiak lepotik,
biyetatikan etzan
karraxiyen faltik.

3/ Korrika juan nitzan
apartatutzera,
iñon al baziteken
pakia jartzera;
biyok gogortu zaizkit
neroni eltzera,
ederrak adituta
geldituak gera.

4/ Orduko diadarrak
eta erreguak,
bate etzaizkit gustatu
oien errezuak;
oien mutur-ezurak
etzauden gozuak,
katuak bezelaxe
atzamarkatuak.

5/ Gero jua zaizkate
iru'ro lau gizon, (1)
alare geldirika
eziñ zira egon;
nonbait oien odola
irakiten zega,
alako esku-dantzika
ez da ikusi iñon.

6/ Odola zeriyoten
biyok arpegitik,
alegiñak egiñak
etza oien paltik;
txanda artutzeko're
etzeukaten betik,
ura za iskanbilla
ollo batengatik.

7/ Ortaraño jartzeko
birerik etzuten,
pentsatzen det lendika
zerbait ote zuten;
olluaren aztarkak
astindu zituzten,
piska bat egon banitz
itoko niñuten.

(1) iru'ro = iru edo.

8/ Urrengo egunian
zer arpegi zuten,
urrutitik begira
egon natzaioten;
ez dakit arrazoirik
erabaki zuten,
bañan azal geienak
arrotu zituzten.

9/ Atsu oiek nor diran
ez nua esatera,
etorko bai lirake
kargu artutzera;
oien kopetak ez du
egiño atzera,
ez nago herriz joanik
apartatutzera.

10/ Orra bertsuak Pellok
atsu oientzako,
egun ortan bazuten
biyok lanik asko,
etzegon egiterik
oieri palako,
zer diraden badakit
beste baterako. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1942)

BERTSO BERRIYAK

**ZABALETA'TAR PEDRO'K
JARRIYAK**

1/ Milla bederatzi eun
berrogei ta biyan,
nere iritziyan,
bertso bi paratzera
orain naiz abiyen;
beti pentsamentu bat
daukat memoriyan,
noiz jarriko geraden
Jaunaren graziyan;
nik errezatutzen det
al dedan guziyan.

2/ Amar mandamentuak
dira guretzako,
Jainkua amatzeko,
alderdi danetara
begiratutzeko,
eta geren animaz
akordatutzeko,
zeru-lurraren Aita
maite izateko,
atiak irikita
zeruan sartzeko.

3/ Geren buruak ainbat
lagun projimuan
naitasun gozuan,
kontzientzi fiñakiñ
eduki kontuan;
uts egiten dubena
dago pekatuan,
mandamentu au dago
leku sagraduan,
ezin sartu liteke
mantxarik zeruan.

4/ Lagun projimuaren
eziñ ikusiya,
gauza itsusiya,
anaitasuna degu
bartzarrera utziya;
mundu guziyak daki
zer dan enbidiya,
enfermedade onek
galdu gaitu iya,
eta eziñ sendatu,
au da miseriya!

5/ Pentsatuko bagendu
lagun projimuan,
bear dan moduan,
ez giñake ibilliko
onela munduan,
alkarren naitasunik
nola ez daguan,
kontzientziya dago
iya-iya galduan;
emen sufritzen degu
uda ta neguan.

6/ Pobriaren bizitza
da penagarriya,
ez al da egiya?
alderdi onek badu
konpontzen premiya;
sokorrituko badu
aundiyak txikiya,
fameliyan izango
genduke ogiya;
bañan nik ekusten det
alrebes guziya.

7/ Begiratzen badegu
gaur bizi-modura,
bear dan lekura,
miseriya azaltzen da
gure ingurura;
aberatsak jaten du
pobrien kontura,
ala ere badute
milla errenkura;
amaika sufritzeko
sortuak mundura.

8/ Oraindikan badaukat
zerbait esateko,
adierazteko,
mundura jaio giñan
asko sufritzeko;
txikiyak egiten du
aundiyarentzako,
alare errukirik
ez da guretzako;
penarik aundiyena
au da neretzako.

9/ Danak jaiotzen gera
larru gorririkan,
ez dago dudikan,
iñork ez du ekartzen
beste erroparikan;
aberats eta pobre
berdiñ izanikan,
Jaungoikuak ez digu
eman lujurikan;
ark eztu erakusten
aunditasunikan.

10/ Jaungoikuak jarriyak
lege ondraduak,
bizi modukuak,
alkar anparatzeko
lagun projimuak;
gero sufritu gabe
anima gaxuak,
izan ditzagun biyotz
beraxiaguak;
ori agintzen digu
guziyon Maisuak.

11/ Enbidiyak baditu
amaika txarkeri,
ez al da ageri?
ekusi nai dubenak
bistan dago ori;
dubenak eman nai ez,
ez dubena larri,
kalterik aundiyenak
beti bajuari,
pobriak ekusten du
amaika komeri.

12/ Ogei ta sei urte ontan
oinbeste desgrazi,
gabiltza itxusi,
mundu triste onetan
eziñ gera bizi;
ez dakiyenik bada
nai det erakutsi:
sagua ere joaten da
katuan igasi...
animalitan ere
aundiya nagusi.

13/ Gezurra eta saltsa,
tranpiya nagusi,
kontzientzi gutxi,
modo onetan eziñ
leike ondo bizi;
enbidiya daukagu
jarriya nagusi,
bizi-modua berriz
gatza bezin gazi;
onenbeste kastigu
al degu merezi?

14/ Ez degu asko eskatzen:
bizitzeko ainbat jan,
egin dezagun lan,
bestela akabo gera
oraingo bolaran;
jenero danetatik
len oparo bazan,
ala ere orduan
iñor konten etzan...
egoten naiz Jainkuan
kastigu ote dan.

15/ Berrogei ta bost urte
baditut munduan,
askoren moduan,
ez naiz aberastutzen
berialakuan;
interesik ez daukat,
pobreza eskuan,
onela bizi gera
denbora askuan;
ez det gezurrik esan
oraingo bertsuau.

16/ Orra amasei bertso
Errenderiyatik,
nere sor-lekutik,
ixillik ezin egon
nitzan ezergatik;
danak juañ biagu
mundu onetatik,
Jauna, libra gaitzatzu
gaitz guzietatik...
ori eskatzen dizut
biyotzan erditik. (1)

(1) Bertso-papera: "Imp. Macazaga. — Rentería", Pello Zabaleta'k berak emana.

"Euskal Erriko Kanta Zarra, Tomo III", Errenteria'ko Makazaga'k argitaratua. Ontan lau bertso falta dira: 2, 3, 4 ta 5'garrena.

(1946)

ORAINGO ERRENTERIARI

PELLO ZABALETAK JARRIAK

1/ Orain berrogei urte
gure Errenteri
kasik esan lezake
etzala ageri;
urtetikan urtera
aunditzen da ari,
ordutikan onera
Parisa diruri.

2/ Au da Errenteriya
orduan etzana,
gaur ate geienetan
denda edo taberna;
nonai sartu liteke
kanpotik barrena,
badago nun gastatu
irabazten dena.

3/ Jendia eldu zaigu
urrutitalkan,
ez da iñor juaten
etortzen danikan;
bost aldiz aundiyago
egiñagalkan,
guk emen ez daukagu
txoko bat utsikan.

4/ Nunbait e kariñua
daukate gugana,
bertan gelditutzen da
etorritzen dana;
taller eta fabrika,
denda edo taberna,
emen billatzen dute
berak nai dutena.

5/ Mundu triste onetan
jaio giñadenak
emen pasa biaiugu
pozak eta penak;
obeto izan nai du
gaizki bizi danak,
au konprendituko du
tontua ez danak.

6/ Orain berrogei urte
danen lagun nintzen,
gaur berriz kasik ez det
iñor ezagutzen;
askotan egoten naiz
gauz ori pensatzen:
orduko umorerik
ez det sentitutzen.

7/ Garai aietan emen
nituan lagunak,
asko dira mundutik
bestera juanak;
akordatutzen zaizkit
orduko egunak,
aitutzen ari zaizkit
lengo ezagunak.

8/ Notiziyak baditut
Amerikatikan,
euskaldun asko bai da
joana emendikan;
lur ontaz oroitutzen
dira oraindikan;
nunbait e bizi biar,
ez da besterikan.

9/ Euskaldun asko juañ zan
urte batzuetan,
obeto izateko
pensamentuetan;
oien seme alabak
bizi diranetan,
ezagutu litezke
apelliduetan.

10/ Pena bat sentitzen det
nere biotzian,
nere algun ziranaz
akordatutzian;
lur maite onetatik
ara juañ zian,
aita ta ama utzirik
negarrez etxian.

11/ Agur amerikano
Euskalerrikuak,
emendik juañ ziñaten
gazte sasoikuak;
zuen bakante oiek
daude orñituak,
kanpotikan etorri
zaizkigu naikuak.

12/ Orra amabi bertso
paperian bete,
ez nuan deskantsurik
au egin bitarte;
ustez ez diot egin
nik iñori kalte,
itzik utsegin badet
barka nazazute. (1)

(1) Bertso-papera, "Gráf. Gómez. — Rentería",
Pellok berak emana.

1948

“EMAKUMIAI...”

Doñua: «Limosnatxo bat...»

Bertso pare au, elizan aitor-lekutik ondo-
-ondoan jartzen diran emakumeentzat jarri
zuan Pellok:

1/ Emakumiai esan biayet
merezi duten guziya,
elizan duten kostunbre txar bat
ez dute gustagarriya;
konfesatzeko izaten dute
berebiziko larriya,
gizasemien oñetaraño
arrimura etorriya,
edukaziyo txikiya dauka
ta atrebentzi aundiya.

2/ Amaika bider itzegin zaie
bañan alper-alperrikan,
dudarik gabe au aditzeko
ez dute belarririkan;
aitor-lekuan jartzen dirade
gutziz arrimaturikan,
neronek esan izandu diyet
apartatzeko andikan,
munduan ez da jenero ori
domatuko duenikan. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1949)

“ZURE BERTSUEN BUELTAK”

Mutil bat gaitz txar batekin zegoan. Andregaiak karta bat bialdu zion. Mutillak, berriz, erantzuna bertsoan egin zion. Orduan neskatxak Pellogana jo zuan, ordañetan bere izenean bertso batzuk jartzeko eskean. Onako auek jarri zituan:

1/ Zure bertsoen bueltak

ematen naiz asi,
ez izanagatikan
zuk aiñbeste grazi;
badakit zeradela
lan ontan nagusi,
umore txarrekua
etzerade bizi.

2/ Erregutzen diyozu

Ama Birjiñari,
milagrotxo bat egiñ
al baleza zuri;
neronek ere badet
desiyua ori,
argatik bialtzen det
oinbeste erregali.

- 3/ Liburu eta pastel,
mizpira ta erari,
al dana bialdutzen
saiatutzen naiz ni;
azkar sendatutzeko
zuk dezun miñ ori,
errezatuko diyot
Aita San Joseri.
- 4/ Jose, artu dituzu
zuk erregaliyak,
borondate onakin,
dira bialiyak;
irakurri nituen
zure notiziyak,
nere kartaren bueltak
kantuaz jarriyak.
- 5/ Zuk ere badaukazu
zerbait naitasuna,
sagardo eta baba,
naiko babarruna
agiñdu dizkiazu
emango nazuna,
Jangoikuak dizula,
arren, osasuna.

6/ Gustatzen zait ollua,
igual ollaskua,
ortan ere egin nai
dirazu gustua;
suertatutzen bazait
alako kasua,
nik bialiko dizut
etxera abisua.

7/ Zure anaiarekin
dedala tratua,
etzaitezela egon
gaizki pensatua;
nik ikusi nai zaitut
askar sendatua,
nere biyotza dago
zutaz penatua.

8/ Ogei ta bi urte da
zure edadia,
neskatxak toriatzen
iztun dotoria;
oraiñdikan artuko
dezu zuk andria,
nere iñbiriyarik
batere gabia.

9/ Arrebak eskribitu,
anaiak kantatu,
nere bertsuak onla
dituzte moldatu;
oien errespuestik
nik ezin asmatu,
gau batez ametsetan
zaizkit bururatu.

10/ Orain adios, Jose,
naitasun gozuan,
zutaz akordatuta
bizi naiz munduan;
sendatu eta jartzen
zeraden orduan,
Parisa joan biagu
areoplanuan. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1950)

BERTSO BERRIYAK
ZABALETA'TAR PELLO'K
JARRIYAK

ZER GERAN

Doñua: «Limosnatxo bat...»

- 1/ Errenteriyen bururatu zait
bertso batzuek jartzia,
ekusten dedan illuntasun bat
danai adieraztia:
egun goibel bat jua orduko
birian degu bestia,
batek eztaki nondik datorren
onelako ekaiztia,
batek bestia ezin ekusi,
au izaiera tristia!
- 2/ Egun batian jai gñan ta
ill bear beste batian,
ordu beteko segurantzarik
ez dago gure artian;
gazterik ez du iñork jua nai,
eskaporik ez zartzian,
emen gabiltza mundu guziya
baliyo degun ustian,
geientxuenak umiltzen gera
goiko Artzaiak deitzian.

- 3/ **Biyotz gogorra daukagu eta**
iñolaz eziñ bigundu,
lagun urkuak bata bestiai
ez diyogu nai lagundu;
mundu onetan jaiotakuak
guziyak bizi nai degu,
gure emengo zuzen-biria
enbidiyak okertzen du,
Kain zanaren griña gaiztuak
oraindik segitutzen du.
- 4/ **Bost milla eta bederatzireun**
berrogei ta amar urte,
mundu zabal au egin zanetik
da oraindaño bitarte;
Adan ta Eba alkartu ziran
lenengo senar-emazte,
oien semiak **Kain da Abel**
etzutenak alkar maite,
Kain gaiztua etzan lasaitu
Abel prestua ill arte.
- 5/ **Kain da Abel anaiak ziran,**
Adan da Ebaren semiak,
mundura ondo sortuagatik
izatez berdiñ gabiak;
eztu baliyo txarra izan da
ona dala esatiak,
Kain gaiztuak zabaldu zizkan
enbidiyari atiak...
gaur zeñek esan geroztik onuntz
egiñ dizkigun kaltiak!

6/ Enbidiya da gure artian
daukagun gauzik txarrena,
nik esan biar baldin banuke
miñgarriyik aundiyena;
makiñatxo bat moduetara
kalte egiten duena,
ez, kunplituko baldin bagendu
Jesukristoren ordena...
anaiak elkar ezin ekusi
onek ematen du pena!

7/ Kain zanaren sustraitik dator
munduko oker guziya,
ez ote geran zuzenduko're
kasik artu det etsiya;
iya sei milla urtez ondotik
guk dabilkigun naskiya!
gerra edo guda giza-iltzi au
ez da oraintxen asiya...
Zeruko Aita, eman zaiguzu
pake santuko graziya.

8/ Bi belar gaiztok mundu onetan
daukate indar aundiya,
arkaitz gañean zabaldua're
galduko eztan aziya:
alde batetik dirua da ta
bestetikan inbidiya,
biyon artian mugitzen dute
geldirik dagon guztiya,
makiña bati kendu diyote
osasuna ta biziya!

- 9/ Nondikan eta nola gabiltzan
nai nuke adierazi,
iñork azpiyan ez du egon nai,
danak gañian nagusi;
lagun urkua ondo dagolik
naiago gaizki ekusi,
alkar maitatzen ez dakigunak
pobriak gera lenbizi...
Jesukristoren legietatik
toki onera guazi!
- 10/ Iñorengatik gaizki esaten
aiñ degu mingaiñ azkarra,
onelakuak asko gerade,
ez da ikusten bakarra;
gaitz klasi onek arrapatzen du
gaztia ainbeste zarra,
belar gaiztuak azkar artzen du
zañetatikan indarra,
badadukagu kontzientziyai
erreparatu bearra.
- 11/ Etxeko lanak ezin eginda
asko asten da kanpuan,
beriak baño errexaguak
bestiak diralakuan;
ezin kabitu izaten gera
bakoitza bere lekuan,
ni engañatzen ezpaldin banaiz
geienak gaude zepuan,
obeto bizi biar genduke
guk alkarren anparuan.

- 12/ Asko duenak eztu eman nai,
ez duenak eziñ eman,
iñolaz eziñ konpondu gera
bata bestiakin teman;
indar gutxiko gorputzak ezin
karga aundirik eraman,
nik ez det uste nere bertsuak
bire okerrik daraman,
orrela bizi bear badegu
izango degu naiko lan.
- 13/ Danak ez ditut oraiñ esan nai,
gorde nai ditut batzuak,
nere gorputza dardarratzen du
uste gabeko sustuak;
Jesukristok e etzitun egiñ
mundu ontako gustuak,
jarri nai arren lege ederrak
umillak eta justuak,
orduan ere izandu ziran
arentzat areriyuak.
- 14/ Nai izan arren nere mingaña
eziñ det ixillerazi,
dudarik gabe garraztasunak
nai ditu adierazi;
gauza guziya garesti dago,
merkerik ezin erosi,
zori txar batez jarri zitzaigun
estraperlua nagusi,
orrek agintzen duan artian
beartsua nola bizi?

- 15/ Estraperlua dala mediyo
gazitu zaigu bizitza,
urte abetan ikasten degu
nondik datorren ekaitza;
atiak aixa itxitzen ditu
eskuan daukanak giltza,
projimuari arrapatuaz
kukurrukuka dabilta,
gure emengo izaiera da
penosua ta murrirtza.
- 16/ Ixil tratuba jarriya dago
bañan ez dabil gordian,
bista askuan ekusten degu
gabiltzan leku danian;
beste batzuek oien ondotik
arrapatzeko sarian,
persegitutzen dituzte bañan
alper-alperrik ordian,
ortik aurrera esango nuke
banego gaita onian.
- 17/ Nola ekaitz bat eldu danian
aserratzen dan lañua,
lendabiziko tximist-argiya
ta gero trumoi-soñua;
era berian gure artian
dago ezin konpondua,
beti pentsatzen nondikan egiñ
batak bestiai dañua...
mundu ontako etsaiak dira
inbidiya ta dirua.

18/ Zenbait dabilta ezin gastatuz
biziyo txarrez betiak,
beartsuaren bizi-modua
iñoiz oroitu gabiak;
egilliaren izerditikan
ondo bizitu zaliak,
gureztat dira soka-muturrak,
oientzat libertadiak...
orrelakorik ez du agintzen
Jesukristoren legiak.

19/ Zeruko Aita, zuzen itzazu
munduko oker guziyak,
gerra edo guda besterik eztu
alkar ezin ikusiyak;
bonba atomika armatu dute
aixa kentzeko biziya,
entzun dedanez, desegiñ edo
kiskaltzen ditu erriyak...
orra zertara ekarri gaitun
gizonen jakinduriyak!

20/ Gaizki eginta libre gerala
uste izanagatikan,
beste ataka zorrotz estubak
badauzkagu oraindikan;
azken orduko asnas tristiak
ez du konsuelorikan,
danak utzita jua biagu,
ortan ez dago dudikan...
an ez da egingo emen bezela
gezurrezko paperikan!

- 21/ Demoniñua batian eta
demoniñua bestetan,
demoniñuak ipintzen gaitu
demoniñozko biretan;
demoniñua iges egin nai
ta demoniñuak bertan,
demoniñuak buruan eta
demoniñuak oñetan...
demoniñua gaiendu zaigu
mundu demoniñu ontan.
- 22/ Arri aundi bat txintxilik dago
Jaunaren eskutatikan,
gau eta egun ari dirade
soka ezin mozturikan;
zenbat denbora pasako duten
ez dakigu oraindikan,
orro galanta ekarriko du
abiyatzian andikan,
mundu onetan ez du izango
ezertxok eskaporikan.
- 23/ Arri aundiy'oi ikusten badet
ni bizirikan naizela,
negar-malkuak irtengo zaizkit
aurtxo bateri bezela;
bildurgarriya izango baita
egingo duen itzala,
mundu guztiya zanpatuko du
izanagatik zabala...
gure animak arren Jainkuak
beregianatu ditzala!

24/ Zabal ainbeste loriya dauka
goitik eldu dan arriyak,
danak azpiyan artuko ditu
izkiñak eta erdiyak;
ondo pentsatzen jarri ezkeru
gaude errukalgarriyak,
apurtu eta utziko ditu
naziyo eta erriyak...
onek pakian jarriko ditu
emengo gerra guziyak!

25/ Zerua, lurra, eguzki, illargi,
izarrak eta lañuak,
egunez argi, gabez illundu,
udarak eta neguak;
xuxen dabilta okertu gabe,
bakoitzak bire justuak,
oiek ez dira munduetako
gizonak egindakuak...
norbait badala pizkorragua
ortik atera kontuak. (1)

(1) Bertso-papera: "Imp. Macazaga / Rentería",
Pelok berak emana.

(1951)

ZABALETA'TAR PELLOK JARRIYAK

Errenteria'ko Lanera-fabrikan, a r r a t o i-
-txakur bat zuten, txofer batek ekarria. Ba-
ñan miñez jarri zan. Langille batzuk egiña-
lean saiatu ziran sendatu nairik. Murmua
deritzaion gaitza izango zuala-ta, ontarako
ona zala-ta, zufrea ere sartu zioten aotik. Za-
kur gizagajoa il egin zan ordea. Orduan ber-
tso auek jarri zituan Pellok:

1/ Txakur txiki bat bazan
Lanera-fabrikan,
asko maite zutena
ez da dudikan;
miñez jarri zaiote
zerbait gaitzetikan,
bañan ez du izandu
laguntza faltikan,
gaizki ikusirikan,
sendatu nairikan,
finiten klinikan,
operaturikan,
gaixua joan zaie
eskutatikan.

2/ Markes palaziyotik
zuten ekarriya,
txakur txiki polit bat
txuri-txuriya;
begi erniarekin
tente belarriya,
mutur politekua,
etzan itxusiya;
ikasten asiya
zerbait maleziya,
jateko egaztiya
nai zuen guziya...
gosiak ez du galdu
orren biziya.

3/ Asnasik eziñ artu,
bi begiyak triste,
gaixua goiz batian
ikusi dute;
gauz onik etzutela
antzeman diyote,
gogor saiatu dira
bizirik zan arte;
sendatu nai dute,
iñola al badute,
oiñbeste suerte
izandu ez dute...
orri ollo jatiak
kendu dizkate!

4/ Txit gaizki zeguela
zuten ezagutu,
zer gaitz zeukan berekin
eziñ asmatu;
sendakilleik onenak
zizkaten billatu,
iñon al baziteken
nai zuten sendatu;
Martiñek operatu,
Fermiñek kuratu,
Inaziok artu,
orrek enterratu...
orra txakurren lanak
azkar bukatu! (1)

(1) Bertso auek, Pelloren bi eskuz-idatzitatik artu ditugu: bata, lumaz idatzia; bestea, lapizaz. Or goien, lumaz idatzian dagoan bezela jarri ditugu. Besteak aldaketa auek ditu:

3/1-6: Bi espezialista, iru pratikante,
enterradoria're soziyo dute,
izan diran onenak ekarri dizkate,

4/3-6: konsulta egitia zuten pensatu;
operatzalle on bat ziyoten billatu,

(1953)

BERTSO BERRIYAK

BIZI-MODU GARRATZA

- 1/ Kontzientziya zer dan
nai det argiratu,
zer esatera nuan
ondo begiratu:
lagun urkua dana
barrundik maitatu,
bearrian badago
laguntza billatu,
Jesukriston legiak
anparatzen gaitu.

- 2/ Kontzientziya ez da
begiz ekusitzen,
bañan bere bidiak
ditu ibillitzen;
gau ta egun erne dago,
ez da loaletzen
gaizki egilliaren
gorputza zulatzen,
prueba egiñ dutenak
ez dute ukatzen.

3/ Gaizki egiñ baño len
ezpada oroitutzen,
gero kontzientziyak
ez du barkatutzen;
egiñdako okerrak
beti gogoratzen,
gorputzikan etzaio
ondo deskansatzen,
badaki lasaiak e
estutu-azitzen.

4/ Nola oker aundiya
igual txikiya,
danetan billatzen du
beretzat tokiya;
gorputzian sartzen da
bere iduriya,
biali nai eta're
eziñ bialiya,
orrek erakusten du
istillu gorriya.

5/ Kontzientziya dago
illunpetatua,
iñbiritikan dator
beti gorrotua;
alkar eziñ ikusi
madarikatua,
au da mundu guziyak
dauken pekatua,
ez dakit izango dan
zeñek barkatua.

6/ Eziñ atera gera
illunpetatikan,
zergatik ez daukagun
anaitasunikan;
iñbiritikan ez dator
gauza zuzenikan,
dirua berriz degu
danen gañetikan,
ez du iñork esaten
nai ez duenikan.

7/ Diruak jartzen digu
amaika jaleo,
danak esaten degu:
“Ai asko balego!”;
zuzendutzen zalla da
okertu ezkerro,
orrek agiñduko du
oraiñ eta gero,
bide ortatik ez det
gauz onik espero.

8/ Diruaren mediyo
gaude gaiztotuak,
orri begira gaude
danok txoratuak;
nork aitortuko ditu
orren pekatuak?
jarritzen bagerade
ondo pensatuak,
alderdi askotara,
gaude okertuak.

- 9/ Diruaren inđarrik
nik eziñ det neurtu,
bañan bere kemenak
agertutzen ditu;
txiki eta aundiyak
engañatzen gaitu,
guk egiten deguna
geiegi maitatu,
negarrik aundiyenak
orrek jartzen ditu.
- 10/ Norbait ekusten bada
ondo dagonikan,
arentzat ez da falta
gaizki esanikan;
beste bat berriz eziñ
allegaturikan,
ari farra ta burla
aldamenetikan,
alderdiy'ortan ez da
laguntzallerikan.
- 11/ Begiyak zabaldua
eziñ ekusiya,
ori arrapatzen det
oso itxusiya;
eziñ billatu degu
gustoko tokiya,
bata bestiengana
beti inđidiya,
alkar anparatzeko
ai zer alderdiya!

- 12/ Ajolik gabe gaizki
egiten duanak,
gero sentitzen ditu
korapillo denak;
iñola eziñ askatu
lotuta daudenak,
burutik eziñ aztu
egindako lanak,
oik dira mirariak
kontzientziyenak.
- 13/ Mundura sortu giñan
urte gutxitako,
zer arrazoi daukagu
orla ibiltzeko?
alkarren errukirik
ez daukagulako,
oik dira naigabiak
animarentzako,
gutxitxo oroitzen gera
azken ordurako.
- 14/ Batzuak zartzen gera,
bestiak gazterik,
eriyotzak ez dauka
ordu segururik;
iñork e ez daukagu
iltzeko gogorik,
bañan emen ez dago
eskapatutzerik,
ez det uste danikan
au ez dakiyenik.

15/ Begiratu zayogun
Jesus maitiari,
iru iltzetatikan
zintzillik da ageri;
kostaduan llaga bat,
bi belaunak eri,
arantzazko koroia
buruan miñgarri,
gu salbatziagatik
dago errukarri.

16/ Orra amasei bertso
Errenteriyatik,
nere sor-leku maite
txoko onetatik;
urtiak asi zaizkit
zanpatzen gogotik,
Jauna, eskatzen dizut
biyotz-biyotzetik:
danok libra gaitzazu
eriyotz txarretik. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1954 inguruan)

“SAN ANTON EGUNIAN...”

Iru mutil gazte, baserri batera idia erostera joan ziran. Erosi ta bueltakoan, alabear zuten-da, Aitxolako menditik barrena zetozen. Mendi ortan, ikazkille-txabola bat zan, aspaldian utzita. Txabolan sartu, andik zapatak, eltzia, baia, pala, baldea, ta ikazkilleak utzitako katxarro zar-puskatuguziak artu, ta errira etorri ziran iru mutil gazte oiek. Pellok orduan bertso auk jarritzizkien:

San An-ton e-gu-ni-an ni-tu-ben i-ku-si
r-rur ga-lai gaz-te a-rr-i-o ta guz-ti; gau-za-ri-
kan o-ne-nak-zi-tuz-ten e-ro-si: an-dre-ga-yaren
bi-lla o-be-du-te a-si.

1/ San Anton egunian
nituen ikusi,
iru galai etxera
arrio ta guzi;
gauzarikan onenak
zituzten erosi,
andregaiaren billa
obe dute asi.

2/ Lenbizi egin zuten
iriyen tratua,
oraiñdik gaztia da
lau bat urtekua;
kolorez rubiyua,
ille rizatua,
itsatsa luzia du,
adarra moztua.

3/ Tratu ori eginda
ziraden abiya,
birian artu dute
gero katzarreiya;
nonai ez da izaten
orlako feriya,
erregaliya franko
badute ekarriya.

4/ Orduan suertatu
nitzan ikustia,
iru galai oriyen
arrio klasia:
Loentxok baia ta pala,
Bitoriok eltzia,
Jose Marik balde bat
zapataz betia.

5/ Ondo preparatutzen
asiyak dira-ta,
baia, pala ta eltze,
balde ta zapata;
lastima bat daukate:
andregaiia falta;
saia zaitezte, norbait
gustatuko da-ta.

6/ Aitxolako feriyan
zeiñ zegon dendari,
lastima, ez niyoten
galdetu berari;
omore txarrekuak
etziran etorri,
berriz zuaztenian
abisatu neri. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1959)

NERE LAGUN ZANAREN OROIMENEZ

Bertso auek Pellok Telleri-Txiki bertsolariari jarriak dira; ez, ordea, au il zanean, 1944 urtean alegia, askoz geroago baizik, orain zortzi bat urte, 1959 urte inguruan.

1/ Milla bederatzireun eta
berrogei eta labian,
Abenduaren ogei ta bata
Santo Tomas egunian,
Telleri-Txiki mundutik joan zan
Jaunaren borondatian,
oraiñ asi naiz oroimentxo bat
berari eman nayian,
aiñ zan bertsolai zuzen da apaña
kantari asten zanian.

2/ Jose Maria Berra ori zan
bai Telleri-Txiki'kua,
irurogei ta beatzi urtekin
utzi zuena mundua;
buru argiko gorputz tentia,
liraña eta altua,
aren abotik ateratzen zan
apaiñdutako bertsua,
amakiña bat itz goxo nago
argandikan aditua.

3/ Oroimen batez zuzentzen diyot
nere barrundik bertsua,
aztuta eziñ utzi nezake
nere lagun izandua;
mundu ontatik juan zitzaigun
bukaturik emengua,
San Tomas eguneko eguardiyan
zan zure azken ordua,
emen negarrez utzi zenduna
zure emazte gaixua.

4/ Zure emazte kutun ori da
Manuela Apalategi,
larogei eta sei urte oso
bete zaizkiyo berari;
lengo batian eliz-ataian
ekusi nuen nik ori,
eta oraiñdik txit pizkor dabil,
gaztiagua diruri,
gure Jaiñkuak nai duen arte
ondo-ondo bizi bedi. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1961)

BERTSO BERRIYAK

ZABALETA'TAR PELLOK
JARRIYAK

ILLARGIYAREN AZPIAN

Bertso auek, Norteamerikanoak illargira
cohete bat bota zutenean jarriak dira:

1/ Tresna bat illargira
sartu omen dute,
ez det ekusi bañan
al'esan dute;
gezurra baldin bada
engañatu naute,
lanikan gogorrena
egiñ omen dute;
ara joan nai dute,
iñola al badute,
bide txarra dute,
sinisten al dute?
an bizi litekenik
nik ez det uste.

2/ Askoren iritziyak
onlakuak dia:
“Laister illargira
joango dia.”
Oien esankizunak
egiyak al dia?
nik ez diyot artutzen
gauz orri fedia;
bakoitzak beria,
esan det neria,
arako biria
nondik da ordia?
kosta bear zaiote
billatutzia!

3/ Illargi ori dago
guztiz apartian,
argi egiten digu
illundutzian;
okertu gabe dabil
bide zuzenian,
alare ezin utzi
diyote pakian;
arako irian,
joateko airian,
abillidadian,
ez dakit nor dian...
saiatutzen dirade
alegiñian!

4/ Orrentzako ez dago
guk zer esanikan,
oraiñ arte ez digu
egiñ trabikan;
sigluetan ari da
laguntzen andikan,
ez det uste gezurrik
esan dedanikan;
ara joan nairikan,
bañan alperrikan,
ango berririkan,
ez da oraindikan;
gero're ez dadukat
esperantzikan.

5/ Illargira joan eta
berriz etortzeko,
ez al da asmu oitan
abiyatuko?
ateratzen danian
agurtu betiko,
zergatikan ez duten
geiago ikusiko;
ara lenbiziko
zeiñ dan iritxiko
ez degu ikasiko
nere iritxiko...
gezurrikan ez naute
sinistaziko!

6/ Illargira joan nai,
bañan zertarako?
bertan ez al daukagu
lanikan asko?
au ondo zaitutzia
ez al da obeko?
lan geiegi txarra da
edoziñentzako;
biderik arako
emenguentzako
ez dute parako,
urruti dalako...
pruebatako milloiak
aizientzako!

7/ Munduan tresna asko
ari dira jartzen,
len etziraden gauzak
dira azaltzen;
oien azkartasunik
nik ez det mendratzen,
lan buruzbidekuak
ai dira aurreratzen;
ez dira aspertzen
gauzak asmatutzen,
gau t'egun pensatzen,
gorputza nekatzen...
ai asiko balira
zarrak gaztetzen! (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1963)

BERTSO BERRIYAK

1900'KO GERTAERA

ZABALETA'TAR PELLOK
JARRIYAK 1963'AN

ERREENTERIKO "JANGOIKO-TXIKI"
ZANAREN BIZITZA

Jangoiko-Txiki, errenteriar baten izengoitia zan. Aren bizitzaren berri ematen digu bertso auetan Pellok. Argitasunak, *Oarso* aldizkaritik artu zituan.

1/ "Jangoiko-txiki" izengoitiya
eldu zitzaion aurretik,
ez-izen onek segitzen zion
biurriya izanagatik;
gizarajua aitaren faltan
gelditua zan gaztetik,
lurraldi ontan egun bat onik
etzuan izan geroztik.

2/ Aitak urkatu bere burua,
Ama alargun gelditu,
famiyako etorkizunak
ezin litezke kontatu;
ume txikiya azi bear ta
zer egin eziñ pensatu,
ama gaixoa azkenerako
ara zertâ zan beartu.

3/ Ama eskian asi zitzaion
biziari kontutzeko,
zer edo artâ mugitu bear
izango bazan jateko;
laguntzallerik etzedukaten,
asko burla egiteko,
ori bakarra naikua ez al da
ijenyua txartzeko?

4/ Mutil-kozkortu zan garayian
kalera ateratzen asi,
arrote xamar jazten zalako
danak ondotik igesi;
farra ta burla beste gauzikan
etzun egiten ekusi,
gizarajua orra nondikan
nora zuten gaiztorazi.

- 5/ Amak eskian biltzen zuena
ezer askorikan etzen,
mutil kozkor oi erdi gosian
etzan gustora ibiltzen;
ikusten zuen gauzetatikan
litxerreriyan asi zen...
orduan ura zuzendutzeko
askoren bearrik etzen.
- 6/ Litxerreriyan oitu zanian
lapurrerira jo zuan,
ajolik gabe bildur gutxikin
zernai gauz egiten zuan,
len burla egiten ziyoten danak
beldurraz jarri zituan,
labaña luze zorrotz-zorrotz bat
berekin ibiltzen zuan.
- 7/ Batzuen farrak, bestien burlak
ezin zituen sufritu,
ijeniyua txartu zitzaion,
biyotza berriz gogortu;
andik aurrera arekin broman
eziñ ziteken jostatu,
edozeiñ moduz itz egitera
ez argana iñguratu.

- 8/ Lan-tokiyen e etzun izaten
jostatzeko gogorikan,
miseriyakin gizatzartua,
etzedukan besterikan;
an e batekin aserretu zan
ezer gutxirengatikan,
ez bat eta ez bi or sartu diyo
labaña sabeletikan.
- 9/ Orduan preso eraman zuten
beldurtutziagatikan,
bear ainbeste zigortutzeko
etzeukan edaderikan;
nonbait e orrek aparatuta
askatzen zuten andikan,
bañan alare etzuen uzten
lengo oitura txarrikan.
- 10/ Beste txasko bat izandu zuten
Donostiyako partian:
arrote xamar jantzita zegon
sagardoteri batian,
zerbait laguntza egin bear ta
burlaka aldamenian,
agindu ziyon ixildutzeko
jarri baño len txarrian.

11/ "Nerekin daukat lanikan asko,
utzi zaidazu pakian,
edo bestela bertan ilko at
lendabiziko kolpian."

Orduan eta burla geiago
erronka egin nayian,
or sartu diyo labain zorrotz bat
bularraren erdiyian.

12/ An ziran danak zutitu ziran,
danak beldurrak aidian,
Jangoiko-txikik an utzi zuen
gizarajua lurrian;

Donostiyatik abiyatu zan
San Fernandoren kotxian,
iñork etziyon kasorik egin
Erreterira artian.

13/ Miseriya ta burla ta farrak
zeuzkan burura iyuak,
txikitan ortik txartu zan eta
gero ziraden kontuak;

arri're azkar eragin zizkan
ixildutzeko moduak,
gizarajuai kendu zizkiyon
berriketako goguak.

14/ Errenteriyen eldu ziyoten
okerrak aitortutzeko,
Jangoiko-txikik egin zuena
etzedukan ukatzeko:
“Nola ez dedan beste erropik
nik soñian jantzitzeko,
arrek etzeukan arrazoirikan
neri burla egiteko.”

15/ Donostiyara zamatelarik
mikeletiak aurrian,
iru jauntxo burla ta farrez
zeuden bide-baztarrian;
Jangoiko-txikik gelditu eta
begiratu zorrotzian:
“Desaidi oiek aztuko dira
urrena natorrenian.”

16/ Iru jauntxuak bildurtu ziran
aren begiratuakin:
“Gaur edo biyar etortzen bada
ez dek izango atsegin,
gaur egin digun desafiyu oi
ibilliko dik berekin,
bada-ezpada pensa dezagun
aldez aurretik zer egin.”

17/ Presondegira eraman zuten
Donostiyatikan Ceutâ,
an ere joka asi zaizkiyon
argala idurituta;
artutzen zitun ziorkadakin
zeukan burua lotuta,
kartzelerua or garbitu du
puñal luze bat sartuta.

18/ Garai arretan Españiyakin
gerran asi zan morua,
an ilko zuten asmuarekin
aurrera zan bialdua;
Jangoiko-txiki pobria bañan
etzan burutik tontua,
azkar egin du beste aldera
igarotzeko modua.

19/ Moruetara igaro zan da
an etzuten gaizki artu,
azkarra eta listua zala
nonbait zuten ezagutu;
umil da leial jokatzen zuen,
asko zitzaien gustatu,
ango jauntxuak morrontzarako
bera zuten izentatu.

20/ Ango jantziya eman ziyoten
emengua kendurikan,
oien morrontza egiten zuen
gustora eta pozikan;
pake santuan an bizitu zan,
arentzat etzan gerrikan,
Jangoiko-txikik etsiko zuan
etorri gabe andikan

21/ Emengo mutil asko zeukaten
moruak preso artua,
Jangoiko-txikik oik ikusteko
izaten zuen gogua;
mesede asko egiten ziyen,
etzeukan biyotz galdua,
beragatikan deitzen ziyoten
moro gipuzkuanua.

22/ Gerra bukatu zan garayian
zan presuaren trukera,
Jangoiko-txikik etorri bear
ostera bere lurrera;
ango jauntxuak emenguari
egiñ ziyoten galdera:
Onuntz ekarko zutela bañon
arri bizirik uztera.

23/ Or ezagun da Jangoiko-txiki
etzala gaizki portatu,
ango jauntxuak mutil oberik
ez omen zuten topatu;
aik bazakiten bazedukala
iltzeko aña pekatu,
beragatikan nai izan zuten
eriyotzatik libratu.

24/ Eriyotzatik libratu zuten
Españira etortzeko,
mesede ori egiñ ziyoten
ondo portatu zalako;
Cartagena'ra ekarri zuten
presondegiyan sartzeko,
etzuen pasa denbora asko
andikan ateratzeko.

25/ Cartagena'tik Errenterira
amasei egun birian,
or ezagun da Jangoiko-txiki
etzala sartu trenian;
pauso geienak eskian eta
lotan bide-baztarrian,
gizarajua etzan aserre
onuntz etorri zanian.

26/ Bere txokora allegatu zan
andikan abiyatuta,
Jangoiko-txiki etzan gelditu
bide oietan galduta;
Errenteriyen iru jauntxo
zauden beldurrak artuta,
Ameriketâ biali zuten
diru puska bat bilduta.

27/ Ameriketâ jua zitzaiun
Jaun Zerukuen graziyan,
zer lasaitasun ark utzi zuen
Errenteriko erriyan!
Danak beldurrez egoten ziran
ura zebillen tokiyan,
jениyo onik ez du izaten
bizi danak miseriyan.

28/ Jangoiko-txikik Ameriketän
topatu zuen zerua,
lana egiñez umildadian
irabazten zun dirua;
lur-aldi aitan izandu zuen
gizarte obiagua,
nai ordurako etzuen utzi
emen zeukan infernua.

29/ Infernutikan zerura joan zen
gure Jangoiko-txikiya,
tormentu asko igaro ondoren
zerbait zeukan mereziya;
beti-betiko aldegin zigun
utzirik Errenteriya,
urte batzuek gozatutzeko
izandu zuen graziya.

30/ Jangoiko-txiki izengoitiya,
ez det esan nai izenik,
aren razikan bizi balitza
eniyoke eman nai penik;
gonmertituta Ameriketâ
juan ziñaden emendik,
Chile aldian bukatu ziñan
azken arnasak emanik. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1964)

**GOIKO-KALETIK
GORA ERRENTERI!**

Doñua: «Aizak i, Manuel Mañontzi...»

1/ Eon gabetanik luzarun
aguro esan dezagun
Errenteriko erriy'onetan
zer ekusten degun:
falta dira milla lagun,
batere ez da ezagun,
Parisa bañon aundiyago da
urte gutxi barrun!

2/ Erriya arida aunditzen,
ala zaigu iduritzen,
bañan alare bear bezela
ez gera kabitzen;
gañezka gaude bizitzen,
ez al degu ekusitzen?
kalian ere len bezin lasai
ez gera ibillitzen.

- 3/ Gu gaztiak giñanian,
Errenteriko kalia
beiratu gabe ibiltzen giñan
patxara ederrian;
gaur automobil tartian,
kontuz ibilli gaitian,
nolapait ere eskapatu naiz
oraiñ bitartian.
- 4/ Automobil ta motuak
kale guztitan sartuak,
urte gutxitan azaldu dira
berebizikuak;
ez daude lengo kontuak,
gure gazte denbôkuak,
gaur beziñ lasai ibiltzen ziran
garai aitakuak!
- 5/ Ekusten degu erriyan,
iskiñan eta erdiyan,
etxe berriyak egin dituzte
len etzan tokiyan;
alaz ere eskasiyan
gaude oraiño aldiyan...
miligarrorik ez da kabitzen
txepetxan kabiyan!

6/ San Markoko menditxua,
ematen dezu petxua,
udaberriyan kuku-soñuaz
zaude alaitsua;
Errenteriko txokua
daukagu leku goxua,
erri polit bat ikusgarriya
eta mamitsua! (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

(1966)

AU LANA!

1/ Irurogei ta amar urtian
mundu onetan naiz bizi,
gazte denboran onlako gauzik
guk ez genduan ekusi;
motuak eta automobillak
jarri zaizkigu nagusi,
emen gabiltza bide guztitan
eziñ egiñik igesi.

2/ Kalian eziñ ibilli eta
joaten bagera mendira,
zerbait biderik baldiñ badago
an ere ikusten dira;
gu bururikan gelditu gabe
bazterretara begira,
garai bateko lasaitasunak
ederki estutu dira!

3/ Kotxiak eta zalduyak ziran
asi ziranak lenbizi,
denbor'aitako kotxero zarrak
bazeukaten milla grazi;
eta oraiño aurrerapenak
badaukate zer ekusi,
garai aietan etzan izaten
oraiñ aiñbeste deskrazi. (1)

(1) Pelloren eskuz-idatzietatik.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. *T. Alzaga*: RAMUNTZO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI.
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *A. Zavala, S.J.*: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. *F. Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAERAK.
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^o Zabala, A. Larraitz, Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverría*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALLA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASISKO LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala, S.J.*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala, S.J.*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala, S.J.*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala S.J.*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.

